




Soziolinguistika

aldizkaria



**HIZKUNTZA INDIGENAK
BIZIBERRITZEKO
ESPERIENTZIA BATZUK**



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Bat Soziolinguistika Aldizkaria euskaraz argitaratzen den soziolinguistika esparruko aldizkari zientifikoa da.

Bere helburua euskararen biziberritze-prozesuari buruzko ezagutza zientifikoa hedatzea da, eta soziolinguistikaren eremuan Euskal Herrian zein atzerria eginiko ikerketa teoriko eta teoriko-praktikoaren inguruko lanak dibulgatzea.

Hartzaileak euskal soziolinguistika esparruan lanean ari diren ikertzaileak, unibertsitateko irakasle eta ikasleak, eta euskara biziberritzeko prozesuan inplikaturik dauden agente guztiak dira. Horiez gain, Herri Administrazioiko hizkuntza-politikako ardurak publikoak dutenak eta teknikariak ere hartzaile dira.

Era berean, nazioarteko hizkuntzen biziberritze-prozesuetan lanean ari diren beste hizkuntza-komunitateetako ikertzaileek eta eragileek aldizkariaren xede-taldea osatzen dute. Azkenik, euskararen normalizazioan murgilduta dagoen gizarte osoak ere interesa du BAT Soziolinguistika Aldizkarian argitaratzen diren artikuluetan.

Aldizkaria Euskal Kulturaren Batzarrek (EKB) sortu zuen 1990. Urtean, eta sortze-prozesu horretan inplikazio zuzena izan zuen Jose Luis Enparantza *Txillardegik*.

Soziolinguistika Klusterra euskara biziberritzeko ikerguneak (kluster@soziolinguistika.eus, <https://soziolinguistika.eus>) argitaratzen du *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*.

Urtero lau zenbaki argitaratzen dira, hiru hilabeteko maiztasunarekin, perezko formatuan eta modu digitallean (aldizkari digitala ere bada).

Artikuluak zein aldizkari osoak webgunean daude eskuragarri, guztiak doan, azken lau zenbakiak izan ezik (horiek ordainpean) <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/zenbakiak/>

Era berean, artikuluguztiak **DIALNET** sarean daude eskuragai.

Artikuluen etika eta kalitatea bermatzeko konpromisoa hartu du aldizkariak, COPE Batzordeak (Code of Conduct and Best Practices Guidelines for Journals Editors) proposatutako Aldizkarien Editoreentzako Jardunbide Egokien Jokabide Etikoaren eta Jarraibideen arabera.

ISSN 2659-5176
ISSN-L 1130-8435
Lege gordailua: SS120/90
<https://doi.org/10.55714/BAT-129>



Aldizkaria Creative Commons Aitortu-Partekatu-Berdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

ZUZENDARIA: Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)

ARGITALPEN BATZORDEA

- Beñat Garaio (Soziolinguista)
- Eneko Gorri (Miarrizteko Herriko Etxea)
- Jone Miren Hernández (UPV-EHUKo irakaslea)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- Iñaki Martínez de Luna (Soziologoa)
- Inma Muñoa (Ikastolen Elkarte)
- Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUKo katedraduna) EMERITOA

ERREDAKZIO-TALDEA

- Belen Uranga (Koordinatzailea) (Soziolinguistika Klusterra)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterreko zuzendaria)
- Isabel Godinez (Soziolinguistika Klusterra)

Osaketa grafikoa:

Iñaki Gozalo Erro (Zirrimarra estudio grafikoa)
info@zirrimarra.eus

Harremanetarako:

Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.eus

Isabel Godinez
i.godinez@soziolinguistika.eus


Soziolinguistika Klusterra
kluster@soziolinguistika.eus
<https://soziolinguistika.eus>

BAT Soziolinguistika Aldizkaria
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus
<https://bat.soziolinguistika.eus>

Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 ANDOAIN 943 592 556

BAT 129.aren edizioa GARABIDE Elkartearekin lankidetzan egin da.





Gure nazio-hizkuntza berriro Euskal Herriaren mintzabide eta oinarri bihurtuko bada, beraz, bi gauza lortu behar ditugu; eta lorpen horretan laguntzekotan sortu da eskuetan duzun aldizkari hau. Bata, hizkuntzaren alorreko fenomenoak ahalik eta ongienik ezagutzea. Lehendabizi jakin egin behar da, egia ezagutu behar da al bait zehazkienik; beste herrietako saioak, arrakastak eta porrotak aztertu behar dira. Bestea, berriz, hizkuntza pizkundean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestarazi behar dugu. Herriak ez badu nahi, herriak ez badu nazio-hizkuntzaren arazoa bere gain hartzen, jai dago.

J.L. Alvarez Enparantza "Txillardegia" Aldizkariaren sortzailea
(BAT aldizkaria. 1. Zenbakia. 1990eko otsaila)

idatzi **bat** aldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arreta gune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikertzaile, normalizazio-tekni-kari, irakasle...

Guztion artean euskararen biziberritze-prozesurako akuilu izan nahi duen Bat Aldizkaria indartzen jarraitu nahi dugu, nazioarteko kalitate-irizpide akademikoak ardatz hartzen dituen euskal soziolinguistika garatuz.

***Oharra: Lanak aldizkariaren harremanetarako helbide elektronikora bidali behar dira, formatu digitalean. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpideak eta prozedura.**

<https://bat.sociolinguistika.eus/eu/aldizkarian-argitaratu/>



HIZKUNTZA INDIGENAK BIZIBERRITZEKO ESPERIENTZIA BATZUK

129

> HITZAURRE GISA

Iñaki Martínez de Luna **007**

01. Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: kontakizunak biziberritzeko izpiak
Xan Aire Hasket **011**
-
02. Andeetako ahots eta arbasoen jakintzetara itzul gaitzen, elkarrizketaren metodologia erabiliz: aurrerapausoak eta erronkak
Marleen Haboud Bumachar **031**
-
03. Datutik kontakizunera. Autodiagnostikorako prozesu komunitarioak, diskurtso berriak eta tokiko ekintza
Miriam Viviana González Garzón **057**
-

04. Yunešit'in komunitatearen esperientzia Nengayni ch'ih biziberritzen: Nexwejeni naghulchud yenidožen (gure hizkuntza berreskuratzen ari gara)
Paula Laita Pallares eta Russell Myers Ross **073**
-

05. HIGA! 2023: munduko hizkuntza gutxituen etorkizunerako aletxo bat
Ainhoa Pardina Arenaza eta Beñat Garaio Mendizabal **097**
-

GUREAN

Haurren euskarazko sozializazioa Zumaian
Belen Uranga Arakistain eta Ibon Manterola Garate **117**

SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA

Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz
HABE liburutegiarekin lankidetzan **151**

bat

Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

**HARPIDETU
EDO
OPARITU**

Urtean 40 euro


ABANTAILAK:

- > Hiru hilez behin,
BAT aldizkaria etxean bertan.
- > Hiru hilez behin, BAT aldizkaria epub eta
pdf formatuan jaso.

→ <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/harpidetza/>
943 592 556
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

Hitzaurre gisa

Iñaki Martínez de Luna*



Zenbaki hau hizkuntza-lankidetzaren itzalpean ehundu da gehienbat, edukiek Garabide Elkarteak jomuga duen helburuarekin bat egiten baitute. Izan ere, elkarte hori munduan barna gutxitasun egoeran aurki daitezkeen hainbat hizkuntza-komunitateekin harremanetan dago, honako helburu garbi honekin: lekuan-lekuan hizkuntza-komunitateak biziberritzen laguntzea. BAT Aldizkariako zenbaki honen izenburuak berak ere ongi islatzen ditu eduki gehienen nondik norakoak.

Zehatzago esateko, zenbaki honen gai monografikoa Garabidek 2023ko EHUKo Udako ikastaroetan antolatutako *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? Zertarako?* ikastaroan du oinarri. Izan ere, zenbaki honen hiru artikuluren mami nagusia ikastaro horretan eskainitakotik jaso da. Hala ere, edukiak ez dira horretara mugatzen, eta lan-ildo berekoak diren hiz-

kuntza gutxituen biziberritzea, alegia- iturri ezberdineko beste bi artikuluko eskaintzen dira: bata, Paula Laita Pallares-en doktorego ikerlanetik eta, bestea, *Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen Laugarren Topaketaren* (HIGA 2023) edukietatik.

Lehenengo artikulua **Xan Airek** idatzia da, eta arestian esandako udako ikastaroan partekatu ziren ponentzien eta mahai-inguruen asmoak eta edukiak laburbiltzen ditu. Horietan, gogora ekartzen ditu Garabideren ikastaroko aditu edo erreferenteek Ameriketako, Afrikako eta Europako zenbait hizkuntza-komunitateren biziberritzeari buruz emandako testigantzen ale mamitsuenak. Hizlarien ekarpenetatik bildutako edukiek nahi diete nagusiki erantzun elkarren artean harilkatuta dauden ondoko galdera hauei: Nor gara? Nondik gatoz? Zer ari da gertatzen? Nora goaz? Hartara, hizkuntza-komunitateek globali-

* Iñaki Martínez de Luna | Soziologoa, Garabide elkarteko lehendakaria | i.martinezdeluna@outlook.com

zazio-testuinguruan eta etorkizuneko kontakizunetan bizi duten krisi-unean zeharkatzen eta sakontzen da, ohartaraziz krisi-sentipena partekatua dela, baina aldi berean bildutako jendea utopia nagusi bat sortzeko prest ere agertu dela, hizkuntzen biziberritzeari jendarte-dimentsioa emateko xedez.


Bigarren artikulua **Marleen Haboud Buchachar** irakaslearen ekarpena islatzen du eta, hizkuntzaren ildotik aldenduz, komunitate indigenen ezagutza tradizionalan murgiltzen da. Zehatzago, Hego Ameriketako proiektu baten berri ematen du; alegia, *Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak* ikerlanaren filosofia eta metodologia deskribatzen ditu, kitxuaz ez hitz egin arren, beraien burua kitxuatzat duten Ekuadorreko Quito hiriburutik 35 km-ra dauden landa eremuko hiru komunitateetan oinarrituz. Proiektuak, inguruko landare sendagarriak berriz aurkitzeko prozesua eta herritarren sendatze-praktikak erakusten ditu, ikerketa elkarrizketan oinarrituz. Metodologia ulertzeko, lehendabizi, aurrez egindako zenbait ikerlan azaltzen ditu ikertzaileak. Ondoren, dokumentazio- eta biziberritze-prozesuak zehazten ditu, eta bidean izan diren erroka batzuetako arrakastak eta lorpenak azpimarratzen; izan ere, horiek iradokitzen dute ekimen komunitarioetan epe luzerako lorpenak eskuratu daitezkeela.

Miriam Viviana González Garzón-arena den hirugarren artikulua Hego Ameriketako eskarmentu baten berri ematen du, zeinak Kolonbiako hizkuntza indigenen gaineko gogoeta hauspotzea duen jomuga. Izan ere, artikulua honen azken helburua hau da: diagnostiko soziolinguistikorako prozesu komunitarioei, datuen inguruan sortzen diren diskurtsoei eta ondoriozko tokiko ekin-tzari buruz gogoeta egitea. Horretarako, 2007 eta 2020 urteen artean Kolonbiako indigenek eta gobernu-erakundeek egindako hizkuntzen azterketa soziolinguistikoak ditu ardatz, eta haiei buruz hausnartzen da egoera globalaren esparruaren baitan.


Paula Laita Pallares-ek laugarren artikulua idatzi du, UPV/EHUko ikerlari gisa. Horretan, Yunešit'in komunitatearen esperientzia aurkezten du, zeina Kanadako Columbia Britainiarreko Nenqayni ch'ih hizkuntza biziberritzeko ahaleginetan oinarritzen den. Ahaleginen horien artean, Yunešit'in Gobernuak eta UPV/EHUko ikerlariak lan kolaboratibo bat gauzatu dute. Horretan, metodologia indigenak eta komunitatean oinarritutako metodo parte-hartzaileak ardatz hartuz, egoera soziolinguistikoa eta hizkuntza biziberritzeko beharrak aztertu dira. Artikuluan, datuen analisi tematikoaren emaitzak aurkezten dira: Yunešit'in komunitatearen hizkuntza-transmisioaren eta hiztunen kopuruaren bilakaera jaso da, batetik; bestetik, hiztunak sortzeko eta, aldi berean, ezagutza tradizionalaren transmisiorako, kulturen oinarritzen diren murgiltze-programak eta -materialak.

Bosgarren artikuluan arriskuan dauden hizkuntzak hartu dira gogoeta gai, berriz ere, edukiak oraingoan *HIGA! 2023: munduko hizkuntza gutxituen etorkizunerako aletxo* jardunaldietatik bilduz, **Ainhoa Pardina Arenazaren** eta **Beñat Garaio Mendizabalen** eskutik. Izan ere, HIGA topaketen helburua hizkuntza gutxituen biziberritzean lan egitea da, mota horretako hizkuntzadun gazteak bilduz eta saioetan elkarlanean jarriz. Jardun horren jomuga estrategikoa, munduko hizkuntza-komunitateen arteko sare-lana abiatzea da. Hartara, 4. edizioa egin da Gasteizen, 2023an, eta bost eguneko programazioaren baitan, komunitate ezberdinetako kideek hizkuntzen biziberritzearen zein hizkuntza-aktibismoaren alorrean formatzeko eta haien errealitatea partekatzeko zein besteena ezagutzeko aukera izan dute. Artikulua, beraz, proiektu honek hizkuntza gutxituen biziberritzean egiten duen ekarpena azaltzen du.

Azkenik, GUREAN ATALEAN **Belen Uranga Arakistainek** eta **Ibon Manterola Garatek** idatzitako testua dugu, zeinak Zumaia herrian haurren euskarazko sozializazioa duen hizpide. Artikuluan, herri horretako haurren eta nerabeen sozializazioan euskarak zein leku duen aztertzen da; hala nola eskola-esparruan eta eskolatik kanpo, lagunekin kalean eta bestelako aisialdiko jardueretan, eta familiarekin etxeetan. Era berean, etxeko erabilera-ohituren eta haurren kaleko eta eskolako euskararen erabileraren arteko ustezko loturari erreparatu zaio. Metodologiari dagokionez, Zumaiaiko HH5, LH4 eta LH6ko haur eta nerabeen hizkuntzen erabileraren behaketa zuzena egin da, batetik; bestetik, nerabeek eta euren gurasoek osatutako inkestaren bitartez jaso diren datuak ere aztertu dira. Horien guztien emaitzak laburtzen dira artikuluan. •



bat (dosierak)



Hizkuntza gutxiak globalizazio testuinguruan: kontakizunak biziberritzeko izpiak

Xan Aire Hasket*

Laburpena. Artikulu honek biziberritzen ari diren munduko hizkuntza-komunitateen kontakizunak ditu hizpide: udako ikastaro batean partekatu ponentziak eta mahai-inguruen edukiak laburbiltzen ditu, jakinez Amerikako, Afrikako zein Europako pertsona erreferenteek dutela ikastaro horretan parte-hartu. Hizkuntza-komunitateen arteko ekintza partekatzea baino, globalizazio-testuinguruan eta etorkizuneko kontakizunetan bizi duten krisi-unea du zeharkatzen eta sakontzen, ohartaraziz krisi-sentipena partekatua dela, baina utopia nagusi bat sortzeko prest ere agertu dela bildutako jendea, hizkuntzen biziberritzeari jendarte-dimentsioa emateko xedez. • *Hitz gakoak:* Biziberritzea, kontakizuna, hizkuntza-ideologia, utopia nagusia.

Abstract. This paper deals with different narratives about indigenous communities of the world in the process of reviving their languages: it sums up the content of several talks and round tables that formed part of a summer course attended by key figures from Africa, the Americas and Europe. Rather than sharing action taken in language communities, it discusses the crisis situation they are experiencing in terms of their outlook for the future in a globalised context, warning that while the feeling of crisis is shared, the people attending the course reveal a tendency to create a fundamental utopia in order to add a social dimension to the revival of their languages. • *Key words:* revival, narrative, language ideology, fundamental utopia.

Sarrera-data: 2023/11/08. Ebaluazioak: 2023/11/10 – 2023/12/20. Onartze-data 2023/12/22

Zitatzeko modu gomendatua:

Aire, Xan. 2023. "Hizkuntza gutxiak globalizazio testuinguruan: kontakizunak biziberritzeko izpiak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 129. 11-30. Andoain (Gipuzkoa)

<https://doi.org/10.55714/BAT-129.1>

CC BY-SA 4.0

* Xan Aire Hasket | UPV/EHU. Plazara kooperatiba-kidea | Formatzailea eta hizkuntza lankidetzak karguduna | lankidetzaplazara.eus

SAR-HITZA

I

2023ko uztailaren 17 eta 18an iragan ziren, Garabide elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako, “Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? Zertarako?” izeneko jardunaldiak, Donostian. Artikulu honek, aldi berean, jardunaldi horien aztarna idatzia utzi nahi du, bertan erran zirenen oroigarri, baita hizkuntzen biziberritzerako kontakizunetan zein ondorio gorde daitekeen ere argitan emateko.

Hizkuntza-ideologian, edo, zehatzago erranik, hizkuntza gutxituak biziberritzeko kontakizunetan ardaztutako jardunaldiak xedetzat hartu zituztela argi utzi zuen Iñaki Martínez de Luna Perez de Arriba Garabideko lehendakariak, inaugurazio instituzionalean, munduan hizkuntza-aniztasunaren gainbeherarekin gertatzen ari denak aldi berean kezkatuta baina gogotsu uzten ari duela jendea, Euskal Herrian zein munduan.

Are argiago utzi zuen jardunaldi horiek ez zirela hizkuntza gutxituen biziberritze-esperientzia partekatzeetan ardaztuko, baizik-eta hizkuntza-kontakizunetan zentratuko: euskaldunon komunitatean gertatzen ari den kontakizun-krisi izpiak agerian ote dira munduko beste hizkuntza-komunitate gutxituetan? Globalizazio testuinguru honetan, zergatik, zertarako biziko gara hizkuntza gutxitu batean? Zein kontakizunek balio digute gaur, zein sortu beharko ditugu etorkizunera begira? Horri loturik, azpimarra egin zuen hizkuntza-kontakizunak mundu-mailan kokatzea garrantzitsua izango zela, esparru sozio-politikoan gaur baino toki, dimentsio eta oihartzun esanguratsua lortzeko etorkizunean.

Jon Sarasua Maritxalar irakasle eta Garabideko kideak, bere aldetik, euskararen kontakizuna biziberritzeko gogoeta-markoa proposatu zuen, jardunaldiaren bigarren egunean: azken aldiotan bereziki Euskaltzaindiaren Gogoeta Gunetik luzatzen ari den marko orokorra (nahiz-eta kontrabando kutsu eta giro gehiagoko foroetan ere ibili den gai berdinarekin), baliagarri izan daiteke munduko hizkuntza gutxituak bildu eta galdezkatzeko. Ondoko galderak harilkatuta egin zuen proposamena: Nor gara? Nondik gatoz? Zer ari da gertatzen? Nora goaz?

Euskaldunon komunitatean gertatzen ari den kontakizun-krisi izpiak agerian ote dira munduko beste hizkuntza-komunitate gutxituetan?

Globalizazio testuinguru honetan, zergatik, zertarako biziko gara hizkuntza gutxitu batean?

Zein kontakizunek balio digute gaur, zein sortu beharko ditugu etorkizunera begira?

**Hizkuntza
minoritarioak,
minorizatuak,
itzaltzen edo
salbatzen
ari direnak,
autoktonoak:
nor gara?
Kontakizunak
biziberritzekotan,
hizlariak asko
azpimarratu dute
subjektuaren
definizioaren
garrantzia, edo,
subjektuaren
auto-
definizioarena.**

Galdera horiek ardatz hartuta dugu eraiki ondoko artikulua, ondoko lau zatitan¹:

1. NOR GARA? Subjektu birdefinitze baterantz.
2. NONDIK GATOZ? Inflexio puntua hizkuntza kontakizunetan.
3. ZER ARI DA GERTATZEN? Talka ohiko bizimoduan.
4. NORA GOAZ? Utopia nagusi bat jomugan.

Aditu eta aritu euskaldunekin osatu egin zen hizlarien zati bat: Jone Miren Hernandez, Kike Amonarriz Gorria, Idurre Eskisabel Larrañaga, Jon Sarasua Maritxalar, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Miren Dobaran Urrutia, Estitxu Garai Artetxe, eta ni neu, artikulua egilea, Xan Aire Hasket.

Horiekin batera, mundu zabaleko pertsona erreferenteak ere mintzatu ziren, modu presentzian egonez zein, telematikoki: Asya Zayzaoui (Amazigh Tarifit), Gualberto Quispe eta Marleen Haboud (Quechua), Miriam Viviana Gonzalez Garzon (Nasa), Yazmin Yadira Novelo Montero (Maya), Michelle Daveluy eta Laurence Alain (Quebec), eta Europa ardatz daukan Coppieters Fundazioko Sandrina Antunes.

1. NOR GARA? SUBJEKTU BIRDEFINITZE BATERANTZ.

I

Hizkuntza minoritarioak, minorizatuak, itzaltzen edo salbatzen ari direnak, autoktonoak: nor gara? Kontakizunak biziberritzekotan, jardunaldietan parte-hartu duten hizlariak asko azpimarratu dute subjektuaren definizioaren garrantzia, edo, zehatzago jota, subjektuaren auto-definizioarena; baita, ondorioz, subjektuaren auto-pertzepzioarena.

Horri lotuta, jardunaldiko lehen ponentziek pertzepzioa izan dute hizpide, bereziki kanpotik, edo gainetik, definitzen denean hizkuntza-komunitate bat: Asya Zayzaouik zehaztu du, Amazigh Tarifitak “gaizkile” gisa aurkeztuak direla Marokoko autoritateen partetik, “bereziki tarifit hizkuntza esfera sozial batzuetan erabiltzeagatik (administrazioan, akademian, edota hiri batzuetan); are gaizkileago, tarifit hizkuntza biziberritzen denean: ez dezagun ahaztu gutarteko batzuk presondegian

1 Azken argibidea irakurlearentzat: artikulua oinarritu eta mugatuko da jardunaldietan erran eta partekatu zirenetan; ondorioz, ez da bibliografia espezifikoki bat mobilizatuko hemen.

egon direla edo badaudela oraindik, gure hizkuntzaren aldeko ekintza soilagatik. Munduak bizi duen errealitate gordinetatik bat da, hizkuntza-aniztasuna bermatu edota biziberritzeko alor konplexuan”. Horrek asko aldatzen du hizkuntza-komunitate batzuekiko izan daitekeen pertzepzioa: inguruko jendarteak sozialki barneratu baldin badu komunitate hori gaizkilea dela, denborarekin, komunitateak berak ere halako auto-pertzepzioa barneratu dezake, bereziki horren inguruko presio soziala erregularra edo egunerokoa baldin bada.

Ildo beretik joan da bigarren hizlaria, Xan Aire Hasket: “berrikusi egin beharko genuke hizkuntzak zein garrantzia daukan gure bizitzan, zein den bere balioa gure jende izaerarekiko, gure gizatasunarekiko. Inguruko hizkuntza nagusitu batek, bere etorkizuna bermatzeko arazorik ez daukanak, aise botako digu hizkuntza soilik komunikatzeko egina dela, edota gure hizkuntzak ez duela ezertarako balio”. Alegia, gai izan beharko genukeela erantzuteko: “Ah bai, hizkuntzak soilik komunikatzeko balio du? Hori zuen mundu-ikuskerara da. Euskaldunok hizkuntzatik auto-definitzen gara, hizkuntzan ardaztu dugu gure izaera; hizkuntzak balio digu komunikatzeko, mundua irakurri eta ulertzeko, baita mundua egiteko ere”.

Auto-definizioetik hasten baldin bada gure ahalduntze kolektiboa, agian grabitate zentro batzuk berrikusi beharko ditugula iradoki du Xan Aire Hasketek: “Hizkuntza nagusituek atxikitzen ez duten grabitate zentroa, haiek gu definitzea baino, guhaur definitu gaitezen, eta inguruko jendartean ez beti postura defentsiboan ikusiak izan”. Gualberto Quispek azpimarratu duen bezala: “Zergatik hizkuntza minorizatu deitzen gaituzte? Quechua naiz, quechua gara”. Hortik, kolektiboki iradoki dezagun nahi dugun mundua. Grabitate-zentro berri horietan, beraz, irudimen komuna partekatu dezagun, bai hizkuntza-komunitateon artean, bai inguruko jendarteetan. “Europari eta munduari hika hasteko garaia dugu”, Miren Dobaran Urrutiak adierazi bezala.

Hala eta guttiz ere, hizlariak beharrezkotzat jo dute auto-definizioan argitze urgente bat. Alde batetik, “hizkuntza minoritario” gisa definituak izateak askori ez dielako ia balio: “hiztun gutxikoa izatea ez al da zerbaiten ondorio? Ondorioa argi utzi gabe segituko al dugu minoritario gisa definitzen munduan?”, pausatu du Asya Zayzaouik. Quebecetik ere oihartzun bera helarazi dute Michelle Daveluy eta Laurence Alain ikerleek: “Minoritario estatutua ukatzen eta bota egiten dute Quebecoko populu autoktonoek. Haiek autoktonotzat daukate beren komunitate-

Hizkuntzak soilik komunikatzeko balio du? Euskaldunok hizkuntzatik auto-definitzen gara, hizkuntzan ardaztu dugu gure izaera; hizkuntzak balio digu komunikatzeko, mundua irakurri eta ulertzeko, baita mundua egiteko ere.

**Biziberritzen ari
garen munduko
hizkuntza-
komunitateak
gara: hori
adosten baldin
badugu,
badaukagu
zer kontatu
geure buruari,
geure inguruko
gizarteei, baita
munduari ere;
baina, batez ere,
izango dugu
zer kontatu
etorkizunari,
eta ondoko
belaunaldiei.**

-multzoa, baina estatutu horrek norberetik abiatu egin behar du: horrek ere ez du kanpotik edo gainetik etorritako definizio inposatu eta murriztailea izan behar. Munduari ekartzen diogun gure kolorea adierazi egin behar du, bai inguruko jendar-tean, bai mundu zabalean, baita, noski, hizkuntza-komunitateetan bertan. Kontuan hartuz, hala ere, autoktono estatutuak badaukala autentizitatean erortzeko arriskua: alegia, eboluziorik gabeko komunitate eta kultura bat, kasik apaingarri gisa lurralde batean. Agian, horregatik uzkur zaudete, Europako kultura batzuen artean, autoktono gisara auto-definitzeko”.

Sandrina Altunese, bere aldetik, ohartarazi du Europako instituzio nagusienetan (politiko eta akademikoetan) dagoen zailtasuna gutxiengoaren hizkuntza edo hizkuntza minoritarioak baino, hizkuntza minorizatuak definitu eta aipatzeko: “Dauden dokumentu ofizialetan, hizkuntza minoritarioak daude aipagai: Europako hizkuntza minoritarioen ituna da, agian, sozialki eta kulturalki ezagunena”. Horrek, ordea, hizkuntza horien errealitate bat ez du islatzen: “hiztun gutxikoa izateaz gain, hizkuntza horiek bizi-espazio murrizta daukatela horien inguruko jendartean, eta egunerokoan”. Lagungarri litzateke, Sandrina Altunesen aburuz, hizkuntza minorizatu estatutuak ezagupen argiagoa eskuratzea, hizkuntza-politika zehatzago eta pertinenteagoak ondorioztatzeko, bai Europa mailan, bai maila lokalagoetan, baita, agian mundu zabalean ere. Kulturala bilakatu dadin hizkuntza gutxituak badaudela munduan onartzea, eta korapilo askatze horrek ekarriko lukeela munduan hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bermatzea.

Jardunaldietan zehar, ordea, batek baino gehiagok adierazi du bere kezka, subjektu bezala minorizatu gisa auto-definitzeko. “Kontatzen duguna gara”, ohartarazi du Idurre Eskisabel Larrañagak, ondorioztatuz kontatzen eta kontatuko dugunak dituela gure dinamikak eta ekintzak bidean jarriko, eta horiek dituztela, ordainean, gure kontakizunak elikatuko. Jon Sarasua Maritxalarrek, bere aldetik, “etorkizun errelato baten beharra” aldarrikatu du: “horretarako, iradokitzaileagoa den kolektibo bat definitu beharra daukagu. Biziberritzen ari garen munduko hizkuntza-komunitateak gara: hori adosten baldin badugu, badaukagu zer kontatu geure buruari, geure inguruko gizarteei, baita munduari ere: baina, batez ere, izango dugu zer kontatu etorkizunari, eta ondoko belaunaldiei”. Zentzu berera doa Marleen Haboud: “Konbinatzen baldin baditugu komunitate bakoitzaren irudimen propioak eta hizkuntza-lankidetzak, konturatzen gara mundu bat badaukagula osatzeko, eta berriz eskaintzeko munduari, baita munduaren etorkizunari. Alegia,

munduak ematen diguna itzultzen diogu, bere eta gure aberastasunean elikatzen jarraitzeko”.

Jardunaldiek horrelaxe dute iradoki subjektu birdefinitze bat: **biziberritzen ari garen munduko hizkuntza-komunitateak**. Geratzen zaigu azaltzea osatu nahi dugun mundua: alegia, nora goazen. Artikulu honen azken zatian botako ditugu kontakizun horren izpiak. Hori baino lehen, nondik gatozen eta zer ari den gertatzen zehatzago aztertzea beharrezkoa zaigulako.

NOR GARA?

BIZIBERRITZEN ARI GAREN MUNDUKO HIZKUNTZA KOMUNITATEAK



2. NONDIK GATZ? INFLEXIO PUNTUA HIZKUNTZA KONTAKIZUNETAN.

I

“Nondik gatz?” Galdera existentzial eta zabal horri erantzuteko, askotariko bideak dira: kontua ez da izan, jardunaldi horietan, biziberritzen ari den hizkuntza-komunitate bakoitzaren berezitasunak (linguistikoak, soziolinguistikoak, politikoak, kulturalak, historikoak...) aztertu eta partekatzea, baizik eta bilatzea, berezitasun horiek baztertu gabe, zein izan den biziberritzen ari diren hizkuntza-komunitateen kontakizunaren ibilbidea, ikuspegi soziolinguistiko eta globaletik begiratuta. Elkartzen gaituena ere harrapatzeko.

Jardunaldian presente egon diren hizkuntza-komunitate horien ordezkariak ezin argiago utzi dute kontua: inflexio puntu bat gertatu da,

Nazio Batuen Erakundeak epe fatalak ematen dizkigu, eta inertzia gehiago eragiten du, aktibazioa baino. Nork jarraituko du gurean, hondamendira goazela barneratu badu? Nor etorriko da gurera, suntsitzera goazela baldin bada gure ezaugarri nagusietan azpimarratzen dena?

komunitateak kontatu desagertzera doala ala biziberritzen ari dela. Artikulu honen lehen zatiarekin lotura eginez, Yazmin Yadira Novelo Monterok adierazi du, adibidez, Maya komunitateak jasan egin duela kontakizun “kolonialista” bat, zeinetan “gure estetika eta edertasuna konplimentatzen ziren, baina hizkuntza inoiz aipatu ez”. Iraun duen diskurtso eta sinesmena: “gaur egungo GKEek ere inoiz ez dute hizkuntza kontuan hartzen; ondorioz, Maya izaera osoa ere ez dute hala egiten! Alta, hizkuntza izan da maya bizimodua mendeetan garraiatzen eta eguneratzen lagundu duen ardatz eta tresna nagusietariko bat”. Ildo beretik ekarri du “osoa izateko zailtasuna” Gualberto Quispe quechuak, “hizkuntza bizia delarik, alta, baita pentsamendua eta sentimendua”.

Hark ere baieztatu du inflexio puntua badela, kontakizunean norabide nagusia desagertzea izan, ala biziberritzea izan. “Nazio Batuen Erakundeak epe fatalak ematen dizkigu, eta inertzia gehiago eragiten du, aktibazioa baino. Nork jarraituko du gurean, hondamendira goazela barneratu badu? Nor etorriko da gurera, suntsitzera goazela baldin bada gure ezaugarri nagusietan azpimarratzen dena?”. Amerikan iparrago, konstatazio bera egin dute Michelle Daveluy eta Laurence Alain ikerleek, Quebecen: “desagertzearen diskurtsoak beherakada, edota etena dakar belaunaldi arteko transmisioan. Horren ondorioetarik bat da beherakada hori soilik bere egiten duela komunitateak (eta ez inguruneko jendartearena), ez duela tarterik hartzen horretaz gogoetatzeko, eta konfiantza gutxitzen dela belaunaldi gazteengan. Horrela nekeago bilakatzen da etorkizuna abordatzea, baita komunitate bezala proiektatzea geroan”.

Nasa komunitateko Miriam Viviana Gonzalez Garzonek 2010 urtea mugarri eta inflexio puntutzat gogoan hartu du: “2010ean ziren gauzak zinez mugitzen hasi guretzat, biziberritzearen diskurtsoak barneratu eta gureganatzen hasi ginenean. Duintasunez hasi ginen esku artean genituen datu apurrak begiratzen, diskurtsoak egokitu genituen biziberritzera buruz, eta araberako ekintzak planteatzen. Biziberritzeak eskatzen zuen datu gehiagoren bila ere abiatu egin ginen”. Oihartzun bera helarazi du Marleen Haboud quechuak: “Behin konturatu ginenean elebitasunak bi hizkuntzetatik bat (gurea, noski), desplazatu eta murriztu egiten zuela, espazioen konkistan hasi ginen, baita belaunaldi gazteei galdezka”. Maya hizkuntzaren biziberritzearen ezaugarrietan ere kokatu ditu gazteak, Yazmin Yadira Novelo Monterok: “Kulpa haiei botatzea baino, hasi gara galdekatzen gazteak zerk mugiarazten dituen, eta zerk mugiaraziko dituen etorkizunean”.

Euskaldunon komunitatean gazteen kezka hori adierazi du Jone Miren Hernandezek: “Gazteak, euskararen etorkizunerako arazo? Nola sozializatzen ari gara kezka hori? Gazteek euskara erabiltzen ez badute, ez al da helduok oztopo garelako erabileran?”. Alta, gazteen hizkuntza-sozializazioa ardatz hartzeak hizkuntza biziberritzerako duen garrantzia erabakigarria izan daitekeela azpimarratu du baita Xan Aire Hasketek ere: “zama osoa eman gabe, ordea; ez genuke ingurumenaren zaintza eta trantsizio ekologikoa osoki belaunaldi gazteen gain utziko, gaur egun dagoen giroan, ekologiarren arlo horretan; zergatik hizkuntzaren zaintza eta trantsizio linguistikoa gazteengan utziko genituzke? Falta zaigu hizkuntzen biziberritzea erronka eta aukera global bezala barneratzea, kolektiboki, sozialki eta politikoki”.

Jakinda, gainera, helduon artean irauten duten eztabaida “antzuak” badaudela oraindik, Quebecen ikusten duten bezala Michelle Daveluy eta Laurence Alaineek: “hiztun gazte edota berriek ikasten ari diren hizkuntza hori ez dela *ona* diotenean, adibidez, komunitateko belaunaldi zaharrenek. Beste komunitate batzuek, aldiz, belaunaldi gazteak txalotzen dituztelarik innu hizkuntzan repeatzeagatik. Hori ere bada hizkuntza baten biziberritzearen parte”. Hizkuntza-kalitatearen eztabaida ere gogora ekarri dute bi ikerleek: “Hori ere bai dela hizkuntza hauskor eta minorizatu baten zantzua: gure inguruko anglofonoek ez digute inoiz adierazi kezkarik, hizkuntza-kalitateari dagokionez. Alta, ingelesa minoritarioa izan daiteke Quebecoko hainbat tokitan, baina inoiz ez minorizatu; anglofonoek ardatza hizkuntzaren kalitatean baino, hizkuntzaren egokitasunean ematen dute: espazioen, funtzioen eta erregistroen arabera, hizkuntza egokia erabiltzea. Egokitasunaren ardatza hartuta irakasten da, geroz eta gehiago, frantses hizkuntza Quebecen, bereziki etorri berriei, ahalik eta azkarren erabili dezaten bertan sozializatzeko, bereziki ahoz”.

Gisa bereko eztabaida ere aurki daiteke biziberritzea versus bazterketa, edota versus inposizioa, Kike Amonarriz Gorriak azpimarratu bezala: “diskurtsoak sendotzeke ditugu horrelako egoera eta eztabaidetan, aldi berean oinarritzko baldintzak, pertsonen eskubideak, aniztasuna, politiken babes eta jarraipena, eta salatzeke diskurtso operatiboak lotzeko”. Biziberritzeak horrelako dikotomiak ekartzea “seinale positibotzat” hartzea gomendatu du, “biziberritzeak gauzak mugiarazi egin dituenaren seinale gisa”. Hala ere, Jon Sarasua Maritxalarrek erronka daukagula dio, bere aldetik, biziberritzeak ekarri egoera berriei “gramatika ideologikoa” aurkitu eta adosteko; “utopia moderno eta nagusiek ekarri ez

Ez genuke ingurumenaren zaintza eta trantsizio ekologikoa osoki belaunaldi gazteen gain utziko; zergatik hizkuntzaren zaintza eta trantsizio linguistikoa gazteengan utziko genituzke? Falta zaigu hizkuntzen biziberritzea erronka eta aukera global bezala barneratzea, kolektiboki, sozialki eta politikoki.

Kontakizunetan gakoa desagertzea izatetik biziberritzea izatera igaro behar da: bagatoz desagertzera doan hizkuntzak izatetik, biziberritzen ari garen munduko hizkuntza komunitateak izatera.

diguten gramatika: ikasi dugu *liberté, égalité, fraternité*, baina ez *identité*, ez eta hizkuntza-aniztasuna nola kudeatzen den, sozialki zein politiko-ki, diskurtsoan zein praktketan”.

Alta, Gualberto Quisperen aburuz, hizkuntza biziberritzeak “hizkuntza demokratizazioa” dakar: “Geure buruak ikusaraztetik (komunitate-nortasun eta harrotasuna), geure hizkuntzen interpreteak izateraino batzar garrantzitsuetan (hizkuntza erabiltzeko baliabideak ematea, hizkuntza-aniztasuna kudeatzen laguntzeko modu pragmatikoan). Gure hizkuntzan sozializatuz bezala, espazioak irabaziz”. Horri lotzen du subjektu birdefinitzeari: biziberritzen ari garen munduko hizkuntzak. Biziberritzea kolektiboki barneratu dugunean, hasten baikara gure transmisio kanalak bermatzen eta asmatzen, baita espazioak irabazi nahian. Biziberritzeak dakarkigulako kontakizun ahalduntzaile eta burujabea.

Bigarren zati hori laburbiltzeko, “Nondik gatoz?” galderan inflexio puntu globala kokatu dugu, kontakizunetan norabidea desagertzea ala biziberritzea izan: **bagatoz desagertzera zoazen hizkuntzak izatetik, biziberritzen ari garen munduko hizkuntza komunitateak izatera**; bagatoz hizkuntza-transmisio etenetik, hizkuntza-sozializaziora. “Nora goaz?” galderari izpiak argitan eman baino lehen, hala ere, kontuan hartu beharra daukagu gertatzen ari dena munduan, eta gure hizkuntza komunitateotan, gaur egun: talka ohiko bizimoduan.



3. ZER ARI DA GERTATZEN? TALKA OHIKO BIZIMODUAN.

I Biziberritzen ari garen munduko hizkuntza-komunitateak izanik ere, ezin ukatu “kontakizunaren krisia” bizitzen ari garela, Idurre Eskisabel Larrañagaren aburuz, eta hau ez dela “ez lehen aldia, ez azkena”. Yazmin Yadira Novelo Monterok, bere aldetik, zehaztu du, “hizkuntzari baino, hiztunei gertatzen ari zaiena” dagoela begiratu behar, eta bereziki “bizitzen ari garen talka ohiko bizimoduan”. Talka horrek daukala eragin nagusia hizkuntzen kontakizunak biziberritzeko krisian, “noraezean izateko sentipena, edo ezin arrankatze sentsazioa” elikatzen, oro har, munduan, eta biziberritzen ari garen munduko hizkuntza-komunitateon esferetan.

Ohiko bizimoduko talka hori hainbat arlotan kokatu dituzte jardunaldietako ponenteek, ondoko sailkapenean antolatu ditugula, bost puntu nagusi eta gurutzatueta.

Hizkuntza-ideologia: Jone Miren Hernandezek argi utzi egin du, hizkuntza biziberritzeko arloan eta kontakizunetan, “eszenatoki berria” datorrela gazteekin, baina gazteek islatzen dutela helduon munduan gertatzen ari zaiguna: “Hizkuntza/Etnia harremana krisian dago, hizkuntzak ez dira ia soilik etniei lotzen, funtzionalitate batzuei soilik”. Munduan kasu ezagunena globisha izan daiteke, efizientzia handiko hizkuntza funtzionala, baina etnia jakin batean errorik ez duena topatzen. Horrek ez du erran nahi mundu ikuskera berezirik ez dakarrela berekin.

Hernandezen hitzetan, horrelako kasuek eragin ditzakete, euskara bezalako hizkuntza batentzat, ez-leku batzuk: errotzen ez den hizkuntza bat, orainean jokatzen ez den hizkuntza bat bilaka daiteke euskara, eta horren eragin nagusia izan daiteke euskal hiztunaren prekarizazioa: arlo materialean, sinbolikoan eta ideologikoan gabeziak eta ezintasunak izanez, jendartearen periferian kokatzen da euskal hiztuna, baldintzarik gutxirekin euskaraz bizitzeko, eta justizia soziolinguistikoaren babes gutxirekin, edo gabe. Horri lotzen bazaio hizkuntza-sozializazioa noraezean dabilela gaur egun, are garrantzitsuago bilakatzen ari da hizkuntza-ideologia, kontakizun indibidual eta partekatua izan dezagun, hizkuntzen biziberritze-prozesuaren zentzu eta praktikak berrikusteko. Kontakizunak biziberritzeak ekar dezakeelako subjektuen ahalduntzea.

Norbera: Globisharen kasua aipatu egin du Xan Aire Hasketek ere bai, dakarren mundu ikuskeragatik: “hitz gutikoa, efizientea, komunikatze-

Hizkuntza-sozializazioa noraezean dabilen honetan, are garrantzitsuago bilakatzen ari da hizkuntza-ideologia, kontakizun indibidual eta partekatua izan dezagun, hizkuntzen biziberritze-prozesuaren zentzu eta praktikak berrikusteko eta kontakizunak biziberritzeak ekar dezakeelako subjektuen ahalduntzea. (Jone Miren Hernandez)

Kapitalismoak ez dauka komunitateetan interesik, baina norbanakoen multzokatze eta segmentazioetan, bai; komunitate oro desagitea interesatzen zaiolako; hizkuntzek ez dute hor tokirik, komunitateak garelako, eta horrela gara kontrakorrontea bilakatzen (Jon Sarasua)

ko eta saltzeko balio duena, eta jendartearen indibidualizazioa islatzen duena". Jon Sarasua Maritxalarrek, bere aldetik, jendartearen eta ohi-turen "zaticatzea" izan du hizpide, "dekonstrukzio programen atzean kapitalismoa" dagoela, "zure desio propioak erdigunean jartzen, horretan daukalako hark interesa. Kapitalismoak ez dauka komunitateetan interesik, baina norbanakoen multzokatze eta segmentazioetan, bai; komunitate oro desagitea interesatzen zaiolako; hizkuntzek ez dute hor tokirik, komunitateak garelako, eta horrela gara kontrakorrontea bilakatzen".

Estitxu Garai Artetxek argi utzi du jendarte-pertzepzioetan ez dela eus-kara nortasun indibidualari lotzen: "hori, agian, akatsa izan daiteke gaur egungo gizarte-sisteman, baina aukera ere bai, zerbait kolektibo planteatzeko modua izan daitekeelako hizkuntza eta bere kontakizuna biziberritzea". Idurre Eskisabel Larrañagak, bere aldetik, azpimarratu egin du talka bizitzen ari garela "norberaren agentzian, kolektiboare-kiko eta bizikidetzarako: nola uztartu norberaren desioak eta hautu kontzienteak, konpromiso kolektiboak, eta bizikidetzan aktore izatea? Jakinda euskara ez dela errentagarria, kontakizunak josten eta zoru dis-kurtsiboa eraikitzen asmatu beharko dugu".

Komunitatea: Gizarte-sistema indibidualizatuago honetan, nola por-tatzen da, beraz, komunitatea? Idurre Eskisabel Larrañagaren ustez, "hizkuntza-komunitatea bera hertsagarri izan daiteke, errotzea zen-tzu txarrera bizita: gaketzea. Horretan ere diot ikusten interes berezia hizkuntza-lankidetzari: aldi berean hizkuntza biziberritzea bidaia eta elkartruke kontakizun eta ekintzei lotzeko, baita unibertsala eta politi-koari lotzeko, beste borroken gisara". Jone Miren Hernandezek oharta-razi du talka gertatzen ari dela beste arlo sozialetan, klasea eta generoan bereziki, eta interseksionalitate batean koka daitekeela hizkuntzen bizi-berritzea ere, komunitateak eta borrokak gurutzaraziz.

Komunitateen artean, familia egoera berezia bizitzen ari dela ere azpi-marratu egin du: "Familiaren kontzeptua bera berrikustekoa dago, iku-sita zenbat aldatu egin diren gauzak, eta pantaila bezalako gailuek ere nolako aldaketa dakarten etxeetan". Hala ere, Itziar Idiazabal Gorrotxa-tegik, bere aldetik, segitzen du pentsatzen hizkuntzaren biziberritzetik badaukagula zer kontatu familiei: "Argumentario luzeak badauzkagu, euskara bezalako hizkuntza ikasteko zergatiak zerrendatuko dizkienak gurasoei. Baitezpadako komunitatea izaten segitzen du familiak, hiz-kuntza biziberritzerako ere bai, baina ez diogu nahiko argi uzten ga-

rapenerako baliabide oso indartsua dela hizkuntza, eta bere biziberritzea". Hizkuntzak, ordea, "praktika behar du, eskolatik kanpo, eta hori familiak inizatzen duen gizarte ekintza da. Zorritzarez, uste dut eskola bakarrik uzten ari garela familiei hitz egiterako une eta moduan: gizarte osoaren laguntza beharko luke eskolak, familien sentsibilizazioan eragiteko, eta irisgarritasunean irabazteko. Gizarte osoak lieke kontatu beharko familiei zein garrantzitsuak diren umeen hizkuntza-sozializazioan, gure komunitateotan ere barneratu dezagun hori".

Lurraldetasuna: Lurralde bat hizkuntza bati lotzea ez dela hain ebidentea geratzen gaur egun azpimarratu du Kike Amonarriz Gorriak. "Estatu bat - hizkuntza bat lotura zaharkituta geratzen ari zaigu, batez ere bizitzen ari garen digitalizazio-aroarekin, eta ikusten ditugun jende migrazio eta fluxu erraldoiek: egoera konplexua da, eta hizkuntza-kontakizunak biziberritzerakoan, hori kontuan hartzea baitezpadakoa zaigu. Plaza eta kale-kantoi berriak agertu zaizkigu mundu digitalean, zeinetan jendea ibiltzen den, baina hizkuntza asko eta asko beraien toki aurkitu ezinean dabilzan. Hizkuntzen funtzionaltasuna digitalizaziotik pasatzen ari da gaur, eta badaukagu zer pentsatu, hizkuntza-komunitateon kolektiboan, eskaintzen dituen erronkez eta aukerez". Gualberto Quispek, bere aldetik, deitoratu du "hirian identitatea galtzen" dela, eta "sustraien garrantzia" lurraldean ere kokatzen eta zedarritzen dela oraindik, "etorkizuneko belaunaldiek eskertuko dutela nonbait errotuak izatea, hain bizimodu uniformizatzailean ez galtzeko". Miriam Viviana Gonzalez Garzonek lotura egin du Nasa hizkuntza eta lurraren defentsaren artean: "Lurrak, hizkuntzak eta hezkuntzak lotura estua daukate oraindik gurean: toponimia lantzeak, adibidez, lurraren eta hizkuntzaren defentsan eragiten du, hezkuntzan eraikitzaile izateaz gain". Michelle Daveluy eta Laurence Alainek, "base segurutzat" jo dituzte Quebeceko hizkuntza autoktonoen lur-zati historikoak, azpimarratuz lur horien inguruko hiri nagusietan beren hizkuntzak erabiltzen hasi berri direla, bereziki emazteak eta gazteak.

Asya Zayzaouik ohartarazi du Amazigh Tarifit komunitateak Marokoko erresuman bizi dituen zailtasunen aurrean, "diaspora estrategikoa" bilakatzen ari dela, bereziki European masa kritiko bat bildu egin delako, eta "trinkotu eta artikulatu beharko duelako hizkuntzaren biziberritzearen inguruan, askatasun gehiago eskaintzen dizkion lurralde eta egituretan". Hizkuntza-transmisiorako tresnak sortzen, saretzen eta egituratzen ari dira (bereziki helduen alfabetizazioan), baita hizkuntza-sozializaziorako tresnak eratzerakoan (komunikabide estrategikoren

Uste dut eskola bakarrik uzten ari garela familiei hitz egiterako une eta moduan. Gizarte osoak lieke kontatu beharko familiei zein garrantzitsuak diren umeen hizkuntza-sozializazioan, gure komunitateotan ere barneratu dezagun hori (Itziar Idiazabal)

Quebecarrek eta quechuek azpimarratu dute zerbait gertatzen ari zela raparekin: “gure gazteei laguntzen die hizkuntzaren biziberritzea eta bere kontakizuna berenganatzen, eta toki bat aurkitzen gure komunitateetan, hizkuntza baztertu gabe; aldi berean transgresioa ekartzen dute, baita arrazoi berri bat gure hizkuntzetan bizitzen jarraitzeko”.

bat European aterpetuta daukate, Marokon bizi den hizkuntza komunitate-zatiak ere ikus dezan): “Eskas zaiguna da kontakizuna biziberritzea, mugimendu horri zentzua esplizitatzeko”. Marleen Haboudek ere iradoki du quechuek eta biziberritzen ari diren hainbat hizkuntza-komunitateek “diasporarekin birpentsatu” beharko dutela hizkuntza-transmisioa, -erabilera eta -motibazioa. “Gure komunitatea non, gure hizkuntza eta kultura han: jakin beharko dugu gure kontakizunak, ekintzak eta antolaketak egokitzen, gure biziberritzeari etorkizuna eskaini ahal izateko”.

Sinbolismoa: Ohiko bizimoduko azken talka mundu sinbolikoan kokatu egin du Idurre Eskisabel Larrañagak: “Nola egin gurea zaintzeko eta biziberritzeko, irudimen kolektiboaren uniformizazioa hain erritmo azeleratu eta totalean gertatzen ari denean?”. Gogora ekarri ditu Iratxe Retolazaren hitzak: “Euskaldundu nintzen, ikastolan euskal kulturari ere hurbilarazi egin nindutelako. Kultura-komunitatea eta hiztun-komunitatea trinkotzen direnean, mundu sinboliko oso bat agertzen zaigu”. Miriam Viviana Gonzalez Garzonek aldarrikatu egin du “izpirituarena hizkuntzarekin lotzearen garrantzia, hizkuntzak ezin direlako kode soilak izan, baina komunitate baten irudimenaren eta kosmobi-sioaren zutabe eta garraiatzaile: garrantzitsua da hori kontatzea gure buruari, eta gure komunitateari”.

“Kultura gabe ezin daitezke osoak izan ez euskara, ez transmisioa. Euskara jakite hutsak, alegia, funtzionaltasun soilak, ez digu arrazoirik nahiko ematen euskaran sartu eta irauteko”, dio Idurre Eskisabel Larrañagak. “Kanpoalderik gabeko mundu totala eratzen ari da globalizazioetik, eta guri talka bat eragiten digu, garenaren nolabaiteko nostalgia-
ren eta mundu berriaren artean. Baina gure kontakizun eta ekintzetan, barnealde propioak bezainbat kanpoaldeak ere zabaldu eta lotu egin behar ditugu, hizkuntza-lankidetzatik adibidez, askotariko mundu uni-
bertsala eskaintzeko”. Kike Amonarriz Gorriak uste du “tradizioa ver-
sus berrikuntza eztabaida antzua” dela, “baita kultura-garbitasunarena
ere”, kontua dela gure kulturek “oihartzuna izaten segitzea” gure ko-
munitateetan, baita gazte belaunaldietan. Adibide gisa, quebecarrek eta
quechuek azpimarratu dute zerbait gertatzen ari zela raparekin: “gure
gazteei laguntzen die hizkuntzaren biziberritzea eta bere kontakizuna
berenganatzen, eta toki bat aurkitzen gure komunitateetan, hizkuntza
baztertu gabe; aldi berean transgresioa ekartzen dute, baita arrazoi berri
bat gure hizkuntzetan bizitzen jarraitzeko”.

Bost multzoetan bilduta azpimarratu ditugu gure ohiko bizimoduko talkak, garen hori biziberritzeko eta kontatzeko eragiten diguten erronka eta aukera zenbait ondorioztatuz. Nor garen, nondik gatozen, zer gertatzen ari zaigun aztertu ondoren, nora goazen iradoki behar: jardunaldiek galdera hori elikatzeko mamia ere utzi digute, azken zatian aztertuko dugun bezala.

ZER ARI DA GERTATZEN?



4. NORA GOAZ? UTOPIA NAGUSI BAT JO MUGAN.

Gaur arte, hizkuntza-lankidetzaren eginbehar nagusia, bereziki Garabide elkarteak abiatu duen ildotik, behintzat, hizkuntza-komunitateen arteko esperientzia partekatzeak eta soziolinguistika gogoetetan murgiltzea izan dela erran daiteke. Azken mende-erdiko euskararen biziberritzea partekatzeko moduko esperientzia izan zitekeela ondorioztatuz Garabiden, eta hortik teorizazio-lan gehiago elikatzeko ere balio izan du garatu den lankidetzak, eratu den saretze-lan garrantzitsuz gain, munduan zehar.

Dena den, jardunaldi horiek argitan eman dute hizkuntza lankidetzak izan dezakeela beste funtzio nagusi bat, etorkizun hurbilean: hizkuntzen biziberritzeari oihartzun gehiago eskaintzea gure agenda sozio-politiko eta mediatikoetan, gizarte gai presenteagoa eta partekatuagoa bilakatu dadin, jendarteak bereganatzeko gisan. Biziberritzen ari diren munduko hizkuntzek dimentsio saihestezin eta kontsekuentegoa lortu dezaten, munduko erronka eta aukera nagusien artean.

**Hiztunaren
prekarizaziotik
ateratzeko,
zein narrazio,
baldintza eta
ekintza behar
dugun ikasi
behar dugu;
bide horretan,
feminismoak
edota
ekologismoak
zertan
inspiratzen
ahal gaituzten
ikusiz, balio
diguna hartuz,
eta geuk ere,
hizkuntzetatik
zertan izan
gaitzkeen
inspiragarri eta
helduleku beste
borrokentzat.**

Artikulu honen bigarren zatian aipatzen hasi garen bezala, Jon Sarasua Maritxalarren ahotik, identitatea utopia nagusietatik kanpo geratu zaigu, eta ez daukagu gramatika ideologikorik hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko, ez eskala globalean, ez eskala lokalean”. Itziar Idiazabal Gorrotxategik ere konklusio bertsua atera du, hezkuntzaren mundutik: “Eskola modernoek ez digute ia ezer esaten hizkuntzaz: Montessori eskola bat zoragarria izan daiteke haurren garapenerako, baina ez du hizkuntzaren gaia abordatzen, ezta tratatzen. Alta, heldulekuak ez dauzkagu faltan: biziberritzen ari garen hizkuntzok izan gaitzke problema, eskubide, zein garapenerako baliabide; gure arrazoiak izan daitezke funtzionalak zein instrumentalak, akademikoak zein intelektualak, identitarioak zein ideologikoak”.

“Nora goaz?” galderari erantzun-pistak zerrendatu ditugu artikuluaren azken zati honetan, jardunaldietan hitza hartu zutenen ekarpenak orde-natzen eta gurutzatzen saiatuz.

- **Funtzionaltasun gehiago sortzera:** Estitxu Garai Artetxek azpimarratu bezala, euskara bezalako hizkuntzentzat “oreka bat” dago aurkitzeko: “Oso elfiko geratu gaitzke, oso sinboliko, ia-ia mistiko, funtzionaltasun gehiago eskuratu behar dugunean, ordea, gure biziberritzea bermatu ahal izateko; hori geure mundu sinbolikoa kaltetu gabe, horrek ere badaukalako bere balioa”. Lanketa bat dagoela egiteke gizarte-pertzepzioetan, “agian *rebranding* plan bat, euskara bezalako hizkuntzen funtzionaltasuna bilatzen duena, eta jomugan izan dezakegun segmentazio-multzoetara errazago iritsiko litzatekeena funtzionaltasun gehiagoren ideia horrekin”. Horri “erabilera esparruak” lotuko lituzke Kike Amonarriz Gorriak, “biziberritzen ari garen hizkuntza-komunitateok ikusgarritasunean irabazteko, batez ere gure egunerokotasunean”.
- **Helduleku berriak sortzera:** hizkuntzen biziberritzea arlo eta gai sozial gehiagorekin interseksionalitatean jartzeak “helduleku berriak sortzen” lagundu dezake, Jone Miren Hernandez, Idurre Eskisabel Larrañagak, eta Marleen Habouden aburuz: “Saiatu gaitzen, batzuetan lerrakorra izanik ere, zubiak eratzen jendarte gaien artean. Hiztunaren prekarizaziotik ateratzeko, zein narrazio, baldintza eta ekintza behar dugun jakin behar dugu, bide horretan, feminismoak edota ekologismoak zertan inspiratzen ahal gaituzten ikusiz, balio diguna hartuz, eta geuk ere, hizkuntzetatik zertan izan gaitzkeen inspiragarri eta helduleku beste borrokentzat”.

Yazmin Yadira Novelo Monterok azpimarratu bezala: “hizkuntza-
ren biziberritzeak, biziberritze soziala dakar; gauzak hobetzeko
aukera eskaini dezake”.

Jon Sarasua Maritxalarrentzat, berriz, “gaurko utopia nagusietan
hizkuntzek ez daukatenez tokirik, kontra-korrontea gara”. Alta,
hurbilpen interesgarriak egin daitezke “aniztasunean, hizkuntza-
-ekologiatik”, baita “bizikidetzan, apustuak eta baldintzak jarritz”.
Kultura elebakar dominanteari alternatiba eskainiz, garatu deza-
kegu, baita, Karmelo Ayestak iradoki “LH + 2” kultura komuna:
“Alegia, lehen hizkuntzaz gain, tokian tokiko beste bi hizkuntza
ere menperatzeko borondatea eta kultura”. Urrunago joanez, bizi-
berritzen ari garen munduko hizkuntzok hainbat motibazio pro-
pio daukagu gogoetatu eta gauzatzeko: “Fluxu motibazioa, kon-
plexurik gabe jarduteko hizkuntza-transmisio eta sozializazioan;
motibazio pragmatikoa, helduleku berriak sortuz lan-munduan,
adibidez; balio itsatsiaren motibazioak, biziberritzen ari garen hiz-
kuntzak zer biziarratzen digun, inguruko hizkuntza nagusituek bi-
ziarratzen ez digutena; amets *polistikoaren* motibazioa, hori elkarre-
kin sortu dezakegun utopia nagusi bati lotuta”.

Helduleku multzo bat osa dezake, baita, biziberritzen ari garen
munduko hizkuntzen mundu sinboliko eta kulturalak, Xan Aire
Hasketek eta Miriam Viviana Gonzalez Garzonek iradoki bezala:
“Zein dira gure ametsen, iruditegien, eta sormenen kale-plazak?
Gure gazteek noiz hartzen dute hitza gure hizkuntza biziberritue-
tan, estetika eta doinu propioekin? Biziberritzen ari garen hizkun-
tzak transgresioarekin lotzen ote dituzte, baita su berezi batekin?
Hizkuntza lankidetzak gazteei amets eginaratzen baldin badie,
noiz jarriko ditugu bidaiatzeko xedeak eta baldintzak? Ikus deza-
gun, bakoitzak gure koloretik, irudimen komunik badaukagunez
partekatzeo etorkizunean; jakinda, Ipar Euskal Herrian, adibidez,
gure inguruneetako erdaldunentzat plaza izan daitekeela gure ko-
munitaterako sarbide eskuragarri eta lopide esanguratsua”.

- **Gramatika ideologiko bat sortzera:** Kike Amonarriz Gorriak
ohartarazi bezala, “oraindik hainbat korapilo daukagu askatzeko
ideologia mailan: nazioa versus estatua, biziberritzea versus baz-
terketa, txiki - ahulak versus handi - indartsuak, tradizioa versus
berrikuntza, ... Kontzeptu berriak beharko ditugu, jakinda gutxien-
go aktibo bat dela beti motor izan eta izango, hizkuntzen aktibazio

**Gure gazteek
noiz hartzen
dute hitza
gure hizkuntza
biziberrituetan,
estetika eta doinu
propioekin?
Biziberritzen ari
garen hizkuntzak
transgresioarekin
lotzen ote dituzte,
baita su berezi
batekin?**

Kontzientzia soziolinguistikoa hedatzeko kanalak berrasmatu behar dira, publikoaren arabera egokituz edukiak eta moduak. Hizkuntzen biziberritzearen gaiak agendetan jartzea nahi badugu, jakin behariko dugu nork, zer eta nola hitz egin lidergo politikoei. Eta hasi gaitezten Europari zein munduari hika egiteko plazak eraikitzen [Miren Dobaran].

sozialak gizarte-dimentsio saihestezina lortzeko, inguruko jendar-teak bere egin dezan hizkuntzen biziberritzearen gaia". Gaur egun bizi dugu kontakizun-ahulaldi hau, "ez da soilik mundua azkar aldatu eta jendeak asko migratzen duelako soilik, bada ere seinalea gure hizkuntza-komunitateon biziberritzean bide eraginkorra egin dugula, eta errealitate berriak gonbidatzen ari garela, gure inguruetako jendarteetan zein mundu zabalean".

Jon Sarasua Maritxalarrek ideia horri gehitu egin dio "diskurtso erlazionalen beharra", segmentazio batetik abiatuta, "gramatika ideologiko bat sortu eta partekatzeke asmoz". Miren Dobaran Urrutiak, "kontzientzia soziolinguistikoa hedatzeko kanalak berrasmatu" behar direla dio, "publikoaren arabera egokituz edukiak eta moduak, koherentzia bat zainduz eta norabidea argi atxikita. Hizkuntzen biziberritzearen gaiak agendetan jartzea nahi badugu, jakin behariko dugu nork, zer eta nola hitz egin lidergo politikoei, eta zuzendaritzetan presente izan dadin. Eta hasi gaitezten Europari zein munduari hika egiteko plazak eraikitzen".

Xan Aire Hasketek, bere aldetik, "kontratu soziolinguistikoko berriak eratzearen beharra" iradoki du: "kontratu sozial berria helduontzat, erdaldunak gure artean izanik ere, euskara bezalako gure hizkuntzetan nagusiki funtzionatzen ikasteko, eta etorkizuneko belaunaldientzat terrenoak prestatzen hasteko. Euskaldunontzat, adibidez, kontratu soziolinguistikoko berri horrek postura aldaketa bat iradokitzen du: postura inklusiboa (bartzertzaileak izan ohi gara inguruko erdaldunentzat eta gure irudimen kolektiboan, baina hizkuntza bazterrean utzi gabe posible da egiturako erdaldunekin lan egitea); mediazio-postura (zabaldugun bidea zaintzeko, bereziki euskaldunon konplexuak gainditzeko, eta erdaldunek urratsak egin ditzaten euskaraz); azkenik, autoritate postura (kontratu soziolinguistikoko berri horrek berme kolektibo eta instituzionalak izan ditzan gure egituretan). Alegia, hizkuntzen biziberritzearen gaia, bakar batzuen zama izatetik, ardura partekatze kolektibo eta progresiboa bilakatu dadin".

- **Utopia nagusi bat sortzera:** Jon Sarasua Maritxalarrentzat, biziberritzen ari garen hizkuntzok "komunitate gara (mundua osatzen duten espiralak)" baita, aldi berean "gizarte ere bagara (egunero ehuntzen dugun sarea)". Hemendik aurrera "zein izango da etorkizuneko kontakizun inkontzientea? Nola ekarriko dugu gure

lurrikara isila? Alegia: herrian bizi, eta komunitatea osatu. Ondo bizi, gu izan, eta mundu humanizatua eratu: horrek eskatzen digu diskurtso-multzo konplexua osatzea, ardatz baten inguruan: nor gara, nondik gatoz, zer ari da gertatzen, eta nora goaz. Eta, batez ere, etorkizun diskurtso sinesgarria osatu”.

Michelle Delavuy eta Laurence Alainentzat, “baitezpadakoa bilakatuko da fronte komuna osatzea, biziberritzen ari garen munduko hizkuntza-komunitateon artean”. Gualberto Quisperen ustetan, gure etorkizun kontakizunetan sinestea “baitezpadakoa” bilakatzeko ari da epe laburrean, horiek asumitu eta hedatzeko gero: “Zer mundu daukagu eskaintzeko? Noiz azalduko dugu biziberritzen ari garen hizkuntza komunitateok osatu nahi dugun mundua?”. Miriam Viviana Gonzalez Garzonen ustez, “gure duintasuna bermatzeko” ere balioko digu. “Euskalduna izatea, munduan izateko modu interesgarri eta zoragarria dela sinesten badugu, utopia nagusi bat sortzeko moduan” gaudela dio Jon Sarasua Maritxalarrek. Utopia hori gauzatzeko, “biziberritzen ari garen Munduko Hizkuntzen Federazioa eratzea” iradoki du.

“Euskalduna izatea, munduan izateko modu interesgarri eta zoragarria dela sinesten badugu, utopia nagusi bat sortzeko moduan” gaudela dio Jon Sarasua Maritxalarrek. Utopia hori gauzatzeko, “biziberritzen ari garen Munduko Hizkuntzen Federazioa eratzea” iradoki du.



AZKEN HITZA

I Jardunaldi horiek modu xumean saiakera bat egin dute, bi egunez, biziberritzen ari garen munduko hizkuntza-komunitateok etorkizuneko kontakizunak aipagai nagusi izan eta nora joan gaitezen ikusi ahal izateko: hortik atera gara subjektu birdefinitze batekin, gure kontakizunetan inflexio-puntu argi batekin, gertatzen ari zaizkigun talkak zehatzago identifikaturik, baita utopia nagusi eta sinesgarri bat sortzeko amets partekatuarekin.

Toki esanguratsuagoa lortu nahi baldin badugu mundu honetan, gure etorkizuna bermatzeko urratsetan, foro gehiago sortu beharko dugu, agian eskala handiagoan, aipagaietatik erabakietara igarotzeko, gure ametsak bidean emateko. Hizkuntza adituak, aktibistak eta artistak sintonian emango lukeen hitzordu indartsu batek, behintzat, lurretik atera beharko du epe laburrean, hizkuntza-lankidetzari dimentsio berria eman ahal izateko. ●

Bibliografia

- Amonarriz Gorria, Kike, Gualberto Quispe, eta Miriam Viviana González Garzon. 2023. "Hizkuntza gutxituen gaur egungo pertzepzioa (II)". Mahai-ingurua. *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia.
- Antunes, Sandrina, Miren Dobarán Urrutia, eta Estitxu Garai Artetxe. 2023. "Gako-ideia batzuk hizkuntzak biziberritzeko". Mahai-ingurua. *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia.
- Daveluy, Michelle, Laurence Alain, Jon Sarasua Maritxalar, eta Itziar Idiazabal Gorrotxategi. 2023. "Nola suspertu hizkuntza gutxituak globalizazio-testuinguruan?". Mahai-ingurua. *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia.
- Garabide eta EHU. 2023. *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia. 2023-07-17/18. <https://www.uik.eus/eu/jarduera/hizkuntza-gutxituak-globalizazio-testuinguruan-zergatik-zertarako>

- Martinez de Luna Perez de Arriba, Iñaki. 2023. "Itxiera ekitaldia". *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia.
- Novelo Montejo, Yazmin Yadira, Idurre Eskisabel Larrañaga, eta Marleen Haboud. 2023. "Hizkuntza gutxituak, zergatik/zertarako suspertu: errelatoak mundu globalizatuan". Mahai-ingurua. *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia.
- Zayzaoui, Asya, Xan Aire Hasket, eta Jone Miren Hernández García. 2023. "Hizkuntza gutxituen gaur egungo pertzepzioa". Mahai-ingurua. *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* Udako Ikastaroak, Donostia.

Andeetako ahots eta arbasoen jakintzetara itzul gaitezen, elkarrizketaren metodologia erabiliz: aurrerapausoak eta erronkak*

Marleen Haboud Bumachar**

Laburpena. Artikulu honek *Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak* proiektuaren filosofia eta metodologia deskribatzen ditu, kitxuaz ez hitz egin arren, beraien burua kitxuatzen duten Ekuadorko landa eremuko zenbait komunitarekin lotuta. Proiektu hori Pintag parrokiako (Pichincha probintzia) hiru komunitatetan egin da, Quito hiriburutik 35 km-ra. Proiektuak inguruko landare sendagarriak berriz aurkitzeko prozesua eta herritarren sendatze praktikak erakusten ditu, pausoz pauso, eta garrantzi berezia ematen dio ikerketa elkarrizketan oinarritzeari eta haren diziplinartekotasunari. Ikerlan honen ikuspegi metodologikoa ulertzeko, aurrez egindako zenbait ikerketa lan azaldu dira, lehenbizi. Ondoren, dokumentazio eta biziberritze prozesua zehaztu da, eta azpimarra egin da bidean izan diren erronka batzuetan izandako arrakastan eta beste lorpen batzuetan; izan ere, ekimen komunitarioetan epe luzerako lorpenak izan daitezkeela aurreikusten da. • **Hitz gakoak:** Ekuador, hizkuntza eta kultura biziberritzea, oinarritzko komunitateekin ikerketa, elkarrizketaren metodologia, diziplinartekotasuna, dokumentazio aktiboa, biziberritzea.

Abstract. This paper describes the philosophy and methodology of the *Voces y Saberes Ancestrales de los Andes* [Voices and Knowledge of the Andes] project, run in different Ecuadorian rural communities that consider themselves Quechua, even if they do not speak the language. The project was carried out in three communities in the parish of Pintag, in Pichincha province, 35 km from the capital city Quito, and shows step by step the process of rediscovering various medicinal plants from the area and the local population's curative practices. Dialogue and an interdisciplinary approach were particularly important in this research process. To understand the methodological approach of this study, it begins by describing a range of research work carried out previously. It then outlines the process of documentation and revival, emphasising the successes attained in some of the challenges faced along the way, which may be considered long-term achievements for community initiatives. • **Key words:** Ecuador, linguistic and cultural revival, grassroots community research, methodology for dialogue, interdisciplinary approach, active documentation, revival.

Sarrera-data: 2023/09/30. Ebaluazioak: 2023/10/20 – 2023/11/27. Onartze-data 2023/12/15

Zitatzeko modu gomendatua:

Haboud Bumachar, Marleen. 2023. "Andeetako ahots eta arbasoen jakintzetara itzul gaitezen, elkarrizketaren metodologia erabiliz: aurrerapausoak eta erronkak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 129. 31-55. Andoain (Gipuzkoa) <https://doi.org/10.55714/BAT-129.2>

CC BY-SA 4.0

* Artikulu honen jatorrizko hizkuntza gaztelania: "Reencontramos con Voces andinas y conocimientos ancestrales desde una metodología del diálogo: avances y desafíos". Itzulpena Hitzurrun. Hizkuntz Zerbitzuak

** Marleen Haboud | *Ahozkotusuna Modernotasuna* diziplinarteko ikerketa programa. *Irakasle emeritua*, Pontificia Universidad Católica del Ecuador, Quito, Ekuador. *Irakasle elkartua*, Ruhr Universität, Bochum | mhaboud@puce.edu.ec

AURREKARIAK. BIZINDAR LINGUISTIKOA ZEHAZTEA, HEZKUNTZA ELEBIDUNA PLANIFIKATZEKO, IRAKASPEN ASKOKO PROIEKTUA (1991)


I 90eko hamarkada hasieran, Ekuadorren 10 milioi pertsona inguru bizi ziren, eta horien % 6,8 indigena zen, datu ofizialen arabera. Hezkuntza Proiektu Elebidun eta Kulturartekoa (Proyecto de Educacion Bilingüe Intercultural, P.EBI¹) zenbait urte lehenagotik zegoen martxan Ekuador-ko mendietan, Kitxua herriarekin lanean, erabaki baitzuten eskualde horretako bizindarra zehaztu beharra zegoela, hezkuntza programak hobeto egokitu zitezten hango egoerara. 1991n, Thomas Büttner hizkuntzalariarekin elkarlanean egin zen Ekuadorko Mendietako kitxuaren lehen zundaketa linguistikoa (1990-1991). Idazmahaiko lana izan zen lehenik, eta harritu egin gintuen horrek, ez baitzen kitxua hizkuntzaren bizindarrari buruzko ikerketa sakonik egin ikerketa gunean, eta kitxuaren hitzunez ez baitzuten inolaz ere parte hartu ikerketetan.

Proposatutako zundaketa egin eta mendialdeko bederatzi probintzietan kitxua hizkuntzaren bizindarra zehazteko helburua betetzeko, ikerketa lantaldeak elebidunak izatea proposatu genuen (kitxua-gaztelania), eta ikerketa lanetan parte hartu zuten, hasieratik. Ziur geunden bi hizkuntza horietan hitz egiten zuten elkarrizketatzaileak izateak inguru hartan egin beharreko lana erraztuko zigula, eta lortuko genituen emaitzak ere fidagarriagoak izango zirela. Oztopo administratibo eta logistikoak gaintitu ondotik, hiru talde egin genituen, eta historikoki kitxuaz hitz egiten zen mendialdeko zortzi probintzia haietako ordezkariak geneuzkan: Imbabura, Pichincha, Cotopaxi, Tungurahua, Chimborazo, Bolívar, Cañar, Azuay eta Loja (Ikus 1. mapa²). Unibertsitate katolikoko ikasleak ere sartu ziren taldeetan³.

Kitxua hizkuntzaren bizindarra zehazteko helburua betetzeko, ikerketa lantaldeak elebidunak izatea proposatu genuen (kitxua-gaztelania). Ziur geunden bi hizkuntza horietan hitz egiten zuten elkarrizketatzaileak izateak inguru hartan egin beharreko lana erraztuko zigula, eta lortuko genituen emaitzak ere fidagarriagoak izango zirela.

- 1 Hezkuntza proiektu hori (P.EBI) 1986an hasi zen, Ekuadorko eta Alemaniako gobernuen arteko hitzarmen bati esker. Ekuadorko mendialdeko zortzi probintziatako lehen hezkuntza aztertu zuten. Ekuadorko Nazionalitate Indigenen Konfederazioarekin (Confederación de las Nacionalidades Indígenas del Ecuador, CONAIE) lankidetzeta estua izan zuen proiektu hark eta, 1988tik aurrera, baita Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Hezkuntza Elebidun eta Kulturartekoaren Zuzendaritza Nazionalarekin ere (Dirección Nacional de Educación Intercultural Bilingüe, DINEIB) Ekuadorko hezkuntza elebidunaren historiaren deskribapen labur bat nahi izanez gero, jo hona: Haboud 2019a; Yáñez Cossío 1996.
- 2 Haboud 2010etik aurrera. Ekuadorko hizkuntza eta nazionalitate indigenen mapa. Georreferentziatutako Ekuadorko hizkuntza indigenen zundaketa linguistikoa 2010-2017. (www.oralidadmodernidad/geolinguisticaecuador/)
- 3 Ikus. Büttner eta Haboud 1990-1991; Büttner eta Haboud 1993; Haboud 1990-1991; eta Haboud 1998, 1990-1991eko zundaketaren, eta haren helburuen, prozeduren eta emaitzen deskribapen zehatzago baterako.

1. mapa. Ekuadorren hitz egiten diren hizkuntza indigenak.



LEYENDA		
Lenguas:		
	Awapit	
	Cha'palaa	
	Sia pedee	
	Tsa'fiki	
	A'ingae	
	Paikoka	
	Baikoka	
	Wao Tededo	
	Shuar Chicham	
	Achuar Chicham	
	Shiwiar Chicham	
	Andwa	
	Zápapa	
	Kichwa Sierra	
	Kichwa Amazonía	

LENGUAS INDÍGENAS EN EL ECUADOR			
Proyecto Oralidad y Modernidad - Geolingüística Ecuador			
Auspicios			
Proyecto Garantado		Municipalidad de Boskalis	
Elaborado por: Fernando Pavón		Revisado por: Olga H. Mayorga Marleen Haboud	
Datum: WGS84	Escala Fuente: 1: 250.000	Fecha: Quito, Agosto 2010	Fuentes: SENPLADES Sistema Nacional de Información CODENPE

**Iturria: Haboud ikerketa honetarako (Haboud 2010etik aurrera). Mendialdeko kitxua-
ren zundaketa soziolinguistikoa egin zen eskualdea, 1990-1991.**

Talde parte hartzailearekin zenbait egunez hausnartu eta hitz egin ondoren, hiru talde osatu ziren, 21 pertsona, denera. Ekuadorko Geografia Institutu Militarren kartografiari erreparatu eta beraien inguruak ezagutzen zituzten taldeetako partaideekin hitz egin ondoren, honako hauek zehaztu genituen: zundaketa zer sektoretan egin behar zen, zenbat jende elkarrizketatu behar zen eta zer ibilbide egin behar ziren balizko elkarrizketatuak ausaz aurkitzeko.

Horretarako, behaketa gida bat diseinatu genuen, inkesta-elkarrizketa elebidun bat (kitxua-gaztelania) sortu genuen, zeina, nahiz eta kitxuaren aldaera batuan idatzita egon, ahoz eta udalerrri bakoitzeko aldaera erabiliz egin behar zen. Aipatzekoa da komunikazio hartu-emanari beti hasten zela kitxuaz, eta gero elkarrizketatuak nahiago zuen hizkuntzan egiten zela. Elkarrizketa horietan komunitateetako errealtatearekin lotutako zenbait gai ageri ziren: osasuna, ekoizpena, ura, etab. Zortzi hilabetetan, 2.841 familia bisitatu genituen, 50 komunitate buru eta 52 eskola elebidun.

Proiektua prestatzen eta gauzatzen ari ginen artean, taldeetako kideekin luze eta zabal hitz egin genuen diziplinarteko, hizkuntza anitzeko eta kultura anitzeko ikerketa talde gisa entzutearen, elkarbanatzearen, hausnartzearen eta geure burua indartzearen garrantziaz. Landa azterketa egiten genuen artean, jarraipen eta ebaluazio bilerak egin genituen, aldian-aldian.

Emaitzei zegokienez, argi gelditu zen, nahiz eta Chimborazo, Cotopaxi eta Tungurahua gisako mendialde erdiguneko probintzietan kitxua oso bizirik zegoen, elebitasun minorizaturako joera gogorra zegoela, eta gaztelania kitxuari lekua kentzen ari zitzaiola.

Bestalde, nahiz eta zenbait arazo logistiko izan, garbi dago elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak eroso sentitzen zirela beraien hizkuntzan lasai hitz egiteko aukerarekin, jasotako datuek probintzia bakoitzeko errealtate espezifikoak erakusten zutelako, eta arazo handirik gabe lortu genuela aurreikusitako eremuetara iristea, nahiz haietara iristea askotan ez zen erraza.

Taldeen ikuspuntutik, ikerketa praktika hasiera-hasieratik izan zen aktiboki parte hartzeko eta beraien jasotako bat-bateko datuen bidez ezagutzeko zein zen eskualde bakoitzeko komunitateen, hiztunen eta hezkuntza zentroen egoera; hizkuntzen erabilera (falta); hizkuntzaren

Argi gelditu zen, nahiz eta Chimborazo, Cotopaxi eta Tungurahua gisako mendialde erdiguneko probintzietan kitxua oso bizirik zegoen, elebitasun minorizaturako joera gogorra zegoela, eta gaztelania kitxuari lekua kentzen ari zitzaiola.

Komunitateetan harridura eragin zuen ikusteak kitxuaz idazteko ez dagoela inolako arazorik.

Eragin oso positiboa izan zuen faktore horrek beraien hizkuntza baloratzeko orduan.

heterogeneotasuna; hiztunek zer zailtasun soziali aurre egin behar izaten zioten; eta zein zen komunitateko hiztunen, irakasleen eta autoritateen ideologia linguistikoa. “[...] *me di cuenta de que la señora hablaba castellano conmigo, aunque yo misma soy kichwa-, pero al dar de lactar a su guagua, sí le hablaba en la lengua. Sería para quedar bien...*”.

Komunitateen egunerokotasunean sartzen ginen arren, elkarrizketatuek adierazi zuten lasai bizi izan zituztela egoera horiek, beraien hizkuntzan hitz egiten zuten herrikideek egiten zituztelako elkarrizketak, eta ez erroldagile edo zerga kobratzaileek; are gehiago, batzuk harritu egin ziren ikustean ikertzaile elkarrizketatzaileak kitxua hiztun indigenak zirela⁴. Komunitateetan harridura eragin zuen beste kontu bat zera izan zen: ikustea kitxuaz idazteko ez dagoela inolako arazorik. Eragin oso positiboa izan zuen faktore horrek beraien hizkuntza baloratzeko orduan.

Ordutik, eta etengabeko hausnarketa sakonen ondoren, indarra hartu zuen hainbat eta hainbat sineskeria eta ikerketa praktika aldatu behar zirelako konbikzioak, baldin eta prozesuak dinamizatuko baziren. Horizontaltasuna eta bidezko hartu-emanak bilatuko zuten gizarte harremanak behar ziren (Haboud, 1998). Horrela baino ez zen lortuko gure ikerketak burutzeko berriemaileen bila ibili beharra albo batera utzi eta guri interesatzen zaizkigun gaiak ezagutzen dituzten hiztunekin hitz egitera igarotzea.

Bestalde, elkarlanean egiten diren halako prozesuek daukaten ahalduntzeko indarraren eragina ere ikusi genuen, taldeetako kideek halakoak esaten baitzituzten: (...) *ez dugu ikerketen eta esperimientuen xede izaten jarraitu nahi, nahiago dugu izan, eta bagara gai izateko gure errealitate historiko, sozial, politiko eta kulturala aintzat hartzen dituen hezkuntzaren aktore eta eragile (LA 12.93)*⁵.

Zalantzarik gabe, “1990-1991 Zundaketa Soziolinguistikoa” mugarrria izan zen ikerketek izan behar zuten ibilbidea ezartzeko orduan. Ikerketa lanak aldaketa sustatzeko espazio bihurtzeko erronka jarri zigun begien aurrean, bestelako ezagutzeko modu batzuk sustatzeko eta gure

4 Gogora dezagun, ordura arte, ohikoena zela -eta, neurri batean, hala jarraitzen du izaten- ikertzaileak akademikoak izatea; hots, ikasleak, gazteleraz edo ingelesez hitz egiten zutenak, edo erlijio zein gobernu instituzioetako kideak.

5 Bere garaian adostu genuen gisan, elkarrizketatuen inizialak eta elkarrizketa egin zitzaizkien hilabetea eta urtea mantentzen ditugu (Ikus Haboud, 1998).

artean kulturartekotasunez eta hizkuntzartekotasunez harremanak sortzeko. Hala, bi hamarkadaz Ikerketa-Ekintza, Ikerketa eta Ekintza Parte Hartzailea (IEP), eta Komunitatean Oinarritutako Ikerketa (*Community Based Research*)⁶ metodologia dekolonializatzailerak erabili ondoren, ikasitakoak berrartu eta ikerketa prozesu batzuei berriz ekin diegu. Izan ere, uste osoa dugu ezinbestekoa dela *hiztunengandik, hiztunekin eta hiztunentzat* lan egitea. Hala, albo batera utzi izan ditugun hainbat ahotsetatik batzuk entzuteko aukera izango dugu, ekintzak batera egingo ditugu, eta horrek balioko digu harremanak estutzeko eta indartzeko (Hornberger eta Cassels Johnson 2011, Haboud 2018).

Aurrekari horiek aintzat hartuta, datorren atalean, sarrera txiki baten ondoren, deskribatuko dut prozeduraren, elkarrizketaren metodologiaren, arrakasten eta etengabeko xedeen berri ematen duen proiektu berrienetako bat.

1. SARRERA

Azken hamarkadetan, Ekuadorren ustekabeko aldaketa batzuk gertatu dira. 18 milioi biztanle ditu egun, eta bizi izan ditu krisi politiko eta ekonomiko handiak, hirigintza prozesuak, barne eta kanpo migrazio masiboak, globalizazioa, hedabide berrietarako eta sare sozialetarako sarbide nahiko hedatua. Hots, 90eko hamarkadako herrialdea oso atzean gelditu da. Egoera linguistikoari dagokionez, asko hazi da munduko hizkuntzekiko eta kulturekiko ukipena, eta hizkuntza gutxituen galera azeleratu egin da, nahiz eta, era berean, haien ikusgarritasuna ere hazi den. Gauzak horrela, hizkuntza indigenak eta hizkuntza gutxituak desagertzea mundu mailako kezka bihurtu zen, munduko 7.000 hizkuntzen % 50 desagertzeko arriskuan baitzegoen (UNESCO 2010, Sichra 2009). Eta Ekuadorko hizkuntzak ez dira salbuespen, noski. Herrialdean hitz egiten diren 13 hizkuntza indigenak daude era batean edo bestean zapalduta (Haboud 2010-2017); hala ere, eta kontraesankorra dirudien arren, hizkuntza ordezkapenari eta haren ondorioei buruzko kontzientzia hazi egin da; ildo horretatik proposatu dute haiek biziberritzeko lan egitea, izan espazio publiko zein pribatuek, indibidualek zein kolektiboek. Zoritxarrez, egiten diren ekintza asko testuinguru sozialetik

Ekuadorren hitz egiten diren 13 hizkuntza indigenak daude era batean edo bestean zapalduta (Haboud 2010-2017); hala ere, eta kontraesankorra dirudien arren, hizkuntza ordezkapenari eta haren ondorioei buruzko kontzientzia hazi egin da.

6 Eredu horiei lotuta, ikus, esaterako, Benedicto et al., 2007, Fals-Borda, 1985, Centre for Communication and Social Change. (d/g); Kennelly, et al. 2017; Ortiz eta Borjas, 2008; eta Smith, 2016.

**Zer gertatu
zaie Ekuadorko
hizkuntza
indigenei
eta haien
hiztunei 90eko
hamarkada
hasieraz
geroztik, hango
mendialdean
kitxuaren
zundaketa egin
genuenetik?
Nola egin diete
aurre ahozko
tradizioa duten
hizkuntza haiek
modernitateak
eta globalizazio
geldiezinak
ekarri dizkien
aldaketa
bortitzei?**

isolatuta izaten dira eta mugak izaten dituzte; horrez gain, askotan ez dute parte hartzen hizkuntza horien hiztunek.

Ahozkotasuna Modernitatea Diziplinarteko Ikerketa Programak (Programa de Investigación Interdisciplinaria Oralidad Modernidad, Ikus 2. atala) eginiko hainbat dokumentazio eta biziberritze ekintzetako bat da artikulu hau, eta aurrez aipatutakoari dagokionez, *Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak* (III. Fasea⁷) proiektua deskribatzen du, zeina jaio baitzen Ekuador mendialdeko zenbait komunitate indigenak sendatze-ko praktikei, osasunari eta gaixotasunari buruzko jakintzak berritzeko zeukaten motibazioaren eskutik. Hor ikus dezakegu, beraz, zenbateko garrantzia duten komunitate horietako kideak proiektuaren parte izateak eta ikerketa lana narrazio eta etnografia partekatuen bidez egiteak⁸. Hori da, hain zuzen, artikulu honen funtsa, eta honela antolatuta dago. Aipatutako aurrekarien eta sarrera motz honen ondotik 2. eta 3. ataletan *Ahozkotasuna eta Modernitatea* deskribatzen da, haren filosofia eta metodologia jardunbidea. Era berean, landuko diren gaiei loturiko zenbait kontzeptu zehazten dira. Hirugarren atalean proiektuaren etapa bakoi-tza azaltzen da, eta zenbait emaitza eta produktu azaldu. Laugarren atala hausnarketa bat da, hasierako xedeak ezagutzera ematen dituzten lorpen batzuei eta metodologiaren eraginkortasunari buruzkoa, nola oinarriko komunitateekin lan egitean, hala, alderdi sozio-akademiko eta soziopolitikoetan.

2. AHOZKOTASUNA MODERNITATEA: FILOSOFIA ETA METODOLOGIA JARDUNBIDEA

I

Ahozkotasuna Modernitatea (AM, aurrerantzean) 2007an jaio zen, geure buruari etengabe honako galdera hauek egitearen ondorioz: Zer gertatu zaie Ekuadorko hizkuntza indigenei eta haien hiztunei 90eko hamarkada hasieraz geroztik, hango mendialdean kitxuaren zundaketa egin genuenetik?⁹ Nola egin diete aurre ahozko tradizioa duten hizkuntza haiek modernitateak eta globalizazio geldiezinak ekarri dizkien aldaketa bortitzei? AMk, hasiera-hasieratik, argi izan zituen helburuak: (1)

7 I eta II faseak hemen daude ikusgai: <https://oralidadmodernidad.org/saberes-ancestrales/>; <https://oralidadmodernidad.org/jambic-yuyu-yuraguna-plantas-que-curan-cotopaxi/>; <https://oralidadmodernidad.org/jambij-yuracuna-plantas-que-curan/>

8 Ikus Arias eta Alvarado 2015 (<https://www.redalyc.org/pdf/4235/423542417010.pdf>) [2022.10]

9 Ikus Büttner eta Haboud 1990-1991; eta Haboud 1990-1991.

Aktiboki dokumentatzea herrialdeko hizkuntza indigenen bizindarra (erabilera eta erabilera falta), oinarritzko komunitateetatik abiatuta, betiere; (2) Biziberritze ekintzak sustatzea eta laguntzea; (3) lan egiteko metodologiak honako irizpide hauek izatea: aurrez egindako esperientzietan oinarritu eta komunitateen parte hartzea bermatzea, seriotasun akademikoa malgua izatea, ikerketa prozesuetako parte hartzaileen arteko hartu emanak orekatuak izan daitezten sustatzea; eta (4) ikerketaren lerro etikoak egiten diren ekintza guztiak zeharkatzen dituen ardatz bat bailiran mantentzea, komunitateetatik eta komunitateentzat.

Hala, AM martxan jartzearen xedea da honako etapa hauek betetzea abiatzen diren proiektu guztietan. Hasiera beti da bera: (1) Sozializatzeko elkarrizketak, haien beharrei, interesei eta interes esparruei buruz, (2) ingurua ezagutzea, tokian tokiko taldeak osatzea eta gaitzea, (3) proba pilotuak egitea eta, behin ebaluatuta (4) ikerketa gauzatzen hastea, etengabeko jarraipena eginez, eta (5) emaitzak lortu eta komunitate parte hartzaileei helaraztea. 1 irudian ikus daitekeenez, etapa guztiak daude lotuta eta elkar atzeraelikatzen dute. Hala, ikerketa denon ahaleginaren gain dagoen elkarreragin soziala bihurtzen da. Izan ere, halako praktika sozialak parte hartzaileen arteko harremanak sortu eta sendotuta baino ez baitute aurrera egiten. Horrela baizik ez da lortzen “haiek” eta “gu” esatea albo batera utzi eta gu izatea, bidezko hartu-emanak sustatzea (beharbada, “ez hain bidegabeak” esan behariko genuke), elkarrizketa, gardentasuna eta printzipio etikoak dituztenak oinarri; eta ekitatea eta eskubideak errespetatzea xede¹⁰. Etapa horiek bukatuta, espero izatekoa da prozesu horretatik beste estrategia batzuk sortzea, aurrez proposatutako helburuak lortzeko; hots, dokumentazioa eta biziberritzea jarraian aurkeztuko dugun kasu honetan.

Ikerketa denon ahaleginaren gain dagoen elkarreragin soziala bihurtzen da. Izan ere, halako praktika sozialak parte hartzaileen arteko harremanak sortu eta sendotuta baino ez baitute aurrera egiten. Horrela baizik ez da lortzen “haiek” eta “gu” esatea albo batera utzi eta gu izatea.

10 Ikus Centre for Communication and Social Change (s/f); Haboud 2018, 2019b, eta 2020; Haboud et.al 2016, Talmy 2011.

3. ANDEETAKO AHOTSAK ETA ARBASOEN JAKINTZAK (III FASEA)

I

Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak 2017an jaio zen, Ekuador mendialdeko zenbait kitxua komunitate indigenak sendatzeko praktikei, osasunari eta gaixotasunari buruzko jakintzak gogoratzeko eta berriz balioa emateko zeukaten motibazioaren eskutik. Lehen fasea 2017 eta 2019 artean egin zen, mendialdeko iparraldeko eskualdean, kitxua eta gaztelania hitz egiten ziren hiru komunitate elebidunetan, Imbabura probintzian¹¹; bigarrena 2018 eta 2021 artean egin zen, Cotopaxi probintzian, herrialdean kitxua hitzunen ehuneko handienak dituzten komunitateetan. Aurrekoak ez bezala, 2019an hasitako III fasea Pichincha probintziako landa eremuko hiru komunitatetan ari dira egiten aldi berean. 2020ko martxoan proiektuak partzialki gelditu beharra izan zuen, COVID-19aren pandemiagatik eta finantzazio faltagatik; hala ere, materiala analizatzen jarraitzea lortu genuen, baita beste ekintza batzuekin ere, bertualtasunari esker. 2022 amaieran berrartu genuen aurrez aurreko lana.

Santa Teresa de Pintag, Valencia eta Tolontag komunitateak ikertu ditugu, eta hirugarrenean baino ez dira gelditzen kitxua hitz egiten duten zenbait adineko baino. Oro har, gaztelania da eskualde guztian hitz egiten den hizkuntza, nahiz eta kitxuaren eragina maila guztietan nabari den.

3.1. Ikerketaren eskualdearen geolokalizazio eta kokapen linguistikoa


20.433 biztanle¹² ditu Pintag parrokiak, Ekuadorko hiriburua Quitotik 35 km-ra dago (2 irudia). Bertako biztanlean, nahiz eta kitxua hizkuntza galdu duten, artisautzari, musikari, elikadurari eta landare sendagari erabilerari buruzko jakintzak gorde dituzte¹³.

Santa Teresa de Pintag, Valencia eta Tolontag komunitateak ikertu ditugu, eta hirugarrenean baino ez dira gelditzen kitxua hitz egiten duten zenbait adineko baino¹⁴. Oro har, gaztelania da eskualde guztian hitz egiten den hizkuntza, nahiz eta kitxuaren eragina maila guztietan na-

- 11 *Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak*en xehetasunak eta produktuak (I eta II faseak) ikusgarri daude hemen: <https://oralidadmodernidad.org/saberes-ancestrales/>; Haboud, et. al. 2019 (<https://oralidadmodernidad.org/jambij-yuracuna-plantas-que-curan/>), eta Haboud, et al. 2021 (<https://oralidadmodernidad.org/jambic-yuyu-yuraguna-plantas-que-curan-cotopaxi/>)
- 12 Sistema Nacional de Información (SNI). 2015erako proiektzioa. <http://app.sni.gob.ec/sni/sigadplusdiagnostico>
- 13 Pintag-goraymi
- 14 Georeferentziatutako ikerketa soziolinguistiko nazionalari buruz gehiago jakiteko, ikus Haboud 2010-2017 (www.oralidadmodernidad.org/geolinguisticaecuador/).

bari den: fonetikoki-fonologikoki, morfosintaktikoki, semantikoki zein pragmatikoki. Garrantzitsua da aipatzea biztanleek, batez ere gaztez osatutako elkarteek, azpimarratzen dutela oinarri kulturalak ez direla galdu, ezta beraien *Mama eta Tayta*¹⁵n jakintza jaso eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko borondatea ere, beraien inguruko ekosistemaren gainbehera nolabait geldiarazteko. Testuinguru horretan eratu genuen *Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak (III Fasea)*, horiek ziren itxaropen linguistiko eta kulturalak, eta etengabea zen jakintzen eta gaitasunen hartu-eman.

2 irudia. Pintag parrokiaren kokapena, Ekuadorko hiriburu Quitorekiko.



Iturria: Pintag-ubicación

3.2. Proiektuaren etapak

1. Etapa: Erabakiak taldean hartzea

Santa Teresa de Pintag komunitatean eginiko lehen bileran familiekin hitz egin genuen, beste probintzia batzuetan eginiko antzeko proiektuei buruz. Erabilitako metodologia aztertu genuen, lortutako emaitza eta produktu batzuk berrikusi, eta komunitatearen lorpenei, erronkei eta

¹⁵ *Mama eta Tayta* esaten diegu komunitateari buruzko jakintza duten pertsona helduei.

itxaropenei buruz hitz egin. Landare sendagarrien etnografia lantzea adostu zen, aurreko proiektuetan erabili ziren antzeko parametroen bidez. Hala, proiektuko parte hartzaileen arteko hartu-emanari eta komunitateetako ahalik eta jende gehienak parte hartzeari emango zitzaion garrantzia. I eta II faseak ez bezala, fase hura ez zen kitxuaz eta gaztelaniaz egingo, Andeetako tokiko gaztelaniaren aldaeran baizik.

2. Etapa: Taldeak osatu eta gaitzea

Tokiko taldea bertako komunitateetako gaztez osatu ondoren¹⁶, lehen bilera-tailerra egin genuen, taldeak ikas zezan *Ahozkotasuna Modernotasunako* kideen laguntzaz sortutako Lexique-pro¹⁷ software linguistikoa erabiltzen. Gaitze horrek hiru etapa izan zituen: (A) proiektu honek gutako bakoitzarentzat zuen –eta daukan– esanahiari buruz hitz egin, proiektua dokumentazio eta biziberritze integralera bideratzeko, (b) elkarrizketak egiteko gida aztertu eta moldatu, eta azpimarratu ez dela galdetegi bat, baizik eta gida bat edo oroigarri bat, landare bakoitzari buruzko elkarrizketak sustatzeko; eta (c), softwareak datuak ordenatzea eta sistematizatzea zenbat errazten zuen aztertu ondoren, softwarea erabiltzen ikasi. Erabaki genuen jasotzen genuen item bakoitzean honako datu hauek jasoko genituela: landare bakoitzaren tokian tokiko izena, haren morfologia, erabilerak eta informazioa eman zuten pertsonen identifikazioa. Horrez gain, ahal zen neurrian, landare bakoitzaren argazkiak eta landare batzuekin lotura zuten grabazio eta narrazio bideo batzuk gehitu ziren. Hausnarketan sakondu ahala, denon artean eman genion forma lortu nahi genuenaren ideiarri. Ez genuen izen zerrenda bat lortu nahi, baizik eta etnografia bat zeinak, komunitateetako jendearen narrazioei esker, balioko baitzuen komunitate horren bizimoduari buruzko informazioa emateko, bertako egunerokotasunari buruzkoa, *chacra* (kitxuaz, 'hazkuntzarako lur') horien erabilerari eta erabilera faltari buruzkoa, *minei*, *tratamenduei*, *sendabideei*, *esperientziei* eta *abarrei* buruzkoa; hots, hiztun bakoitzaren bizitzari buruzkoa, haren familiarako eta komunitateko harremanei eta inguruko habitatarekiko zuen harremanari buruzkoa¹⁸. Behin Lexique-pro erabiltzen ikasita, taldeki-

Ez genuen izen zerrenda bat lortu nahi, baizik eta etnografia bat zeinak, komunitateetako jendearen narrazioei esker, balioko baitzuen komunitate horren bizimoduari buruzko informazioa emateko, chacra (kitxuaz, 'hazkuntzarako lur') horien erabilerari eta erabilera faltari buruzkoa, minei, tratamenduei, sendabideei, esperientziei eta abarrei buruzkoa.

16 Hasierako bertako kideen taldean zeuden Daniel Acosta, Eduardo Pilaquinga, Saúl Bautista, Edwin Pilaquinga, Lucio Bautista, Gissela Bautista; taldea handitu egin zen gerora, eta orduan sartu ziren Mayra Aimacaña, Mario Bautista, Susana Bautista, Lucio Chasipanta, María Lulluna, Doménica Chasipanta eta Juan Bautista. Jakitunei buruzko informaziorik ez da ageri hemen; izan ere, une honetan ari dira datu basearen kuradoretza egiten.

17 Hementxe ikus daiteke sarbide libreko tresna hori nola erabili eta noraino iristen den: <http://www.lexiquepro.com>.

18 Hori buruz eztabaidatzeko, ikus Agar, 1980.

deek datuek adierazten zituzten berezitasunen arabera moldatu zuten, eta proba pilotu bat egin genuen, eta horrek erakutsi zigun zeintzuk ziren eman beharreko pausoak.

3. Etapa: Jakitunengandik ikasten: behatu, entzun, ordenatu, galde-tu...

Ikertu beharreko komunitateak etengabe behatzeaz gain (izan parte hartzaile edo ez), elkarrizketa batzuk egin genituen, landare horien ekoizpenari, prestatzeari eta erabilerei, preskripzioei eta proskripzioei buruzkoa. Modu kolaboratzailean egin ziren elkarrizketak. Horrela, osasunari, sendagaiei, landareei eta horien erabilerari buruzko praktika sozial bihurtzen ziren. Interakzio horietan landareak egon edo landatu ohi ziren lekuak markatzen ziren, eta aldi berean eraiki edo berreraiki hitzunen bizitzetako, komunitateko, familiako pasarteak. Komunikazioa eta etengabeko ikaskuntza izan ziren nagusi garai hartan, eta ikasi genuen espazio haiek eta bertan bizi zen jendea onartzen. Familiako kide hurbilek zekizkiten jakintzak ezagutzeko balio izan zuten hainbatetan interakzio haiek.

3 irudia. Gaitze bilerak, berrikusketa, sistematizazioa eta datuak ordenatzea.



Iturria: Ahozkotasuna Modenotasunako argazkiak, 2019

Lan gogorra zen arren, geure egin genituen gaiak eta jasotako materiala jasotzeko eta sistematizatzeko genituen tresnak. Bidean, ikusi genuen nola ari ginen sortzen deskribapen-azalpen glosario bat, ordenatua, kolore anitzekoa eta, batez ere, geurea, beti jasotzen baitziren elkarrizketatuen eta haien jatorriaren izenak.

Hasiera-hasieratik, xedea izan zen ahalik eta informazio osotuena izatea landare bakoitzaren morfologiari, prestaketari, erabilerei eta gomen-dioei zegokienez. Hala ere, ez zen beti posible izan landare bakoitzaren xehetasun bereizle guztiak jasotzea. Lan hori, COVID-19aren pandemiaren ostean berrartu dugu, eta horretan dihardugu 2022ko urriaz geroztik.

6 hilabete baino gehiagoz egin genituen tailer irekiak. Horien bidez bermatu genuen komunitatearen parte hartze zabala eta prozesuaren pausu bakoitza ziurtasunez ematea. Konturatu ginen Lexique-proren erabilerak ez duela soilik aurrerapenak ordenatu eta ikusgarri jartzeko balio, gazteak erakartzeko ere balio izan zuen, ikusten baitzuten teknologia horiek erabiltzen ikastea erraza zela, eta ez zela haiek ezagutzeko aukera izatea besterik behar.

4. Etapa: Berrikusi, ordenatu, sistematizatu... interpretatu

Etaparik luzeena izan zen, eta egin beharreko lana ere zehatza zen: datuak -eta ahalik eta kalitate oneneko argazkiak- erregistratu eta sistematizatzeko. Material guztia berrikusi, identifikatu eta softwarearen datu basean sartu zen. Ondoren, Word eta PDF (4 irudia) dokumentu banatara pasa zen, errazago izan zedin komunitateko kideek datu horiek baliozkotzeko. Materiala bildu ondoren, hainbat gailutan gorde zen, ahalik eta ondoen babestuta izateko.

***Konturatu ginen
Lexique-proren
erabilerak ez
duela soilik
aurrerapenak
ordenatu eta
ikusgarri
jartzeko
balio, gazteak
erakartzeko ere
balio izan zuen,
ikusten baitzuten
teknologia
horiek erabiltzen
ikastea erraza
zela, eta ez zela
haiek ezagutzeko
aukera izatea
besterik behar.***

4 irudia. Word dokumentu batera pasatako materialaren adibidez, baliozkotzeko



Atuksara

Nombre científico:

PHYTOLACCACEAE

Phytolacca bogotensis Kunth

Planta silvestre de uso medicinal.

Morf.: Planta con hojas alargadas verdosas y lisas.

Uso externo

Para los tumores. Se usa las hojas y el fruto. Poner el zumo de las hojas y el fruto en el tumor y frotar.



Aya taxo o Taxo de monte

Nombre científico:

PASSIFLORACEAE

Passiflora mixta var. *eriantha* (Benth.) Killip

Planta silvestre de uso medicinal.

Morf.: Enredadera con hojas redondeadas de tres tipos taxo.

Uso externo

Para el espanto. Se usa las hojas. Untar las hojas con enjundia de gallina y luego aplicar en el pecho en forma de cruz.

Iturria: Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak (3 Fasea)

Hizkuntzari zegokionez, ahal zen neurrian bertako gaztelaniaren ezau-garriak mantentzea erabaki zen, komunitateko kideentzako ahalik eta ulergarriena izan zedin.

2020ko martxoan COVID-19a iritsi zenerako, 100 landare baino gehiago genituen bilduta, eta informazioaren % 60 zegoen, gutxienez, Lexique-pro programan sartuta; hala ere, oraindik sarrera bakoitzeko informazioa baliozkotu gabe zegoen, batez ere errezetei, izen botanikoei eta landare bakoitzaren taxonomiari buruzkoa, elkarrizketatu askok ez baitzuten informazio hori ezagutzen. Argazkien egokitasuna eta kalitatea ere zehaztu egin behar izan zen, baita ikus entzunezko materialarena ere; lan horiek online egin ziren pandemia garaian, 141 landareri buruzko informazioa bildu arte. Landareen taxonomiari buruz, ikasi genuen landare *beroak* eta *hotzak* daudela, errezetak sinpleak edo konposatuak izan daitezkeela eta hainbat erabilera, preskripzio eta proskripzio ditzutela. Hainbat landareekin batera istorioak eta gertaera pertsonalak jaso ziren.

Landare batzuen argazkiek ez zutenez nahi adinako kalitaterik, ilustrazioak erabiltzea erabaki genuen. Horretarako Arteetako ikasle eta irakasle talde bat osatu genuen. Zeregin horretan aurrera egin ahala, posta elektronikoz edo Whatsappez bidaltzen genizkien ilustrazio bakoitzaren kalitate handiko argazkiak tokian tokiko taldeetako kideei, baina izenik eman gabe, komunitateetako kideek ezagutu eta baliozkotu zituzten. Ilustrazio bakoitza, artistikoki, kalitatezkoa izan behar zen (5 irudia); baina, horrez gain, ilustrazioak ezagutu eta onartu egin behar zituzten erabiltzaileek.

5 irudia. Komunitateak baliozkotutako bi ilustrazioren laginak



Iturria: Artxiboko argazkia. *Andeetako Ahotsak eta Arbasoen Jakintzak* Proiektuko ilustrazioak, 2022¹⁹

Ilustrazioak: Tatiana Eraso.

5. Etapa: Aztertu, identifikatu, interpretatu...

Oso interesgarria izan zen Pintagen jasotako 141 landareen % 52,6k duela gaztelaniazko izena, % 31,5ek mantentzen duela kitxuazkoa eta gairontzeko % 15,9k duela izena bi hizkuntzetan. Hona hemen hiru landa-


¹⁹ Hogeita zazpi ilustrazio egon ziren ikusgai Marleen Haboudek antolaturiko Congreso Internacional Transdisciplinario Humboldt Kolleg 2023-Desafíos en la Diversidad (IV) kongresuan. Quito, irailak 12-15, 2023.

retan jasotako informazio etnolinguistikoa (6 irudia): (1) kitxua termino bat eta gaztelaniazko bat elkartzen ditu, *Huagra manzana* (*Hesperomeles obtusifolia*) (Kitxuazko 'abere+ sagar, "abereentzako sagar"); (2) *Congona* / *Cunguna* (*Peperomia galioides*) Perun eta Bolivian hitz egiten den kitxua hizkuntzaren aldaeretan sortutako izen berezia dela dirudi²⁰; aitzitik(3), Jícama (*Pachyrhizus erosus*) náhuatl hizkuntzatik datorren terminoa da. Latinoamerikako hainbat lekuan hartu izan dute landare hori bertakotzat, baita Pintag eskualdean ere. Hain zuzen ere, Santa Teresa de Pintageko komunitateko Tayta Alfredok Jícamaren nutrizio eta medikuntza balioak deskribatzen ditu, baita pozoitsuak diren loreekin hartu beharreko neurriak ere. Landare hau ezaguna da sistema genitourinarioari on egiten diolako, baina haren hostoak, gozotan zein gazitan, labean egin edo frijituz gero, *kukayo* bihurtzen dira ("mokadu", kitxuaz). Haren infusio bero zein hotzak ere har daitezke. Landare horren erabilerak deskribatzen dituen artean, Tayta Alfredok nola landatu, hazi eta bildu behar den erakusten digu, eta azpimarratzen digu landare horrek Andeetan garrantzi handia duela, komunitateko harremanak eta oinarritzko printzipioak zaintzeko, eskuzabaltasuna, hartu-emanak eta elkarrekotasuna, esaterako. [Jícama] egun ez da zelaietan ikusten. Guk landare sendagarria dela dakigulako daukagu. [...]. Badakigu oso ona dela diabetesarentzat. Lagun asko [...], diabetesa izan duten pertsonak eskatu izan digute laguntza, eta eraman izan diegu [...] on egin die, landare sendagarria delako²¹.


6 irudia. Pintagen asko erabiltzen diren hiru landare sendagarri



(1) Huagra manzana



(2) Congona / Cunguna



(3) Jícama

Iturria: Etnografía de las plantas en Píntag (prestakuntza prozesuan). Andeetako Aho-tsak eta Arbasoen Jakintzak Proiektua

20 Toreroren esanetan, Cunguna terminoa jacaru hizkuntzakoa dela dirudi, Perun hitz egiten den aimara hizkuntza batekoa (Toroero, 2002).

21 Jícanaren garrantzia hemen ikus daiteke, Alfredo Acostaren ahotik: <https://youtu.be/-8J8lQiwZqo>

Pintag eskualdean erabilera anitzak dituen beste landare oso garrantzitsu bat da Tzinzoa (*Tagetes minuta*). Haren infusioa hartzen zuten COVID-19ari aurre egiteko, ezaugarri antimikrobianoak eta antibiotikoak dituelako. Horrez gain, entsaladetan bizigarri gisa ere erabiltzen da. Beste landare batzuekin nahastuta, fungizida natural oso eraginkorra da. Rivasen hitzetan, Ekuador erdialdeko mendilerroko zuhaitz hori desagertzeko zorian dago (Rivas, 2020)²². Gaur egun, Valentzia komunitatean Tzinzoa birlandatzen ari dira.

Komunitateaz kanpo ere badira ikerketaren hainbat fasetan ezagutu ditugun landareekin lanean diharduen jendea. Esaterako, Ekuadorko sukaldaritzak munduko gazte berritzaileek zenbait urte daramate landare horietan oinarritutako errezetak garatzen. Beraien xedea da, zapore berrien bidez, landareak eta gure osasunean eragiten duten onura ezagutzera ematea; hala aipatzen du Ekuadorko prentsak ere: sukaldaritzak eta zientziak bat egiten dute ikerketa akademiko honetan (El Comercio, 2015)²³. Guk honako hau esango genuke: *batera ikertzeak bizitzeko dokumentazio erabilgarria eskaintzen digu.*

6. Etapa: Emaizetatik lorpenetara

2022ko urrian, azkenik, lortu genuen komunitateetara bueltatu eta baliokotze eta ebaluazio lan batzuk berrartzea, pandemia garaian egindako analisisan oinarrituta. Komunitateetara bueltatu ginenean ikusi genuen 2019an haziak berreskuratzeko jarritako negutegi txikia jateko landareak eta landare sendagarriak hazteko lursail eder bihurtu zela; hots, hasieran proposatutako etnografia bukatu baino lehen, bestelako ekintza batzuk martxan jartzeko ekimenak loratu zirela. COVID-19aren pandemiak derrigortutako isolamendua motibazio iturri izan zela zirudien, *“helduen jakintzatik ikasteko”, “familiara bueltatzeko”, “lurra esnatzeko”, “ikasi eta gure seme-alabei erakusteko ekosistemarekin armonian bizitzen, edo izateko beste modu batzuk badaudela erakusten”*²⁴. Chakra (“hazkuntzarako lur”, kitxuz) zabal bihurtutako negutegiaz gain, eko-herrixka bat eraikitzen ari ziren, eta bertan hezkuntzarako espazio bat bazen,

COVID-19aren pandemiak derrigortutako isolamendua motibazio iturri izan zela zirudien, “helduen jakintzatik ikasteko”, “familiara bueltatzeko”, “lurra esnatzeko”, “ikasi eta gure seme-alabei erakusteko ekosistemarekin armonian bizitzen, edo izateko beste modu batzuk badaudela erakusten”.

22 <http://www.dspace.uce.edu.ec/bitstream/25000/18804/1/T-UCE-0015-ODO-178.pdf>, [2022,09].

23 El Comercio Sukaldaritzak eta zientziak bat egiten dute ikerketa akademiko honetan. [2015eko urriaren 16a]. (<https://www.elcomercio.com/sabores/investigacion-latitude-cocina-ciencia-gastronomia.html>)

24 2020an egindako online bileretan parte hartzaile batzuek esandakoak. Adi! **Esnatu** hitza erabili da (lurra **esnatu**); horrek gogorazten digu lurra izaki biziduna dela, eta harekin harreman estua duela hizkuntzen ekologiak.

Ikerketa hau egin den inguruetan, hiztunek eskatzen dute egungo hizkuntza eta hezkuntza politikak berrikustea; gaur egungo mundura egokitutako elebitasun eta eleaniztasun parekidea sustatzen duten hizkuntza politiken alde egiten dute.

arbasoen jakintzak eta komunitatearen printzipioak transmititzera bideratuko zena, batez ere, komunitateetako umeei eta gazteei. Kitxuazko hastapen ikastaroak eman izan dira, *Kitxua Narrazio Parte Hartzailea, Lurraldea, Gorputza eta Soinua* eskola-tailerraren barnean. Inguruko toponimia ezagutzeko egitasmoa da, eta bi hizkuntzak erabiltzea sustatzen du, bertako toponimoen ezaugarria hori baita. Espazio horretako paisaia linguistikoa, eko-herrixka eta oraindik eraikitzen ari diren *wawa wasi* (“haurren etxea”, kitxuaz) bera ere elebidunak dira, kitxua eta gaztelania. Oso garrantzitsua da azpimarratzea zenbat ekintzaile ari diren agertzen, kitxua hitz egiten ez duten arren, argi daukatenak berriz elkartu nahi dutela, berriz elkar ezagutu eta aldarrikatu hizkuntza mugimendu identitario eta soziopolitikoaren parte dela, eta mugimendu horrek bat egiten duela norbanakoaren eskubideen eta eskubide kolektiboekin defentsarekin.


Are gehiago, ikerketa hau egin den inguruetan, hiztunek eskatzen dute egungo hizkuntza eta hezkuntza politikak berrikustea; gaur egungo mundura egokitutako elebitasun eta eleaniztasun parekidea sustatzen duten hizkuntza politiken alde egiten dute.

4. HAUSNARKETAK: EPE LUZERAKO LORPENAK, ERRONKAK ETA IKUSPUNTUAK

Hiru urte atzera egin, eta *Ahotsak eta arbasoen jakintzak* prozesu osoari erreparatzen badiogu, behin eta berriz gauza bera ikusiko dugu etapa bakoitzean: hasiera batean, paisaiari urrutitik eta modu inpersonalean begiratu diogu, izen bat, landare bat, min bat, hainbat ahots eta istorio, zeintzuk denboraren poderioz bihurtu baitira jakintza hazien sare konplexu bat, etnografiarena eta autoetnografiarena, azkenean lortu dugun arte bestearekin eta lurrarekin hitz egitea.

2020 hasieran COVID-19a iritsi zen eta guk, gelditu ordez, indarrak bildu eta aurrera egin genuen, modu sortzailean gainera. Batetik, pandemiaren ondorio zenbait landare batzuk erabiliz egin diegu aurre; bestetik, haziak, arbasoen jakintzak, praktika kulturalak eta hizkuntza berreskuratzen jarraitu dugu. Uneko helburua partekatzea eta besteak kutsatzea da (7. irudia):

7 irudia. Jarrai dezagun... Besteak kutsa ditzagun



Iturria: Txat personala (2023.10.16)

Ikerketa prozesuari dagokionez, halako lanek elkarrizketan oinarritutako metodologiak erabiliz lan egiteko gure printzipioa indartzen dute, baita ikuspuntu integratzailea izatearena ere. Azken horren bidez lortuko dugu ezagutzaren konplexutasuna ulertzea, diziplina eta kultura batzuen arteko loturetatik abiatuta, errealitatea elkarrekikotasunezko osotasuntzat duten ikuspuntuetatik, osotasun anitz bat, zatikatu gabea. *Horrela bermatu ahalko dugu elkar osotasunez ulertzeko, aniztasunean bizitzeko bere gorputzetik ihes egiten duen subjektuaren zatikatzea gaindituta, diziplinak nahasteko gai den pentsamendu baten bidez ikastea, irakastea eta bizitzea, Basarabek proposatzen duen gisan* (1996). Ildo horri jarraikiz, akademiak ardura bere gain hartu eta adi egon behar du, prest besteak eta geure burua sustraietatik deskolonizatzeko teoriak, kontzeptuak, metodologiak zehazteko, libra gaitzaten desberdintasunetan sakontzera garamatzaten ideologietatik, gudan hizkuntzen kontrako jarrerak, jarrera arrazistak eta sexistak eragiten dituzten horietatik. Elkarrizketaren metodologiak erakutsi digu deskolonizazioari buruz hitz egitea, Smithek 2016an esan bezala, datzala metodo bat aukeratzeko teknikei gutxiago erreparatzean, eta arreta jartzea testuinguruan; hots, zein testuingurutan kontzeptualizatzen den eta zein testuingurutan gertatzen

diren ikertzeko moduko arazoak eta beraien herrirentzako esanguratsuak diren ekintzak²⁵.

Aurrez aipatu dugu metodologia honen xedeetako bat dela, emaitzez gain, epe luzeko lorpenak izatea; eta honek, landare medizinaleri buruzko beste lan batzuek ez bezala, beste lanetatik bereizten duten ezaugarri batzuk ditu. Hasieratik pentsatu eta diseinatu zen taldean, eta diziplina anitzeko eta diziplinarterako ikuspuntua eman zitzaion, kulturartekoa eta hartu-eman ez hain bidegabeak izatea xede zuena. Hala ere, badugu, besteak beste, erronka zail bat: jendearekin hitz egin eta gai izatea, ez itzultzeko, baizik eta interpretatzeko. Ez hitz bat, ez esaldi bat, baizik eta interpretatzeko, ulertzeko eta onartzeko mundu ikuskera bat.

ESKERTZA

I
santa Teresa de Píntag, Valencia eta Tolontag komunitateei eskerrak eman nahi dizkiet, *Andeetako ahotsak eta Arbasoen Jakintzak* (III. fasea) sortzeko egindako elkarlanagatik. Bereziki, Daniel Acostari eta Tupac Amaru elkarteari, eta baita *Ahozkotasuna Modernotasuna* programako taldeei. Artikulu honekin zerikusia duten zenbait eduki Haboud eta Acosta 2022 lanean eta argitaratu gabeko konferentzia birtual zein aurrez-aurrekoetan eztabaidatu dira. Artikulu honek proiektuaren alderdi gehigarriak barne hartzen ditu, baita COVID-19aren pandemia baino lehen eta bitartean zein 2022tik aurrera (pandemiaren ondotik) egindako zenbait ekintza ere. ●

Erreferentzia bibliografikoak

Agar, Michael H. 1980. *The professional stranger: An informal introduction to ethnography*. New York: Academic Press.

Arias Cardona, Ana María eta Sara Victoria Alvarado Salgado. "Investiga-

25 Diziplinartekotasunari buruz, ikus Morin 1990, 2020; Basarab 1996; besteak beste. Diziplinartekotasunaren eredu bat izateko, ikus Haboud 2023. *Ekuadorren hitz egiten diren hizkuntza indigenak: Diziplinartekotasunetik eta oinarritzko komunitateekin elkarrizketaren metodologia erabiliz aktiboki dokumentatzen. Encuentros Humboldt Alumni Klubean irakurritako hitzaldia*, Ekuador. Quito: Eskola Politekniko Nazionala (hitzaldia, argitaratu gabea) (2023.07).

- ción narrativa: apuesta metodológica para la construcción social de conocimientos científicos". *CES Psicología*, 8. Bol, 2. Zk, uztaila-abendua, 2015, 171-181 or. Kolonbia: Universidad CES. (<https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=423542417010>) [2023.11]
- Basarab, Nicolescu. 1996. *La Transdisciplinariedad. Manifiesto. Collection Transdisciplinarité*. Monako: Ediciones Du Rocher <http://www.basarab-nicolescu.ciret.transdisciplinarity.org/BOOKS/TDRocher.pdf> -tik berreskuratuta) [2022.07]
- Benedicto, Elena, Demetrio Antolín, Modesta Dolores, Cristina Feliciano, Gloria Fendly, Tomasa Gómez, Baudilio Miguel eta Elisa Salomón. 2007. "A Model of Participatory Action Research: The Mayangna Linguists Team of Nicaragua", in: *Foundation for Endangered Languages* (eds.) Proceedings of the XI FEL Conference on 'Working Together for Endangered Languages – Research Challenges and Social Impacts, Kuala Lumpur, Malaysia: SKET, University of Malaya eta Foundation for Endangered Languages, 29–35 or..
- Büttner, Thomas eta Marleen Haboud. 1990-1991. *Primer sondeo sociolingüístico del kichwa en nueve provincias de la Sierra Ecuatoriana*. Quito: Programa de Educación Intercultural Bilingüe (P.EBI) (Barne txostena).
- Büttner, Thomas eta Marleen Haboud. 1992. "El uso del quichua y el castellano en la sierra ecuatoriana", Quito: GTZ. (Argitaratu gabea)
- Büttner, Thomas. 1993. *El uso del quichua y el castellano en la sierra ecuatoriana*, Quito: Abya-Yala.
- Centre for Communication and Social Change. (d/g). Orlando Fals-Borda (1925–2008), Australia: The University of Queensland. www.uq.edu.au/ccsc/orlando-fals-borda-1925-2008 [08.2019]
- Coffey, Amanda eta Paul Atkinson. 2003. *Encontrar el sentido a los datos cualitativos. Estrategias complementarias de investigación*, Medellín: Editorial Universidad de Antioquia. (<https://www.fceia.unr.edu.ar/geii/maestria/2014/DraSanjurjo/8mas/Amanda%20Coffey,%20Encontrar%20el%20sentido%20a%20los%20datos%20cualitativos.pdf>) [07. 2019].
- Chisahuano, Silverio. 2006. *La población indígena en el Ecuador. Análisis de Estadísticas sociodemográficas*. Quito: Instituto Nacional de Estadística y Censos (https://www.ecuadorencifras.gob.ec/documentos/webinec/Bibliotecas/Estudios/Estudios_Socio-demograficos/Poblacion_Indigena_del_Ecuador.pdf) [07.2023]
- Dwyer, Rachael, Ian Davis eta Elke Emerald (ed.). 2017. *Narrative Research in Practice: Stories from the Field*, Singapore: Springer Nature.
- El Comercio. Sabores. *La investigación académica une cocina y ciencia* (2015eko urriaren 16an argitaratutako artikulua). (<https://www.elcomercio>.

- com/sabores/investigacion-latitudcero-cocina-ciencia-gastronomia.html) [07.2022]
- Fals-Borda, Orlando. 1985. *El problema de cómo investigar la realidad para transformarla por la praxis*. Bogotá: Tercer Mundo.
- Flores Farfán, José Antonio. 2012. "Definición de buenas prácticas en la revitalización de lenguas: una agenda en curso". *CUHSO* 11, 27-37 or. (https://www.researchgate.net/publication/271154724_Definicion_de_buenas_practicas_en_la_revitalizacion_de_lenguas_una_agenda_en_curso) [06.2019].
- Haboud, Marleen. 2020. "Propuestas metodológicas para la investigación interdisciplinaria como interacción social". In Burki, Ivette eta Carolin Patzelt, Carolin (ed.): *Berlín: Gruyter Mouton-ena* (52-76 or.) (<https://oralidadmodernidad.org/publicaciones/>)
- Haboud, Marleen. 2019a. "Educación Intercultural Bilingüe en el Ecuador: entre la contradicción, la fragmentación y la esperanza". *Elad-Silda*. Frantzia.
- Haboud, Marleen. 2019b. "Estudios sociolingüísticos y prácticas comunitarias para la documentación activa y el reencuentro con las lenguas indígenas del Ecuador", *Visitas al Patio* 13, 37–60 or. (<https://revistas.unicartagena.edu.co/index.php/visitasalpatio/article/view/2314>) [10.2023].
- Haboud, Marleen. 2018. "Documentación activa con, desde y para la comunidad de hablantes", in: Störl, Kerstin eta Rodolfo Cerrón-Palomino (eds.). *La reciprocidad entre lengua y cultura en las sociedades andinas*. Viena: Peter Lang Ediciones, 37–50 or.
- Haboud, Marleen. 2010–2017. *Proyecto Oralidad Modernidad*. Quito: Pontificia Universidad Católica del Ecuador. (Barne dokumentuak) (oralidad-modernidad.org)
- Haboud, Marleen. 2007. *Proyecto Oralidad Modernidad* (Fase 2007), Quito: PUCE. (argitaratu gabea)
- Haboud, Marleen. 1998. *Quichua y castellano en los Andes ecuatorianos. Los efectos de un contacto prolongado*, Quito: Abya-Yala.
- Haboud, Marleen. 1990-1991. *El Quichua en el Ecuador. Primer Sondeo Sociolingüístico*. Quito: GTZ. (barne txostena)
- Haboud, Marleen eta Daniel Acosta. 2022. "Revitalización lingüístico-cultural en contexto. El rol de la etnobotánica y la investigación interdisciplinaria con comunidades de base". *Universidad-Verdad*, 2(81), 40–61 (<https://doi.org/10.33324/uv.vi81.563>).
- Haboud, Marleen, Fernando Ortega, Ernesto Farinango eta Alfonso Farinango. 2019. *Jambij Yuracuna/ Plantas que curan*. Quito: Centro de Publicaciones PUCE.

- Haboud, Marleen, Rosaleen Howard, Josep Cru, eta Jane Freeland. 2016. "Linguistic human rights and language revitalization in Latin America and the Caribbean." In Serafín Coronel Molina eta Teresa Mc Carthy (eds.): *The Handbook of Indigenous Language Revitalization in the Americas*. New York: Routledge, 201-224.
- Hornberger, Nancy eta David Cassels. 2011 [2007]. "Slicing the Onion Ethnographically: Layers and Spaces in Multilingual Language Education Policy and Practice". *TESOL Quarterly*, 41: 509-532 (<https://onlinelibrary.wiley.com/doi/epdf/10.1002/j.1545-7249.2007.tb00083.x>) [10.2023]
- Kennelly, Jeanette; Ledger, Alison; Flynn, Libby. 2017. "Critical Junctures in Narrative Research: Collaborative Reflections on Methodological Issues", In Dwyer, Rachael, Ian Davis eta Elke Emerald (eds.). *Narrative Research in Practice: Stories from the Field*. Singapore: Springer. Nature, 67–87 or.
- Knapp, Gregory W. 1991. *Geografía quichua de la sierra del Ecuador. Núcleos, dominios y esferas*, (3ª ed). Quito: Abya-Yala.
- Ministerio de Cultura. 2011. *Políticas Institucionales del Ministerio de Cultura*. (<https://www.culturaypatrimonio.gob.ec/politicas-institucionales-del-ministerio-de-cultura/>) [2023.10].
- Ortiz, Marielsa, eta Beatriz Borjas. 2008. "La Investigación Acción Participativa: aporte de Fals Borda a la educación popular". *Espacio abierto: Cuaderno venezolano de sociología* 17 (4), 615–627 or. <https://www.redalyc.org/pdf/122/12217404.pdf> [2019.08].
- Rivas, A. 2020. "Diagnóstico situacional para identificar los posibles problemas turísticos del cantón Pangua Latacunga". Universidad Técnica de Cotopaxi. <http://repositorio.utc.edu.ec/bitstream/27000/6814/1/PC-000942.pdf> [2022/02/20].
- Sichra, Inge. 2009. *Atlas sociolingüístico de pueblos indígenas en América Latina*, 1 eta 2 bolumenak. UNICEF/FUNPROEIB. Quito: Imprenta Mariscal.
- Smith, Linda Tuhiwai. 2016. *Decolonizing Methodologies. Research and Indigenous Peoples*, London: Zed Books.
- SENESCYT. s/f. Coordinación de Saberes Ancestrales. (<https://www.educacionsuperior.gob.ec/coordinacion-de-saberes-ancestrales/>) [2023.10]
- Talmy, Steven. 2011. "The Interview as Collaborative Achievement: Interaction, Identity, and Ideology in a Speech Event", *Applied Linguistics* 32 (1), 25–42 or. (<https://doi.org/10.1093/applin/amq027>) [2020.08].
- Torero, Alfredo. 2002. *Idiomas de los Andes. Lingüística e Historia*. Lima: Editorial Horizonte.
- Yáñez Cossío, Consuelo. 1996. *La Educación Indígena en el Ecuador. Historia de la Educación y el Pensamiento pedagógico ecuatorianos*. Quito: Abya Yala eta Universidad Politécnica Salesiana.

*Andeetako ahots eta arbasoen jakintzetara itzul gaitezen, elkarrizketaren metodologia erabiliz:
aurrerapausoak eta erronkak – Marleen Haboud Bumachar*

UNESCO 2010. *Atlas mundial de las lenguas del mundo en peligro* (hirugarren edizioa). Paris: UNESCO (<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000189453>)

» Babestu **BERRIA**

Orain zure aldia da. 2025erako, beste 3.000 babesle behar ditugu, iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena.

Urteko ekarpena

100€

(0,27 euro egunean)

Gazteen* ekarpena

30€

(*) 30 urtetik beherakoak



3

Datutik kontakizunera. Autodiagnostikorako prozesu komunitarioak, diskurtso berriak eta tokiko ekintza*

Miriam Viviana González Garzón**

Laburpena. Artikulu honen helburua da diagnostiko soziolinguistikorako prozesu komunitarioei, datuen inguruan sortzen diren diskurtsoei eta ondoriozko tokiko ekintzari buruz gogoeta egitea. Bereziki, Kolonbiako hizkuntzen azterketa soziolinguistikoak ditu ardatz, 2007 eta 2020 urteen artean erakunde indigenek eta gobernu erakundeek eginak, eta haiei buruz egiten da gogoeta egoera globalaren esparruan. • **Hitz gakoak:** hizkuntza indigenak, biziberritze-prozesuak, ikerketa soziolinguistikoa.

Abstract. The aim of this paper is to consider community-level sociolinguistic diagnostic processes, the discourses that emerge from the data and the resulting local action. In particular, it focuses on sociolinguistic studies of Columbian languages conducted between 2007 and 2020 by indigenous and governmental institutions, discussing them in a global context. • **Key words:** indigenous languages, revival processes, sociolinguistic research.

Sarrera-data: 2023/09/15. Ebaluazioak: 2023/10/20 – 2023/11/27. Onartze-data 2023/12/15

Zitatzeko modu gomendatua:

Miriam Viviana González Garzón. 2023. "Datutik kontakizunera. Autodiagnostikorako prozesu komunitarioak, diskurtso berriak eta tokiko ekintza". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 129. 57-71. Andoain (Gipuzkoa)

<https://doi.org/10.55714/BAT-129.3>

CC BY-SA 4.0

* Jatorrizko testua gaztelaniaz: "Del dato al relato. Procesos comunitarios de autodiagnóstico, nuevos discursos y acción local". Itzulpena BAKUN SL

** Miriam Viviana González Garzón | UPV/EHU. Doktorego-programa | linguamerindia@gmail.com | ORCID ko-dea: 0009-0009-3450-653X

1. SARRERA

I Kolonbia Hego Amerikako kontinentearen iparraldean dago, eta mundu mailan aintzatetsia den aniztasun ekobiologikoa du kokapen geografiko horrek. Nazio Batuen Ingurumena Zaintzeko Monitorizazio Zentroaren arabera, beste 17 herrialderekin batera, planetako lurralde megadibertsitateko bat da, eta herrialde horietan dago, hain zuzen, munduko biodibertsitatearen % 70. Ehuneko horretatik, % 10 Kolonbian dago (Portal Colombia.co).

Aniztasun etniko, linguistiko eta kulturalagatik ere nabarmentzen da herrialde hori, hizkuntza kopuru handiena duen bigarrena baita Brasilen ondotik eta bere atzetik dator Mexiko. Latinoamerikako Atlas Soziolinguistikoak nabarmentzen duenez, “aniztasun etniko eta kulturala kontinenteke aniztasun geokologikoarekin batera doa. Lurralde nazionaletan hainbat eskualde daude ia herrialde guztietan, eta Kolonbia nabarmentzen da bost eremu geokulturalekin” (FUNPROEIB Andes 2009, 5).

Kalkuluen arabera, espainieraz gain, 69 hizkuntza inguru hitz egiten dira Kolonbian, eta haietatik 65 indigenak dira, 2 kreolak, rom herriaren hizkuntzaz eta Kolonbiako zeinu hizkuntzaz gain. 1991ko Konstituzioak onartzen du aniztasun hori, bertako hizkuntza koofizialak aintzatesten baititu bere lurraldeetan, eta 2010eko 1381 legeak babesten eta sustatzen du. Gaur egun, identitate, politika eta antolaketa arrazoiak direla medio, herrialdeko hainbat komunitate beren hizkera berresten ari dira, eta orain arte aldaera gisa loturik egon den hizkuntzarekiko independentetzat jotzen dute, eta, horrela, hizkuntza berriak gehitzen ari zaizkio hizkuntza-panorama nazionalari. Era berean, hainbat herri, zeinen hizkuntzak desagertutzat jotzen zirenak, hizkuntza horiek arakatzeko eta esnatzeko prozesuak aurreratzen ari dira gaur egun, eta, beraz, aniztasunaren inbentarioa gutxi gorabeherakoa baino ez da, aldakortasun handia baitago, aipatu bezala, soilik linguistikoak ez diren faktoreen baitan.

2. TESTUINGURUA: IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOEN IBILBIDEA KOLONBIAN

I Atal honetan, 2007tik 2020ra bitartean hainbat mailatan (eskualdekoa, nazionala, zonakoa eta tokikoa, ordena horretan) egindako azterketa

Gaur egun, identitate, politika eta antolaketa arrazoiak direla medio, herrialdeko hainbat komunitate beren hizkera berresten ari dira, eta orain arte aldaera gisa loturik egon den hizkuntzarekiko independentetzat jotzen dute, eta, horrela, hizkuntza berriak gehitzen ari zaizkio hizkuntza-panorama nazionalari.

CRIC-ek eskubideen onarpenean aurrera egin arren, indigenen hizkuntzek galbidean jarraitu zuten, lurraldeetan hiztunak galtzen joan ziren, hizkuntza irakasteari eta transmititzeari utzi zitzaion, gutxi entzuten zen hitz egiten, eta orduan ez ziren aski izan egoera horri buelta emateko egindako ahaleginak.

soziolinguistikoek lau esperientzia aurkeztuko dira, bai eta gobernu nazionalaren eta bertako gobernu indigenaren egituretako zenbait eragilek egindakoak ere.

Artikulu honek aipagai duen lehen azterketaren aurretik Kolonbiako hizkuntzen bizitasun egoerari buruzko beste ikerketa eta datu bilketa batzuk ere egin dira, baina, Kolonbiako hizkuntza aldaerak diagnostikatu dituzten gradu aurreko unibertsitate ikasleen tesiei dagozkie gehienak, edo nazioko eta tokiko zentsuetan bildutako informazioari. Baina horietan datu mugatuak ageri dira hizkuntzei buruz, honako hauek bakarrik hartzen baitituzte kontuan: hitz egiten den ala ez, idazten den ala ez, eta sexua edo adina bezalako aldagaien araberrako oinarritzko bereizketaren bat. Kasu honetan, metodologiagatik eta geroko biziberritze prozesuetan izandako irismenagatik mugarri izan diren ikerketa soziolinguistikoak hartuko ditugu erreferentetzat.

Ibilbide honetan aipatu nahi den lehen esperientzia da Cauca Indigenen Eskualde Kontseiluak (CRIC)¹ 2006tik 2007ra bitartean egindako azterlana. Indigenen erakunde hori aitzindaria da Latinoamerikako indigenen mugimenduan, eta erreferente politiko nazionala da. CRIC 1971n sortu zen, eta, gaur egun, 10 herri indigena ordezkatzeko ditu, 126 lurraldetan finkatuak, bakoitza bere gobernu kidegoarekin. 2021era arte, Cauca departamentuaren eskualde eremuan jardun zuen, herrialdearen hegoaldean, eta, urte horretatik aurrera, nazio mailara zabaldu du bere izaera, komunitateak departamentu eta udalerrri berrietan finkatzen eta antolatzen ari direlako gero eta gehiago, indarkeriak eta gatazka armatuak eraginda nahitaez aldatu behar izan dutelako bizilekua, zein beren borondatez berrezarri direlako lurraldea handitzearen ondorioz.

Bere garaian Hizkuntzen Batzorde Nagusia zenak hartu zuen bere gain jatorrizko hizkuntzen gaia, eta gaur egungo antolamendu egituran Jatorrizko Hizkuntzen eta Antzinako Pentsamenduaren Azpibatzaordea deitzen zaio, CRICen Kulturarteko Hezkuntza Elebidunaren Programaren (PEBI) barruan. Sortu zenetik, hainbat estrategia ezarri dira hizkuntzak indartzeko, hala nola hezkuntza elebiduna, maisu-maistren profesionalizazioa, kultur ekoizpena eta materialen ekoizpena, besteak beste. Hala eta guztiz ere, komunitateek modu sistematiko eta iraunkorrean bizi izan duten sarraski eta zapalkuntza egoera sozialaren esparruan, erakundeak eskubideen onarpenean aurrera egin arren, indigenen hizkun-

1 www.cric-colombia.org

tzek galbidean jarraitu zuten, lurraldeetan hiztunak galtzen joan ziren, hizkuntza irakasteari eta transmititzeari utzi zitzaion, gutxi entzuten zen hitz egiten, eta orduan ez ziren aski izan egoera horri buelta emateko egindako ahaleginak.

3. IKERKETAREN METODOLOGIA

Errealitate horren aurrean, komunitateek eta agintariak politika gisa definitu zuten hizkuntzek lurralde bakoitzean duten bizitasun egoera ezagutzeko bidean aurrera egitea, hizkuntza horiek indartzeko eta garatzeko neurri egokiak hartu ahal izateko. Orduan zehaztutako helburua izan zen “ikerketara soziolinguistikoa egitea hizkuntza tradizio elebiduna duten (nasa yuwe – gaztelania eta namtrik – gaztelania) berrogeita sei (46) komunitate indigenatan, hizkuntza horien egungo egoeraren berri izateko, ahozko erabilerari, ezagutzari, transmisioari eta haiekiko jarrerari dagokienez. Prozesu honen azken helburua da sentsibiltate eta kontzientzia linguistiko handiagoa sortzea hizkuntza erabiltzaileen eta Estatuko erakundeen artean, Kolonbiako hizkuntzen eta kulturen bizitasuna bultzatu eta bermatzeko eragile gisa”. (CRIC 2009, 2)

CRICen PEBI programako hizkuntza taldea izan zen ikerketaren buru, lehen aipatu bezala, eta komunitateetako eragile askok hartu zuten parte, hala nola maisu-maistrek, agintariak, jakitunek, liderrek, bai eta akademikoek eta adituek ere, besteak beste, Kultura Ministeriokoak, Euskal Herriko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzakoak eta Caucaoko Unibertsitatekoak. Ikerketaren fase guztietan, diseinuan, informazioa biltzean, analisisan eta dibulgazioan, diziplina anitzeko talde batek hartu zuen parte.

Metodologiari dagokionez, inkesta bat diseinatu zen atariko azterketarako hautatu ziren Nasa Yuwe eta Namtrik hizkuntzen ahozko erabilerari, ezagutzari, transmisioari eta jarrera ikertzeko, eta gaztelania – indigenen hizkuntza bertsio elebidunean aplikatu zen. Inkesta etxeko buruei zuzendu zitzaion, eta txostenaren arabera “etxeko buruen bitartez, lau belaunaldiren portaera soziolinguistikoa ikertu nahi izan zen. Laburbilduz, esan daiteke inplikaturako komunitateetako kideek beren lurraldeei buruz eta haien barruan gertatzen diren dinamika soziolinguistiko eta soziokulturalari buruz duten ezagutzan oinarritu zela laginaren hautaketa”. (CRIC 2009, 5)

**Azterketarako
hautatu ziren
Nasa Yuwe
eta Namtrik
hizkuntzen
ahozko erabilerari,
ezagutzari,
transmisioari eta
jarrera ikertzeko,
eta gaztelania
– indigenen
hizkuntza bertsio
elebidunean
aplikatu
zen. ... Lau
belaunaldiren
portaera
soziolinguistikoa
ikertu nahi izan
zen.**

288 inkesta egin ziren Namtrik hizkuntzarentzat eta 1.436 Nasa Yuwe hizkuntzarentzat, eta, emaitzek balio izan zuten hizkuntzen galera eta bizitasun dinamiken nozio orokorra aurkezteko. [...] Agintari indigenak arduratuko dira bakoitzak bere lurraldean hizkuntza politika eta plangintzako prozesuak zuzentzeaz.

Alde horretatik, lagin mota intentzionala izan zen, eta, beraz, atariko izaera du azterlan honek, ez baitu hizkuntza horien bizitasun egoera orokorra azaltzen, baizik eta kezka partikularrei erantzuten die. Horri dagokionez, azterketaren azken txostenak hauxe dio:

Gure lana ez zen izan sakoneko azterketa deskribatzailea egitea, ezta azalpen azterketa egitea ere. Helburua ez zen esku hartzeko eredu espezifiko bat formulatzea edo proposatzea, baizik eta problematika horri buruz lan espezifikoa egiteko elementuak biltzea eta aurrerago ikerketa zehatzak egitea. (...) Ez dugu orokortasunik egin nahi; beraz, lagin ez probabilitistiko intentzionalarekin egin dugu lan, agintari indigenen eta erakundearen irizpidearen arabera. (CRIC 2009, 2-3)

4. EMAITZAK

I
Guztira, 288 inkesta egin ziren Namtrik hizkuntzarentzat eta 1.436 Nasa Yuwe hizkuntzarentzat, eta, aurreikusi bezala, emaitzek balio izan zuten hizkuntzen galera eta bizitasun dinamiken nozio orokorra aurkezteko, laginerako zehaztutako irizpideetatik abiatuta. Atariko azterketa horren emaitzek ez badute ere populazio osora zabal daitekeen informaziorik ematen hizkuntzen egoera zehatz-mehatz ezagutzeko, esperientzia horri esker urrats garrantzitsuak egin ziren Cauca lurraldeko hizkuntza politikan. Alde batetik, Nasa Yuwe eta Namtrik Hizkuntzak Biziberritzeko Lehen Minga Erregionalean aurkeztu ziren emaitzak. Minga hori Totoróko babeslekuan egin zen 2008ko ekainean, eta Caucako herri indigenetako ordezkariak eta nazioko eta nazioarteko gonbidatuek hartu zuten parte. Gune horretatik dokumentu bat sortu zen, hainbat arlotan (hezkuntzan, komunikazioan, idazketan, ikerkuntzan eta abarretan) biziberritze bideak marrazten dituenak.

Bestalde, hala azterketaren emaitzak nola Hizkuntzen Mingara bertaratu zirenek emandako gomendioak CRICen XIII. Kongresuan aurkeztu ziren, erakundearen legegintza esparru politiko garrantzitsuenean, Piendamó udalerriko La Maria babeslekuan egin zena, 2009ko apirilean. Eskualde egoera horretan, eskualde politika gisa hartu ziren Mingaren gomendioak, eta agindu batzuk sortu zituzten, Kongresuaren azken memorietan jaso zirenak. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira: agintari indigenak arduratuko dira bakoitzak bere lurraldean hizkuntza politika eta plangintzako prozesuak zuzentzeaz, Indigenen Hezkuntza Sistemak modu integral eta iraunkorrean hartuko ditu hiz-

kuntzak, eta ikerketa sustatuko da beren hizkuntzetan eta beren hizkuntzetatik (CRIC 2009).

Atariko azterketa soziolinguistikoa honek erakundearen barrura begira izan zuen eraginaz gain, partaidetzako metodologiagatik, bere testu-inguru eta hizkuntzatik ikerketa tresna bat diseinatzeagatik eta bere irismen politikoagatik, besteak beste, kanpora begira ere izan zuen eragina, hizkuntza politika nazionala ezartzeko eredutzat hartu baitzuen Kultura Ministerioak, eta horren abiapuntua izan zen, hain zuzen ere, autodiagnostiko soziolinguistikoak nazio mailan egitea, garai hartan hala deitzen baitzitzaien horrelako azterketei.

4.1 Autodiagnostiko soziolinguistikoaren kanpaina nazionalak

2008an, CRICek atariko azterketan ezarritako metodologia hartu zuen Kultura Ministerioaren Aniztasun Etnolinguistikoa Babesteko Programa (PPDE) sortu berriak. PPDEk hauxe planteatu zuen bere ibilbidearen laburpenean:

Autodiagnostiko soziolinguistikoa egitea da politika etnolinguistikoaren formulazioan aurrera egiteko lehentasunezko tresnetako bat. Horri esker, alde batetik, Kolonbian bertako hizkuntzen egoera zertan den ezagutu ahal izango da, eta proposamenak jaso ahal izango dira hizkuntza horiek herri horietatik beretatik babesteko eta indartzeko, eta, bestetik, erakundeak eta, oro har, komunitatea sentsibilizatzeko tresna izango dira, kultura ondare baloraezin hori balioesteko, babesteak eta zabaltzeak duen garrantziari buruz jabetu daitezen. (PPDE 2011, 4).

Horretarako, tailerrak egin ziren herrialdeko hainbat eskualdetan, inkestaren edukia eta metodologia adosteko. Era berean, hitzarmena sinatu zen Kolonbiako Universidad Externado unibertsitatearekin, eta hark egokitzapen tekniko bat egin zuen estatistika mailan; izan ere, CRICen azterketan ez bezala, probabilitate motako laginketa aukeratu zuen, emaitzak biztanleria osora zabaldu ahal izateko. Bi kanpaina egin ziren, lehenengoak 15 hizkuntza eta bigarrenak 6 hartu zituen, hau da, 21 hizkuntza guztira. Partaidetzako metodologiari eutsiz, herri bakoitzean lantaldeak osatu ziren, nork bere komunitatean autodiagnostikoa ezartzeko.

Arrazoi politikoengatik eta gobernu aldaketengatik, PPDE taldea desgaituratu egin zen 2011n, eta, azkenik, amaitu egin zen, gaur egun Kultu-

Autodiagnostiko soziolinguistikoa egitea da politika etnolinguistikoaren formulazioan aurrera egiteko lehentasunezko tresnetako bat. Horri esker, Kolonbian bertako hizkuntzen egoera zertan den ezagutu ahal izango da, eta proposamenak jaso ahal izango dira hizkuntza horiek herri horietatik beretatik babesteko eta indartzeko.

**Autodiagnostikoa-
ren bidez
hizkuntzaren
bizitasun egoera
ezagutzeak ez
zuen biziberritze
prozesurik
ekarri, egindako
kanpainekin
aurrera
eramandako
esperientzia
oso aurrekari
garrantzitsua
da etorkizunean
horrelako
programak
bideratzeko.
Tokiko
esperientziatik
sortutako politika
nazionala ezarri
izana eta herriekin
hitzartuta
gauzatzea oso
baliotsua izan zen,
dudarik gabe.**

ra Ministerioan hiruzpalau pertsonako talde bat badago ere hizkuntza ondarearen gaiari laguntzen. Hala ere, 2008tik 2011ra bitartean aurrerapen handiak egin ziren aniztasun etnolinguistikoa babestearen arloan. Hala dio Bodnar irakasleak:

Autodiagnostiko soziolinguistiko gisa definitu zen proiektua, eta populazio etnikoek parte hartu zuten une oro, bai inkestaren helburuak eta edukia definitu zirenean, bai bertako hizkuntzak babesteko planak egin zirenean. Horrek guztiak beren hizkuntzen eta kulturen etorkizunaz jabetzeko, hausnartzeko eta kontzientziatzeko prozesua ahalbidetu zuen herri horietan. Alde horretatik, prozesu hori eredu bideragarria da, nazio mailan ez ezik, beste esparru eta testuinguru batzuetan aurrera eramateko ere. (2013, 287-288).

Nahiz eta ezin izan zen hizkuntza guztiekin amaitu, eta kasu gehienetan emaitzak ematearekin bukatu bazen ere prozesua, hau da, autodiagnostikoa-
ren bidez hizkuntzaren bizitasun egoera ezagutzeak ez zuen biziberritze prozesurik ekarri, egindako kanpainekin aurrera eramandako esperientzia oso aurrekari garrantzitsua da etorkizunean horrelako programak bideratzeko. Tokiko esperientziatik sortutako politika nazionala ezarri izana eta herriekin hitzartuta gauzatzea oso baliotsua izan zen, dudarik gabe.

4.2. Cxhab Wala kiwe – ACIN autodiagnostikoa

PPDE amaitzean noraezean utzi zuen, autodiagnostikoen amaiera ez ezik, azterketen emaitzei erantzungo zieten babes planak eraikitzen jarraitzeko aukera ere. Bodnar irakasleak aipatzen duen bezala, “2010ean Kultura Ministerioan gertatu ziren aldaketek, hizkuntzen politika ezarri zenean, eragotzi egin zuten populazio etnikoen hizkuntzen bizitasun egoerari buruz informazio kuantitatibo fidagarria lortzeko prozesuarekin jarraitzea”. (Bodnar 2013, 287)

Nasa Yuwe hizkuntzarena izan zen, hain zuzen ere, Ministerio koiunturara horren eragina jasan zuen prozesuetako bat; izan ere, CRICek proiektatu bezala, beste azterketa bat planifikatu zen, estatistikako adituek egindako doikuntza teknikoekin oraingoan. Hala ere, laginak, koordinazioak eta esleitutako aurrekontuak eskura izanda, Populazioen Zuzendaritzak beste proiektu batzuetara desbideratu zituen baliabideak, eta gelditu egin zen Nasa herriarekiko prozesua.

Egoera horren aurrean, Çxhab Wala Kiwe – ACIN² Cauca Iparraldeko Kabildo Indigenen Elkarteko agintariak (autodiagnostikorako laginketa faseak aurreratuak zituen eskualde mailako erakundeetako bat) erabaki zuten baliabide propioekin aurrera eramatea azterketa. Horretarako, hitzarmena sinatu zuten zuzenean Universidad Externado unibertsitatearekin, ikerketak sendotasun teknikoa izango zuela bermatzeko, eta Yolanda Bodnar irakaslea izan zen lan hori koordinatzeko eta bultzatzeko ordezkaria.

Hala, 2012an beste azterketa bat hasi zen, eskualde mailako oraingoan, eta ACIN elkartearen Hezkuntza Sarearen Hilo de Nasa Yuwe taldeak ezarri zuen fase guztietan (diseinua, inkesten aplikazioa, kritika eta atzemate prozesuak, datuen analisia, txostenen ekoizpena, emaitzen sozializazioa). Talde horretan hainbat babesleku eta kabildotako 40 komunero zeuden 2011n, Cauca departamentuaren Iparraldeko Eremua osatzen dutenak erakundearen lurralde administrazioan.

Azken txostenak jasotzen duen bezala, oinarrizko lau helbururekin egin zen Çxhab Wala Kiwe – ACIN biztanleriaren autodiagnostiko soziolinguistikoko hori:

- Biztanleriaren bolumenari eta ezaugarri soziodemografikoei buruzko informazio fidagarria lortzea eta ematea, sexuaren eta adinaren arabera.
- *Nasa yuwe* hizkuntza erabiltzea sustatzen edo oztopatzen duten ezaugarri soziokulturalak ezartzea.
- *Nasa yuwe* hizkuntzaren bizitasuna eta erabilera egoerak identifikatzea, bai eta Çxhab Wala Kiweko biztanleek ematen dioten balihoa ere, eta,
- *Nasa yuwe* hizkuntza biziberritzeko eta indartzeko ekintzak diseinatzea eta ezartzea. (Bodnar eta González 2014, 19)

Amaierako txostenak etxeei eta etxeko buruei buruzko informazioa ematen du eta inkesta egituratzen duten alderdiak aztertzen ditu (ezagutza, erabilera, balorazioa, pertzepzioa). Horretarako, oro har, biztanleriari buruzko datuak ematen ditu, lurraldeka bereziak, azterketan aintzat hartutako 14 babeslekuetik (Bodnar eta González 2014, 189). Emaitza horiekin, hainbat batzar eta bilera egin ziren sozializatzeko. Gune komunitario horietan, hizkuntza indartzeko ekimenak eta proposamenak

Oinarrizko lau helbururekin egin zen xhab Wala Kiwe – ACIN biztanleriaren autodiagnostiko soziolinguistikoko hori, besteak beste, Nasa yuwe hizkuntza erabiltzea sustatzen edo oztopatzen duten ezaugarri soziokulturalak ezartzea eta hizkuntza biziberritzeko eta indartzeko ekintzak diseinatzea eta ezartzea.

Ikerketak bildutako informaziak balio izan zuen abian zeuden prozesuak indartzeko eta justifikatzeko, hala nola hasierako hezkuntzako murgiltze zentroak, gazte eta helduentzako eskola edo Nasa Yuwe hizkuntzan egiten ziren irratsaioak.

bildu ziren, datuen eta lurraldeetako galera egoeraren azterketaren arabera. Era berean, informazio horrek balio izan zuen abian zeuden prozesuak indartzeko eta justifikatzeko, hala nola hasierako hezkuntzako murgiltze zentroak, gazte eta helduentzako eskola edo Nasa Yuwe hizkuntzan egiten ziren irratsaioak. Izan ere, jendeak horrelako proiektuen alde zeudela erantzun zuen inkestan, eta, horri esker, abian zeudenak bultzatu eta,aldi berean, prozesu berriak sortu zituen. Horren harira eta nire maisutza tesian adierazten dudana bezala,

Itxuraz bakanak diruditen arren, nire ustez, metodologia bat sendotzeko urrats gisa ulertu behar dira hiru azterketa mota horiek (...). Metodologia berria da, komunitatearen beraren borondatean errotua. Autodiagnostikoa da norberari begiratzea, nork bere buruari, bakoitzari bere hizkuntzarekiko, eta komunitate osoari ere begiratzea; komunitatean erein behar den prozesua da. (González 2013, 85)

Alde horretatik, azpimarratu nahi dudana da oso garrantzitsua dela biziberritze prozesuak diagnostiko prozesu batetik sortzea, baina ikerketa prozesuak berak potentzial komunitarioa duela, hainbat kasutan erakutsi baitu bere irismena, ez bakarrik Nasa hizkuntzan, baizik eta, adibidez, Kolonbiako hizkuntza kreoletan ere, azterketa soziolinguistikotik abiatuta, aurrera egin baitzuten babes planak eraiki arte.

4.3 Autodiagnostikoa toki mailan. Nasa proiektuaren bizi plana.

Orain arte, aipatutako hiru azterketek datu kuantitatiboak eman zituzten indigenen hizkuntzen eta gaztelaniaren ezagutzari, erabilerari eta balorazioari buruz, eta ACINen kasuan bakarrik eman ziren lehen aurrerapenak autodiagnostikoen informazioa babestuko zuen ikerketa kualitatiborantz.

2014an, eskualde mailako sustatzaileen taldeak koordinazioan izandako aldaketaren ondorioz, Toribio udalerriko Nasa Proiektuaren Bizi Planak³, Tacueyó, Toribío eta San Francisco antzinako babeslekuek osatuak, eskualde krisia gorabehera, erabaki zuen jarraipena ematea aurreratzen ari ziren biziberritze prozesuei, kontuan hartuta ACINeko sustatzaileen erdiak Nasa Proiektukoak zirela, eta, gainera, hizkuntzaren aldeko lanarekin jarraitzeko funtsezko esperientzia pilotuak au-

3 <http://www.nasayuwe.cecidic.edu.co/-Nasa-Yuwe->

rreratzen ari zirela hiru lurraldeetan. Beraz, bazegoen aurrera egiten jarraitzeko indarra.

Taldea tokiko lurralde eremura bakarrik bideratu zenean, orduan planteatu zen indar handiagoz era horretako ikerketa propioa, adibidez espiritualtasunetik eta lurralde ibilbideetatik; izan ere, begia tokiko mailan gertatzen diren biziberritze prozesuetara hurbiltzean, datu kuantitatibo hutsak ez ziren aski gizarte sarean hizkuntzen bizitasun egoera zertan zen ulertzeko, eta zaila zen eguneroko dinamika komunitarioetan prozesuak mobilizatzea zenbakizko datuarekin soilik.

Hala, areagotu egin zen lan etnografikoa. Eremu komunitarioetan behatzeak eta parte hartzeak hainbat iturritako kontakizunak ekarri zituzten, eta pixkanaka-pixkanaka osatu egin zuten datu kuantitatiboak jada iradokitzen ari ziren kontakizuna. Astez aste, lurraldeetan barrena ibili zen sustatzaile taldea, familiarekin lan egin zuen, batzarretan, martxetan, festetan eta era guztietako bileretan parte hartu zuen, jendearekin hizketan hizkuntzari buruz, pasadizoak, minak eta ilusioak partekatuz. Sustatzaileen presentzia normalizatuz joan zen, eta hizkuntza biziberritzearen gaia errepikari bihurtu zen familietan nahiz hezkuntza, komunitate eta legegintza esparruetan. Hala, eraikitzen joan zen hizkuntzaren bizitasun egoerari eta haren etorkizunari buruzko kontakizun kolektiboa.

Eta kontakizun komunitario horren osagarri gisa, norberaren espiritualtasunetik, jakileak euren analisia idazten joan ziren gau erritual luzeetan, gudu kontaezinak gaindituz menderatzen dituzten dimentsio espiritualetan, hizkuntza jasaten ari den gaitzen kausak aurkitu ahal izateko. Lan espiritual handia egin zuen sustatzaile taldeak, agintari espiritualen gidaritzapean. Horri esker, diskurtso bat sortu zen hizkuntzaren inguruan, pentsamendu propiotik abiatuta, eta horrek lagundu zuen biziberritze prozesuak komunitatearentzat egokiak izan zitezen, biziberritze diskurtsoaren ikuspegi identitario horretan islatzean espiritualtasunetik begiratuta. Hori ikuspegi dekoloniala da hizkuntzalaritza tradizionalarentzat, baita aurrerakoiarentzat ere, ulertzea proposamen egiazkoa bezain egokia eraiki daitekeela beste epistemologia batetik, baina, nolahi ere, lagundu egin zuen hizkuntzaren diagnostiko integral hori eraikitzen, bai eta biziberritzeko plan estrategikoa proiektatzen ere.

Metodologia osagarri horiei dagokienez ACINen azterketaren amaierako txostenean aipatzen den bezala,

Lurraldeetan barrena ibili zen sustatzaile taldea, familiarekin lan egin zuen, batzarretan, martxetan, festetan eta era guztietako bileretan parte hartu zuen, jendearekin hizketan hizkuntzari buruz, pasadizoak, minak eta ilusioak partekatuz. [...] Hala, eraikitzen joan zen hizkuntzaren bizitasun egoerari eta haren etorkizunari buruzko kontakizun kolektiboa.

**Maila globalean,
Unescoren
Arriskuan
dauden Munduko
Hizkuntzen
atlasak
aniztasunaren
arriskuaz
ohartarazi
ziren herriei,
erakundeei
eta, oro har,
gizarteari. [...]
Baina diskurtsoei
dagokienez,
Unescoren
Atlaseko datuen
inguruan
diskurtso ezkorra
eraiki zen
funtsean, galera
prozesuetan
tematu zena
biziberritze
prozesuetan
baino gehiago,
eta hizkuntzen
iraungipena zuen
epizentrotzat.**

Norberaren zientziatik abiatuta, hizkuntza nola dagoen aztertu da, hizkuntza-
ren egoera espiritualaren diagnostikoa egin da. (...) diagnostiko prozesu askoz
ere konplexuagoaren parte da azterketa hau, eta estatistika datuez gain, adi-
nekoak eta *thē´ walawe´sx* (jakile espiritualak) hartu ditu ardatz, zeinek hiz-
kuntza-aren diagnosi espiritualari eskaini dioten beren jakituria; (...) Era berean,
lurraldean barrena egindako ibilbideetan burututako behaketetan oinarritu da
diagnostiko orokorra, horietan bizipenek erakutsi baitziguten hizkuntza nola
dagoen familietan, eskoletan eta lan komunitarioan. *Nasa yuwe* hizkuntza-
ren sustatzaileen eta komunitatearen arteko interakzioaren bidez, hurbilketa kuali-
tatiboagoan ere ikusi da hizkuntza nola dagoen. (Bodnar eta González 2014, 4)

5. ONDORIOAK: ZENBAIT GOGOETA DIAGNOSTIKO SO- ZIOLINGUISTIKORAKO ESPERIENTZIEI BURUZ

I
Lerro batzuk lehenago iradoki dugun bezala, datu soziolinguistikoek
diskurtsoak sortzen dituzte hizkuntza aniztasunaren inguruan, eta haien
gainean zehazten dira estrategiak eta ekintzak. Maila globalean, adibi-
dez, Unescoren Arriskuan dauden Munduko Hizkuntzen atlasak anizta-
sunaren arriskuaz ohartarazi ziren herriei, erakundeei eta, oro har, gizar-
teari. Hala ere, kritikak izan ditu metodologiagatik, zalantzan jarri baita
datuen baliozkotasuna, nahiz eta datuek egoeraren ideia ematen duten.
Era berean, kritikatu egin da proposatutako bizitasun eskala, besteren
begiak baitira norberaren errealtateari begiratzeko. Baina diskurtsoei
dagokienez, Unescoren Atlaseko datuen inguruan diskurtso ezkorra
eraiki zen funtsean, galera prozesuetan tematu zena biziberritze proze-
suetan baino gehiago, eta hizkuntzen iraungipena zuen epizentrotzat.

Hizkuntza Biziberritzeko Gidan aipatzen den bezala,

Aurreko guztiek erantzun garrantzitsua ematen diete hizkuntzen joan-etorria
konponetzina dela dioten egoera eta jarrera ezkorreari, ikuspegi horren ondo-
rioz ez baitute interesik azaltzen planetako hainbat lekutan hizkuntzak kontser-
batzearen alde egiten ari diren ahalegin txikiak aztertu eta dokumentatzeko,
eta horrekin ilundu edo, azken batean, –zeharka bada ere– bultzatu egiten
dute hizkuntzen ordezkapena (Flores, Córdoba, Cru 2020, 16)

Hala, desagertzearen diskurtsoak hizkuntza dokumentazioaren goraka-
da eragin zuen, batere aurreikusitako gabe era horretako “esku hartzeek”
hizkuntza-aren eta hiztunen ikuspegi ezkorra eta etsigarria zekartela, ia
zigortzailea, idatzizko eta ikus-entzunezko dokumentuetara. Ezbairik

gabe, baliotsuak dira dokumentazio lanen emaitzak, baina betiere biziberritze prozesu dinamikoetan nabarmentzen badira, eta etorkizuneko ikuspegiarekin, museo ikuspegiarekin baino gehiago. Halatan, gidaren egileek azpimarratu dute ikuspegi horietan lehentasuna ematen zaio-la hizkuntzaren erabilerak eta barne ezagutzak erregistratzeari, baina prozesuak aktibatzeke aukerak mugatuak direla, eta, berriz ere, plano deskribatzailean geratzen dela aniztasunari heltzea.

Hala ere, hizkuntza dokumentazioaren gorakada horrekin batera, tokiko biziberritze prozesuek ere azaleratzen jarraitu zuten, eta galtzearen aurka agertu ziren azken helmuga gisa. Hala erakusten du 2018an egindako Hizkuntza Biziberritzeko Ahaleginei buruzko Nazioarteko Inkestak (Pérez 2018). Inkesta horrek 40.000 bit datu bildu zituen, gutxi gorabehera, mundu osoan hizkuntzak biziberritzeko 245 ahalegini buruz.

2018an egindako Hizkuntza Biziberritzeko Ahaleginei buruzko Nazioarteko Inkestak 40.000 bit datu bildu zituen, gutxi gorabehera, mundu osoan hizkuntzak biziberritzeko 245 ahalegini buruz.

Biziberritzeko ahaleginak eskualdeka	
Afrika	13
Australia	12
Kaukasia	11
Ekialdeko Asia	6
Europa	39
Mexiko, Erdialdeko Amerika, Karibe	37
Ekialde Hurbila	2
Ipar Amerika	70
Pazifikoa	10
Hego Amerika	35
Hegoaldeko Asia	5
Hego-ekialdeko Asia	5
Guztira	245

Iturria: Hizkuntza Biziberritzeko Ahaleginei buruzko Nazioarteko Inkesta (Pérez 2018)

Inkesta horrek, gainera, ahalegin horien ibilbideari buruzko datuak aurkeztu zituen, eta agerian utzi zuen Latinoamerikaren kasuan, 2000tik aurrera hasi zirela dokumentatutako kasuen % 85 (hau da, 35 kasu, informazioa eman zuten 41 kasuetatik), eta horietatik erdiak baino gehiago 2010etik aurrera hasi zirela. Horrenbestez, agerian geratu da desgertze diskurtsoarekin batera, tokiko dinamikek biziberritzera jo zutela, mehatxuaren aurkako hautu gisa.

**Kolonbian
Hizkuntza
Natiboen Hamar
urteko Plan
Nazionala eraiki
zen 2020an.
Hala ere,
erakundeek ez
dute gaitasunik
Kolonbiakoa
bezalako
hizkuntza
aniztasuna
sustatu, babestu
eta bultzatzeko
erronkei
erantzuteko,
eta egiazko
borondate
politikoa falta da
hizkuntzen legea
tokiko lurralde
ikuspegiarekin
ezartzeko.**

Errealitate ukaezin horren aurrean, hau da, maila eta jatorri desberdineko biziberritze prozesuak ugaritzearen aurrean, hizkuntzaren biziberritzeak diskurtsoa aldatu du hizkuntzen aniztasuna lantzeko eremu gisa, *The Routledge Handbook of Language Revitalization* liburuaren sarreran ikus daitekeen bezala, “hau ez da hizkuntzen galerari buruzko liburua. Liburu honek azaltzen du pertsonak nola egiten dioten aurre hizkuntzak bizirik mantentzeko erronkari, ahal duten moduan hizkuntzarekiko harremana berreskuratzeko erronkari, erabiltzen den lekuetan tradizioak berrezarrituz, funtzio berriak aurkituz eta hiztunen belaunaldi berriak sortzen saiatuz”. (Hinton, Huss, Roche 2018, XXII).

Bestalde, nazio mailan, esan daiteke badaudela datu kuantitatiboak, eta, horiei esker, ekintza nazionalak egin ahal izan dira, hala nola Hizkuntza Natiboen Hamar urteko Plan Nazionala eraikitzea 2020an. Hala ere, erakundeek ez dute gaitasunik Kolonbiakoa bezalako hizkuntza aniztasuna sustatu, babestu eta bultzatzeko erronkei erantzuteko, eta egiazko borondate politikoa falta da hizkuntzen legea tokiko lurralde ikuspegiarekin ezartzeko. Esan bezala, autodiagnostiko gehienek ez zuten jarraipenik izan hizkuntza komunitate gehienetan, eta, beraz, beste datu bat dugu, beste estatistika bat, baina ez biziberritze prozesu komunitarioak. Horrek zerbait egiten ari denaren eta egin behar denaren pertzepzioa elikatzeke arriskua du, beste batzuek gain, baina, egia esan, beste batzuk dira oinarrian dauden beharrak eta eskariak.

Eskualde mailan, datu kuantitatiboak oso orokorrak dira, eta ez dira aski egoera xeheatasunez ezagutzeko, eragiteko, jarraipena egiteko eta abarretarako. Hori dela eta, toki mailara hurbildu behar da, biziberritze ekintzak zein biztanleri zuzendu behar zaizkion hobeto jakiteko. Hala ere, eskura ditugun datu horiek aski dira gobernu nazionalarekin negoziazio eta hitzarmen prozesuei ekiteko, eta politika eta aginte zabalak marrazteko erakundearen barrurantz, toki mailan prozesuak indartu daitezten, bertako agintariak buru direla. Ekintza horretan, politika propioak definitu dira, baliabideak bideratu dira, lantaldeak osatu dira, eta hizkuntza erdigunean jarri da agenda politikoan eta gobernuaren jardunean, besteak beste.

Toki mailan, datu kuantitatiboak ditugu, maila desberdinetan egindako autodiagnostiko prozesuei esker. Jakin badakigu datu kuantitatiboa beharrezkoa dela batez ere plangintza eta jarraipen ondorioetarako, eta, horregatik, beharrezkoa da aldi behin horrelako azterketak egitea, metodologia mantenduz; izan ere, inkesta komunitarioaren eta pro-

pioaren prozesuak, aldi berean, aukera ematen du hizkuntzaren gaia motibatuzko, informatzeko, laguntzeko eta, oro har, dinamizatzeko komunitatean.

Era berean, ezinbestekoa da datu horien kontakizuna modu kolektiboan eta partaidetzan eraikitzea; eta tokiko egoera soziolinguistikoen kontaketa horrek komunitatean bizi den eta bizitzeko itxaropena duen hizkuntza biziberritzeko ekintza-plana gidatuko du. Hizkuntzaren egungo egoeraren eta biziberritzearen zentzuari buruzko kontakizunak soilik ahalbidetuko digu tokiko ekintza asertiboki planifikatzea eta orientatzea. Beraz, autodiagnostikoa ariketa integrala da, komunitateak bere hizkuntza galdu eta berreskuratzeko prozesuaren kontakizunetik eraikia, bere borrokan esparruan. CRICek hauxe dio bere “Memoria Kolektiboa eta Jatorrizko Hizkuntzen Politika” dokumentuan (2021ean egina erakundearen 50 urteak zirela eta):

Hizkuntzen egoerari buruzko karakterizazio soziolinguistikoa oro har alde batera utzita (...), zonako eta eskualdeko topaketen pentsamendu mingean eta tulpen eta gainerako espazioen (...) lehen helburua izan da norberaren pentsamendutik ulertzea, ibilbide historikoa aintzat hartuta, egungo egoera eta hizkuntzen inguruko lan prozesuak herrien ikuspegitik begiratuta. (CRIC 2021, 113)

Horren harira, tokiko esperientziak berrikusteak hizkuntzen biziberritzea bultzatzen du, metodoak deseraikitzen laguntzen du eta aukera eta esperientzia berriak eskaintzen ditu jatorrizko hizkuntzak berreskuratzeko, indartzeko eta garatzeko. Era berean, aurrerapen berritzaileak eskaintzen dira diagnostikorako tresnei eta metodoei, terminologia berriari, eragile berriei eta abarri dagokienez. Azkenik, hizkuntzaren indartzea testuinguru historikoan, politikoan eta ekolinguistikoan kartzeko ahaleginak berak zentzua ematen dio, herri biziez eta erresistentzian daudenez ari baikara, eta prozesu horretan autonomiaren, subiranotasunaren, batasunaren, identitatearen eta duintasunaren bide bihurtzen da hizkuntzen biziberritzea. ●

Ezinbestekoa da datu soziolinguistikoen kontakizuna modu kolektiboan eta partaidetzan eraikitzea; eta tokiko egoera soziolinguistikoren kontaketa horrek komunitatean bizi den eta bizitzeko itxaropena duen hizkuntza biziberritzeko ekintza-plana gidatuko du.

ERREFERENTZIAK

- Bodnar, Yolanda. 2013. "Estudio comparativo de la vitalidad lingüística de 14 pueblos de Colombia realizado mediante una encuesta (autodiagnóstico sociolingüístico)". *Notas de Población* aldizkaria 90: 249-293. <https://www.cepal.org/es/publicaciones/37682-notas-poblacion-vol40-ndeg-97> [Azken kontsulta 2023-12-15]
- Bodnar, Yolanda eta Miriam Viviana González G. 2014. *Informe final del estado de vitalidad del Nasa Yuwe en el territorio de Çxhab Wala Kiwe*. Argitaragabea.
- CRIC. 2009. *Informe final estudio sociolingüístico preliminar, lenguas nasa yuwe y namtrik, fase exploratoria*. Argitaragabea.
- CRIC. 2021. *Memoria Colectiva y Política de Lenguas Originarias*. CRIC 50 años. Edizioa PDF formatuan.
- Flores, José Antonio, Lorena Córdova eta Josep Cru. 2020. *Guía de Revitalización lingüística: para una gestión formada e informada*. <http://www.uabjo.mx/media/1/2020/06/GuideRevitalizacionLinguaPax-UABJO.pdf>. [Azken kontsulta 2023-12-15]
- FUNPROEIB Andes. 2009. *Atlas sociolingüístico de pueblos indígenas en América Latina*. Ekuador. Edizioa PDF formatuan.
- González G. Miriam Viviana. 2013. "Autodiagnósticos sociolingüísticos y nuevos caminos en la revitalización de las lenguas minorizadas. Mirada retrospectiva desde la experiencia propia." Maisutza tesia. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala. <https://repositorio.unal.edu.co/handle/unal/49490> [Azken kontsulta 2023-12-15]
- Hinton, Leanne, Leena Huss eta Gerald Roche. 2018. *The Routledge Handbook of Language Revitalization*. Edizioa PDF formatuan.
- Pérez Báez, Gabriela. 2018. "Iniciativas y proyectos de revitalización en Hispanoamérica". Congreso Internacional Contacto, documentación y revitalización de lenguas en desplazamiento en Hispanoamérica. Costa Rica.
- Portal Colombia. "Colombia hace parte de los 17 países megadiversos del mundo". <https://www.colombia.co/pais-colombia/hechos/colombia-hace-parte-de-los-17-paises-megadiversos-del-mundo/> [Azken kontsulta 2023-12-15]
- PPDE. 2011. Memoria documental 2006 – 2010 del PPDE. Argitaragabea.

uztaro

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

2024

UZTARO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2023. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoa markatu edo idatzi helbide elektronikoko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus

Yunešit'in komunitatearen esperientzia Nenqayni ch'ih biziberritzen: *Nexwejeni naghulchud yenedžen* (gure hizkuntza berreskuratzen ari gara)

Paula Laita Pallares*
Russell Myers Ross**

Laburpena. Nenqayni ch'i (Tšilhqot'in) hizkuntza, Kanadako Columbia Britaniarreko hizkuntza indigenen artean bizitasun maila gorena daukan arren, desagertzeko arriskuan dago. Artikulu honetan aurkezten den ikerketa kolaboratiboan metodologia indigenak (Tuhiwai Smith 1999) eta komunitatean oinarritutako metodo parte-hartzaileak (Strand et al 2003; Etmanski eta al 2014) erabili dira Yunešit'in en egoera soziolinguistikoa eta hizkuntza biziberritzeko beharrak aztertzeko. Parte hartzaileen behaketa, erdi-bideratutako solasaldiak, partekatutako zirkuluak eta dokumentuen analisia baliatu dira datuak biltzeko. Artikuluan, analisi tematikoaren emaitzak aurkezten dira: hizkuntza-transmisioa eten egin da eta hiztun kopurua gutxitzen doa. Hortaz, hiztunak sortzeko eta, aldi berean, ezagutza tradizionala transmititzeko, kulturen oinarritzen diren eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eta lurraldearekiko harremana sustatzen duten murgiltze programak eta materialak beharrezkoak dira. • *Hitz gakoak:* hizkuntzen biziberritzea, hizkuntza gutxituak, soziolinguistika, komunitatean oinarritutako ikerketa.

Abstract. Nenqayni ch'ih (Tšilhqot'in) has the highest vitality level of British Columbia, Canada, but this language is also in danger of disappearing. The collaborative research work presented in this article follows indigenous methodologies (Tuhiwai Smith 1999) and participatory and community-based research principles (Strand et al 2003; Etmanski eta al 2014) and the main goal is to analyze Yunešit'in community's sociolinguistic situation as well as identify the current needs towards Nenqayni ch'ih revitalization. Data collection methods were participant observation, semi-structured conversations, sharing circles and document analysis. In this article, results from the thematic analysis are presented: the intergenerational transmission of the language has been interrupted and the number of speakers continues decreasing every year. Therefore, in order to increase the number of speakers and simultaneously promote the transmission of the Traditional Knowledge, it is necessary to develop culturally-based immersion programs and resources that support intergenerational transmission as well as hands-on and on-the-land learning. • *Key words:* language revitalization, minorized languages, sociolinguistics, community-based research.

Sarrera-data: 2023/11/06. Ebaluazioak 2023/11/08–2023/12/18. Onartze-data 2023/12/20

Zitatzeko modu gomendatua:

Laita Pallares, Paula eta Ross Russell Myers. 2023. "Yunešit'in komunitatearen esperientzia Nenqayni ch'ih biziberritzen: *Nexwejeni naghulchud yenedžen* (gure hizkuntza berreskuratzen ari gara)". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 129, 73-96. Andoain (Gipuzkoa)
<https://doi.org/10.55714/BAT-129.4>

CC BY-SA 4.0

* Paula Laita Pallares | Soziolinguistika Klusterra | p.laita@soziolinguistika.eus | ORCID kodea: 0009-0009-1660-7070

** Russell Myers Ross | Yunešit'in Government | russnundiYl@gmail.com | ORCID kodea: 0009-0002-5997-2309

1. SARRERA

I

Gaur egun, 6.000 hizkuntza baino gehiago daude munduan; Ethnologue-ren arabera, 7.168 hizkuntza, hain zuzen ere, (Eberhard et al 2023). Dena den, oraindik ez dago adostasunik munduko hizkuntzen kopuru zehatzari buruz, hizkuntza asko dokumentatu gabe daudelako eta hizkuntza batzuen eta dialektoen arteko muga kasu batzuetan oso argi ez dagoelako (Martí et al. 2002); hala ere, zerbaitetan adostasuna badago: argia da hizkuntzak desagertzeko joera.

Dakigunez, hiztunek ez diote euren jatorrizko hizkuntza hitz egiteari nahita uzten. Kasu gehienetan arrazoiak kolonizazioarekin eta asimilaziotze prozesuekin lotuta daude (Escoriza 2021, 558). Munduan zehar ikus dezakegu fenomeno hori, eta Ipar Amerika ez da horretan salbuespena; izan ere, Kanadako hizkuntzak ez daude egoera onean. Hortaz, herri indigenak euren hizkuntzaren balioaz kontziente dira, eta horiek mantentzen eta biziberritzen ahalegintzen ari dira, lurra, subiranotasuna eta kultura aldarrikatzeko prozesuen barnean (Romaine 2015, 32).

Artikulu honetan, Kanadako Columbia Britaniarreko Yunešit'in komunitatearen esperientzia aurkeztuko dugu. Azken hamarkadan, komunitate horretan Nenqayni ch'ih (Tsilhqot'in hizkuntza) dokumentatzeko eta biziberritzeko hainbat ahalegin burutu dira, eta haien artean, ikerketa kolaboratibo bat Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU). Lan horretan, komunitatearen ustez, hizkuntzaren egoera eta horren atzean dauden arrazoiak aztertu eta biziberritze estrategiak eta behar diren baliabideak identifikatu dira. Metodologia indigenei eta partehartzaileei jarraituz, ikerketan ateratako emaitzek, ekarpen akademikoaz gain, aplikazio praktikoa ere izan dute; horrela, bada, kasu honetan, 2017an Yunešit'in Hizkuntza Batzordeak garatutako Hizkuntza Plana osatzeko erabili dira emaitzak.

Artikuluan azalduko dugun bezala, ikerlana komunitatean oinarritutako egitasmoa izan da eta, Hizkuntza Batzarraren gidaritzapean, komunitateko hainbat taldek hartu dute parte fase guztietan. Proiektuaren antolaketan, artikulu honen egileak, Yunešit'in-eko *nits'il?in* (chief-a) eta hizkuntza koordinatzailea elkarlanean aritu dira. Alde batetik, Yunešit'in-eko *nits'il?in* delakoak komunitatearen eta ikerlarien arteko zubi-lanak egin ditu, komunitatearen ikuspuntua eta mundu-ikuskerak islatuta geratzen zirela bermatzeko asmoz; besteak beste, hauek izan dira bere zereginak: ikerketa proposamena Yunešit'in-eko Gobernuan

Hiztunek ez diote euren jatorrizko hizkuntza hitz egiteari nahita uzten.

**Columbia
Britaniarra
probintziak
du Kanadako
hizkuntza
aberastasunik
handiena:
bertako
hizkuntzen %
60 han dago,
34 hizkuntza
7 hizkuntza
familiatan
banaturik.**

aurkeztea, ikerlariaren komunitatearekiko harremana sustatzen eta sendotzen laguntzea, eta ikerketa jardueri jarraipena ematea (hasierako diseinutik azkeneko emaitzen interpretaziora). Beste alde batetik, hizkuntza koordinatzailearen rola ikerlariarena eta proiektuaren koordinatzailearena izan da, baita arlo akademikoaz eta EHUrekiko loturaz arduratzearena ere.¹ Datu bilketa eta horren azterketa bere gain geratu da.

Artikulu honen atalei dagokienez, jarraian (2. atala), ikerketaren marko teorikoa zehaztuko dugu: Columbia Britaniarreko hizkuntza indigenen errealitatea eta horren arrazoiak, bertako hizkuntzak biziberritzeko ahalginak eta, hain zuzen ere, Yunešit'in komunitatea eta Nenqayni ch'ih-reno egoera. Ondoren (3. atala), ikerketa aurkeztuko dugu: ikerketa galderak, helburuak eta metodologia. Eta, azkenik, ateratako emaitzak eta horien aplikazioa laburbilduko ditugu (4. atala), baita lanaren ondorio orokorrak eta aurrera begirakoak ere (5. atala).

2. MARKO OROKORRA

I

2.1. Columbia Britaniarreko hizkuntza indigenen egoera eta gainbeheraren arrazoiak

Ikerketa hau Kanadako Columbia Britaniarreko hizkuntza aniztasunaren egoera konplexuan kokatzen da. Azken ikerketen arabera, Kanadan 70 hizkuntza indigena baino gehiago daude (Statistics Canada 2017), 12 hizkuntza familiatan sailkatuta (Cook and Flynn 2008, 319). Columbia Britaniarra probintziak du Kanadako hizkuntza aberastasunik handiena: nahiz eta probintzia horretan Kanadako hizkuntza indigenaren batean mintzo diren hiztunen % 5 bakarrik egon, bertako herri horien hizkuntzen % 60 han dago, 34 hizkuntza 7 hizkuntza familiatan banaturik (FPCC 2018): Salish, Dene, Wakashan, Tsimshianic eta Algonquian, eta bi hizkuntza bakartu, Haida eta Ktunaxa. Hizkuntzak oso desberdinak dira; bakoitzak bere dialektoak, erabilera, kultura, historia eta errealitate politikoa ditu. Dena den, hizkuntza horietako gehienak desagertzeko arriskuan daude (Ball and McIvor 2013, 27): gero eta hiztun gutxiago daude; dauden hiztunak adinekoak dira, gehienak 65 urtetik gorakoak, eta gaur egun belaunaldien arteko hizkuntzaren transmisioa eten egin da.

1 2021ean, Paula Laita Pallaresek ikerketa honetan oinarritutako doktorego tesia aurkeztu zuen EHU: <https://addi.ehu.es/handle/10810/53719>

Egoera horren arrazoi nagusienak XVIII. eta XIX. mende bukaerako kolonizazioa eta gudek eta epidemiek (baztangak, hain zuzen ere) eragindako genozidioa izan dira. Izan ere, probintzia horretako hizkuntza batzuk guztiz desagertu ziren garai hartan, nicola, tsetsaut eta pentlatch, esaterako (Ignace 2015, 10). Horrez gain, 1867ko Kanadako Konfederazioa osatu ondorengo gobernuak erabilitako asimilatze-estrategiak ondorio kaltegarriak eragin zituen. *Residential school* izeneko barnetegi sistemak 1870tik 1990ra funtzionatu zuen kultura eta hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa suntsitzeko eta desagerrarazteko helburu nagusiarekin: *to kill the Indian in the child* (umearen baitako izaera indigena erauzi) (RCAP 1996). Horretarako, familiarekin harremanetarako bideak mozten ziren (FPCC 2015, 45), umeak behartuta zeuden eskola horietara 10 hilabetez edo urte batzuetan zehar jarraian joatera (Milloy 1999), bertan tratatu txarrak eta mota guztietako abusuak jasotzeaz gain, euren hizkuntzan hitz egitea debekatua zuten, eta, erabiliz gero, zigortu egiten zituzten (Ignace 2015, 10). Bizipen horien ondorioz, ume horien autoestimua eta identitatea kaltetuta geratu ziren, eta umeak komunitateetara itzuli zirenean, eta hazten ziren heinean, lekuz kanpo sentitu ziren (RCAP 1996, 16). Askok beren hizkuntza hitz egiteari utzi zioten, eta gehienek ez zieten ondorengoei irakatsi (First Peoples' Cultural Council 2015, 45). Bestalde, XX. mendearen erdian *Indian Day School* izeneko eskolak sortu zituzten, eta umeek arratsaldean etxera itzultzeko baimena zuten arren, hezkuntza sistemaren helburu nagusia ez zen aldatu. Eskola horiek gaur egungo eskola publikoen aurrekariak dira, zeinetan oraindik ingelesa eta Mendebaldeko kulturak nagusi diren, eta hizkuntza indigenak hautazkoak baino ez dira (Ignace 2015, 10). Gainera, *1960's scoop* izeneko gertaerak ere eragin handia izan zuen hizkuntzen desagerpenean; milaka ume indigena euren komunitatetik eta familiatik atera zituzten, eta indigenak ez ziren harrera familiei eman zizkieten, non urteetan zehar euren kultura eta hizkuntza galdu zituzten (Sinclair 2007, 65; Smillie-Adjarkwa 2009, 3).

Horren ondorioz, 2008ko ekainean, Kanadako justizia berritzailearen ereduari jarraituz (Forsyth 2010, 230), *Truth and Reconciliation Commission* delako batzordea osatu zen historiaren zati horren zauria aztertze-ko (Forsyth 2010, 230), genozidio kultural eta linguistiko horren aitortze eta erreparazio prozesuaren barnean (Ignace 2015,10; Skutnabb-Kangas 2000).

Residential school izeneko barnetegi sistemak 1870tik 1990ra funtzionatu zuen kultura eta hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa suntsitzeko eta desagerrarazteko helburu nagusiarekin.

Hizkuntzak komunikatzeko tresna ez ezik, munduari begiratzeko era bat ere badira. Geure hizkuntzak gure identitate kulturala ematen digu; nor garen azaltzen digu.

2.2. Bertako hizkuntzak mantentzeko eta biziberritzeko ahaleginak

Ezaguna denez, hizkuntzak komunikatzeko tresna ez ezik, munduari begiratzeko era bat ere badira (Martí et al. 2005, 39). Gure pentsaera moldatzen dute, baita errealitatea nola ulertzen dugun eta besteekin eta gure inguruarekin nola erlazionatzen garen ere (Ignace 2015, 6; Moreno Fernández 1998, 191-193). Hizkuntzaren bitartez, herri baten historia eta belaunez belaun sortutako jakituria transmititzen dira (RCAP 1996). Hizkuntzak gure kulturarekin eta lurrarekin ere lotzen gaitu; izan ere, kontzeptu kultural batzuk ezin dira beste hizkuntza batera itzuli. Halaber, geure hizkuntzak gure identitate kulturala ematen digu (Ovide 2008, 99; Romaine 2015, 32); *nor garen* azaltzen digu, eta batu egiten gaitu, herri gisa. Horregatik, umeez jatorrizko hizkuntza ikasten dutenean, ez dira hitz egiteko kode bat ikasten soilik, euren familia, komunitate, kultura eta lurraldearekiko lotura ere bereganatzen ari dira (Battiste 2000).

Hori dela eta, gaur egun herri indigenek argi dute euren hizkuntza eta kultura mantentzea eta indartzea garrantzitsua dela eta burujabetza politikoa eta lurraldea berreskuratzeko borrokarekin uztartu dituzte prozesu horiek azken hamarkadetan (FPCC 2018k, 27). Haien ustez, hizkuntza biziberritzeko prozesua talde-lana da, eta herriek eta erakundeek elkarrekin egin behar dute lan. Kanadako gobernu federalak eta probintzialek egindako politikak eta plangintza nahiko oinarrizkoak dira horretarako. Historikoki Kanadako gobernu federalak ingelesa eta frantsesa bakarrik onartu izan ditu hizkuntza ofizialtzat. Hizkuntza indigenak ez dira legeetan aipatu izan, 1990 arte, *Canadian Heritage Languages Institute Act* izeneko legeak bertako hizkuntzak ondareztat hartu zituen arte, alegia; dena den, lege horrek etorkinen mintzairen maila berean ezartzen ditu bertako herrien jatorrizko hizkuntzak. Berriki onartutako 2019ko *Bill C-91 An Act Respecting Indigenous Languages* hizkuntza lege dekretuak ere hizkuntza indigenak onartzen ditu, baina ez die estatus ofizialik aitortzen (Ignace 2015: 17).

Gobernu probintzial batzuek, ordea, azken urteotan pauso bat aurrerago egin dute herrien hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean. Adibidez, Ipar-mendebaldeko Lurraldeak, Nunavut eta Yukon probintzietan ingelesa eta frantsesarekin batera bertako hizkuntza indigenak ere ofizialak dira (Government of Northwest Territories. 1988; Government of Nunavut 2008a; Government of Yukon 2016; Government of Nunavut

2008b) eta herritarrek eskubidea dute euren hizkuntzetan zerbitzuak jasotzeko eta umeak hizkuntza horietan eskolatzeko (Government of Nunavut 2008b). Beste probintzia batzuetan, Manitoba probintzian esaterako, bertako hizkuntza indigenak legez babesten dituzte, baina oraindik ez dituzte ofizialtzat hartzen.

Hezkuntza arloan egindako ahaleginak ere garrantzitsuak dira hizkuntzaren lehengoratzeko prozesua arrakastatsua izan dadin. Columbia Britaniarrian, adibidez, gaur egun, legez hizkuntza indigenak irakasten dira, bai eskola pribatuetan, bai publikoetan ere (Ignace 2015, 54), baina oraindik ingelesari garrantzi handiagoa ematen zaio; orokorrean, bertakoen hizkuntzak eguneroko 45 minutuko saio batean baino ez dira irakasten (FPCC 2014b, 12). Kontzientzia sortzeko balio dute, baina gehienetan ikastaro horietan ez dira hiztun berriak lortzen. Horren salbuespena Columbia Britaniarrian dauden hiru murgiltze eskolak dira, non ikasleek bertako hizkuntzetan ikasten duten (Dunlop et al. 2018, 16).

Probintzia horretan, *B.C. First Peoples' Cultural Council (FPCC)* sortu zuten 1990an, bertako herriekin elkarlanean jarduteko. Erakunde horren helburu nagusiak hurrengoak dira: jatorrizko herrien elkarteak, programak eta kultur zentroak sostengatzea; gobernu probintzialaren eta federalaren dirulaguntzak kudeatzea eta banatzea; jatorrizko herriekin lotutako gobernuen ministerioei aholkua ematea, eta Columbia Britaniarreko herriei eta hizkuntzei buruzko ikerketa lana egitea (FPCC 2018a: 1).

2.3. Nenqayni ch'ih-ren egoera eta Yunešit'in komunitatea

Tšilhqot'in herria ere ahalegintzen ari da prozesu horretan. Tšilhqot'in-ek Nenqayni ch'ih (Tšilhqot'in hizkuntza) dute mintzaera; Dene (Atabaskera) familiako hizkuntza bat da, eta Tšilhqot'in lurraldean hitz egiten da. First Peoples' Cultural Council-ek 2018an argiratutako Columbia Britaniarreko hizkuntza indigenen egoerari buruzko txostenaren arabera (FPCC 2018), Nenqayni ch'ih-k probintziako hizkuntza-bizitasun mailarik handiena erakusten du, hiztun kopuru handia ez ezik (4.352 Tšilhqot'in-en %19,9; 864 pertsona inguru), hiztun gazteak ere badituelako (FPCC 2014; FPCC 2018k, 38). Dena den, "severely endangered" (arriku larrian) kategorian kokatuta dago (FPHLCC 2010:13), eta Fishman-en *Graded Intergenerational Disruption Scale* eskalan "Stage 7 Shifting" (7. aldaketa-fasea) dago sailkatuta: etxeko transmisioa eten egin da, eta umeek ez dute aurrekoengandik hizkuntza ikasten, baina

Nenqayni ch'ih-k probintziako hizkuntza-bizitasun mailarik handiena erakusten du, hiztun kopuru handia ez ezik (4.352 Tšilhqot'in-en %19,9; 864 pertsona inguru), hiztun gazteak ere badituelako.

Ikerlari indigenen arabera, emaitza arrakastatsuak eta bidezkoak izateko, ikerketa bera ikertuak diren pertsonak kudeatu behar dute, eta prozesuaren fase guztietan parte hartu behar dute.

belaunaldiz belaunaldiko transmisioa berreskuratzea posible ikusten da aitona-amonek eta guraso batzuek Nenqayni ch'ih lehenengo hizkuntza dute eta (Fishman 1991).

Nenqayni ch'ih batez ere ahozko hizkuntza izan arren, 60ko hamarkadatik hizkuntza dokumentatzeko lehenengo ahaleginak egin ziren, eta alfabetoa sortu zen; hurrengo 20 urteetan, ortografia eta gramatika sortu ziren, eta grabaketak, transkripzioak eta itzulpenak ere egiten aritu ziren, hizkuntza ikasteko curriculumak eta baliabideak sortzeko. Gaur egun, umeei eskolan hizkuntza ikastea lortu da, eta hizkuntza irakasleak trebatzeko unibertsitateko ikastaroak eskaintzen dira. Tšilhqot'in irratia ere sortu berria dute, eta Nenqayni ch'ih-zko saio batzuk ematen dituzte.

Komunitateetan hizkuntza biziberritzeko ahaleginak egiten ari dira. Izan ere, Tšilhqot'in herria sei komunitatek osatzen dute: ?Esdilagh, Tši Del, Tl'etinqox, Tl'esqox, Xeni Gwet'in and Yunešit'in; horietako hiru azkenek batez ere hizkuntza berritzea izan dute lehentasun azken urteotan. 2015ean Yunešit'in-ek, Tl'esqox eta Xeni Gwet'in komunitateekin batera, First Peoples' Cultural Council-en bertako hizkuntzak biziberritzeko programa batean parte hartu zuen, eta Hizkuntza Batzarra sortzeaz gain, lehenengo Hizkuntza Biziberritzeko Plan Estrategikoa garatu zuen. Geroztik, hainbat hizkuntza proiektu egin dituzte, horien artean, hizkuntza irakasteko adin guztietakoentzat murgiltze programak, eta irakasleak prestatzeko, curriculumak garatzeko eta hizkuntza-erabilera sustatzeko egitasmoak.

3. IKERKETA

Aipatutako Nenqayni ch'ih biziberritzeko ahaleginen artean eta lan hori sendotzeko asmoz, 2016an, Yunešit'in-eko Gobernuak ikerta bat abiatu beharra ikusi zuen. Horretarako, Euskal Unibertsitatearekin batera, Euskal hizkuntzalaritza eta filologia doktorego programaren bitartez, ikerlan bat jorratu zuen. Ikerlari indigenen arabera (Tuhiwai Smith 1999; Graveline 2000; Henry et al. 2004; Creswell 2003; Strand et al. 2003; Brown and Strega 2005; Dickson-Swift et al. 2008; Mayan 2009; Finlay et al. 2013; King 2010; Etmanskiet al. 2014; FATSIL 2014), emaitza arrakastatsuak eta bidezkoak izateko, ikerketa bera ikertuak diren pertsonak kudeatu behar dute, eta prozesuaren fase guztietan parte hartu behar dute. Izan ere, beste hizkuntza indigenekin gertatu den bezala (Martí et al. 2005, 39), nahiz eta Tšilhqot'in hizkuntzari buruzko dokumentazio iker-

lana egin den (Krauss 1975; Cook 1978; Latimer 1978; King 1979; Cook 1983, 1987, 1989, 1993, 2005, 2013), komunitateko jendearen hizkuntzari buruzko ikuspegiak eta jarrerak ez dira inoiz jaso. Horregatik, ikerlan honek komunitateko ahotsak ditu ardatz eta komunitatean erabilgarriak izango diren emaitzak ateratzea izan du helburu nagusia. Horrez gain, lan honek Yunešit'in komunitateetako ikuspegiak arlo akademikoan txertatzeko aukera eman du, baita orokorrean hizkuntza indigenei buruzko jakintza zabaltzeko ere; betiere, komunitatearen ikuspegitik.

Ikerlan honek komunitateko ahotsak ditu ardatz eta komunitatean erabilgarriak izango diren emaitzak ateratzea izan du helburu nagusia.

3.1 Ikerketa galderak eta helburuak

Potts eta Brown ikerlari indigenek (2005, 267) azaltzen duten bezala, ikerketa prozesuak “bizirik” daude eta denboran zehar garatuz doaz; halaber, lan honen ikerketa galderak hasieratik osatuz joan dira. Ikerketa kualitatiboan ohikoa izaten den bezala (Tovar and Hidalgo 2009), lehenengo faseetan garatutako galderen bidez ikerlanaren markoa eta fokua zehaztu ditugu; dena den, lanaren ikuspegi induktiboa kontuan hartuta, galderak fintzen joan gara fase desberdinetan eta sortutako beharren arabera. Honako hauek izan dira ikerlan honetan erantzun ditugun galderak:

1. Zeintzuk dira Nenqayni ch'ih Yunešit'in-en biziberritzeko estrategiei eta baliabideei buruzko beharrak?
2. Zein da Yunešit'in komunitatean hizkuntzaren jakite-maila eta erabilera?
3. Zeintzuk dira komunitatean hizkuntzaren galeraren arrazoiak?
4. Zergatik da garrantzitsua hizkuntzaren erabilera berreskuratzea eta mantentzea?

Hortaz, Tšilhqot'in ikasteko eta hizkuntza komunitate horretan biziberritzeko estrategiak eta baliabideak identifikatzea izan da lan honen helburu nagusia. Bigarren mailako beste helburu batzuk ere garatu ditugu helburu nagusiari testuingurua emateko asmoz: Yunešit'in komunitateko kideen hizkuntzaren jakite-maila eta erabilera deskribatzea, komunitateko hizkuntza-galeraren arrazoiak ezagutzea, eta hizkuntza biziberritzearen garrantzia azaltzea.

3.2. Metodologia

Metodologia ikerketa honen elementu giltzarria izan da. Ikerketaren testuingurua izan dela eta, marko etiko osatu bat zehaztea izan da lehe-

Metodologia indigenak baliatzea erabaki dugu, lana kulturalki errespetuzkoa izateaz gain, euren kultura eta munduikuskerratik sortutakoa izateko.

nengo pausua. Horretarako, ikerlari eta erakunde indigenek garatutako proposamenei jarraitu zaie. Kanadako *Assembly of First Nations*-en arabera (“Lehen Nazioen Batzarra”, AFN ingelesezko sigletan), *lankidetz*a ezinbestekoa da (AFN, n.d.) ikerketaren prozesuan zehar eta fasez fase, proiektuaren diseinuan ez ezik, baita datu bilketarako tresnak zehazteko edota erabili diren datuak aztertzekeko estrategietan ere (Kovach 2010). Horrez gain, baimen informatuaren printzipioa (*Prior, Free and Informed Consent*) errespetatu behar da (AFN n.d.), baita herri indigenekiko integritate akademiko orokorra ere, sortutako jakintzaren zabalpenarekin eta horren jabetza intelektualarekin batera. Kontuan hartu ditugun beste alderdi garrantzitsu batzuk hauek izan dira: (CIHR, NSERC eta SSHRC 2010, 110-132):

- ikerketa-hitzarmen bat garatzea;
- komunitatearekiko konpromisoa sustatzea;
- herriaren kodeak, protokoloak, dinamikak eta egiteko erak errespetatzea;
- nagusien eta komunitate horretako beste adituen rola ikerketan aitortzea;
- bi aldeentzako onurak lortzea, ekarpen akademikoaz gain, komunitatean aplikazio praktikoa izateko aukera ere sortzea;
- komunitatean ikerketa egiteko gaitasuna garatzea, beste momentu batean antzeko ikerlana komunitateak berak jorratu ahal izateko; eta
- emaitzak herriarekin partekatzea.

Aurreko marko etikoa kontuan hartuta, metodologia indigenak baliatzea erabaki dugu, lana kulturalki errespetuzkoa izateaz gain, euren kultura eta mundu-ikuskeratik sortutakoa izateko (Tuhiwai Smith 1999; Graveline 2000; Sinclair 2003; Absolon eta Willett 2005; King 2010; Kovach 2010). Indigenen ikerketa protokoloak eta beste lan akademiko batzuk aztertu ondoren (RCAP 1996; Tuhiwai Smith 1999; Graveline 2000; Henry et al. 2002; Creswell 2003; Strand et al. 2003; Brown eta Strega 2005; Dickson-Swift et al. 2008; Mayan 2009; Finlay et al. 2013; King 2010; Etmanski et al. 2014; FATSIL 2014), elkarlaneko, partaidetzako eta komunitatean oinarritutako ikuspegia erabili dugu ikerlan honetan. Metodologia indigenen harreman- eta kolektibitate- printzipioen arabera (Tuhiwai Smith 1999; Kovach 2005, 28-31; Potts eta Brown 2005, 263; King 2010, 281; Walmark 2013, 217), beharrezkoa izan da ikerlariaren eta komunitatearen eta luraren arteko benetako harremana garatzea, komunitatea bisitatuz eta elkarren istorioak partekatuz, baita lana egi-

teko motibazioa ere. Horrek, elkarrekiko lotura bat sortzen laguntzeaz gain, ikuskera eta hizkuntzarekiko eta lurrarekiko harremanaren izaera hobeto ulertzen lagundu dio ikerlariari, eta ezagutza hori oso onuragarria izan da ikerketaren alderdi guztiak garatu eta aplikatzeko orduan.

Bestalde, ikerlan hau kasu azterketa izan da, Yunešit' in komunitatearen pertzepzioetan oinarritu delako. Laginari dagokienez, kasu honetan, ez-ausazko laginketa egin da (Mayan 2009); zorizkoa ez izatea erabaki dugu, eta aintzat hartu ditugu parte-hartzaileen gaiarekin lotutako berezitasunak eta zein ekarpen berezi edo baliagarri dituzten analisi tematikorako eta ikerketa galderei erantzuteko (Mejia Navarrete 2000, 166). Bestalde, laginketa estratifikatu ez proportzionala egin dugu, hau da, populazioa estratu edo multzoetan banatuta, multzo bakoitzak duen tamaina ez dugu kontuan hartu, ez eta multzo bakoitzetik pertsona kopuru bera hartu ere. Lagina mugatzeko, saturazio printzipioa erabili dugu, informazio berririk ateratzen ez zenean, lagina bukatutzat jo genuen (Marshall 1996). Potts-ek eta Brown-ek (2005, 269) gomendatzen duten bezala, laginaren hautaketan, pertsona batek baino gehiagok parte hartu behar dute. Kasu honetan, Yunešit' in Gobernuak eta Hizkuntza Batzar-kideek zerrenda bat proposatu zuten. Jasotako pertzepzioen irudikapena eta zilegitasuna bermatzeko (Potts and Brown 2005, 269), herriko familia guztietako kideak eta maila desberdinetako hiztunak sartu ziren proposamen horretan. Horiez gain, hainbat hizkuntza aditu, irakasle, gobernuko langile eta komunitateko *Chief and Council*-eko (gobernuko) kide batzuk aipatu ziren, euren lana ikerketa arloarekin zuzeneko lotura eta eragina dituelako. Guztira, 59 lagunek hartu dute parte. Dokumentuei dagokienez, hizkuntza proiektuekin lotutako 13 dokumentu gehi 186 material linguistiko aztertu ditugu.

Datuak sortzeko teknikei dagokienez (Mayan 2009, 66), ikerketa honetan metodo mistoa erabili dugu, datu kualitatiboak eta kuantitatiboak bildu eta aztertu baitira (Creswell 2013). Hala ere, azterketa kualitatibo nagusitu da azterketa honetan, komunitatearen pertzepzioak eta ikerketa-gaiaren azpiko arrazoiak modu sakonean ulertzeko (Barriga 2015; Mayan 2009; Silva-Corvalán 2001). *Ground theory* (teoria funtsatua) ikuspegiaren alderdi batzuk ere ageri dira, ikerketa-prozesuaren izaera induktiboa dela eta (Glaser eta Strauss 1967); aurrez garatutako marko batean datuak egokitzen saiatu beharrean, kasu honetan, ondorioak zuzenean sortu dira komunitatearen ikuspegiaren bilketa eta azterketatik, eta errealitate baten deskribapen bihurtu dira (King 2010, 271).

**Azterketa
kualitatiboa
nagusitu da
azterketa
honetan,
komunitatearen
pertzepzioak eta
ikerketa-gaiaren
azpiko arrazoiak
modu sakonean
ulertzeko.**

Kultura indigenetan, partekatutako zirkuluak esperientzia kolektiboak dira elkarri entzunda ikasteko; beraz, metodo hori egokitzat jo dugu talde-ikuspegiak biltzeko.

Ikerketa kualitatiboko irizpideak ere aplikatu ditugu (Tovar eta Hidalgo 2009, 26), baita metodoak triangelukatzea ere (Mason 2002:190). Datuak biltzeko hainbat teknika erabiltzek aukera eman du bildutako ezagutzak hainbat angelu anitzetatik behatzeko eta aztergai izan den egoeraren irudi osatuagoa aurkezteko. Datuak biltzeko metodoak hauek izan dira: behaketa-metodo parte-hartzailea, erdi-bideratutako solasaldiak, partekatutako zirkuluak, dokumentuen azterketa

- a) Behaketa-metodo parte-hartzailea hasierako faseetan erabili dugu, batez ere azterlan honen testuingurua sortzeko. Ikerlaria ikerketan zuzen-zuzenean inplikatzek, komunitateko kideak bisitatuz, ekitaldietan parte hartuz, eskolan boluntario gisa lan eginez eta komunitatearen bizitzaren parte izanez, azterketaren errealitatea hobeto ulertzen lagundu du (Campoy eta Gómez Araújo 2015). Hala ere, metodo horrekin jasotako oharrek ez dira ondorengo azterketan erabili, emaitzak komunitatearen ikuspegi jasotzea helburu nagusi duelako ikerketak.
- b) Erdi-bideratutako solasaldiena izan da ezagutzak biltzeko metodo nagusia. Thomas (2005) eta Bessarab (2008) aditu indigenen arabera, solasaldiaren bidezko kontaketa da indigenen ezagutzara hurbiltzeko teknirik egokiena, tradizionalki ezagutza transmititzeko era hori izan delako (King 2010; Bishop 1999) eta solasaldian parte hartzen dutenen arteko harremana sendotzen duelako (Kovach 2010, 43). Metodo horrek erosotasun-maila handiagoa ematen die parte-hartzaileei, euren ezagutza zer, nola eta zenbateraino partekatzen duten kontrolatzen baitute. Ikerketa honetarako guztira 23 solasaldi antolatu dira.
- c) Partekatutako zirkuluak batez ere gazteen ikuspegiak biltzeko erabili dira, erosotasun-maila handitzeko, eskolan era horretan aritzen ohitura baitute. Kultura indigenetan, partekatutako zirkuluak esperientzia kolektiboak dira elkarri entzunda ikasteko (Lavallée 2009); beraz, metodo hori egokitzat jo dugu talde-ikuspegiak biltzeko. Yunešit'in-eko eskolan zirkulu bat egin da, artearen bidezko hausnarketa-metodoak lagunduta (Lavallée 2009, 30): parte-hartzaileek gaiaren inguruan zituzten ideien adierazpen bisuala sustatu da, ondoren, haien esanahia zirkuluan partekatzeko.
- d) Azkenik, dokumentuen azterketa ere jorratu da. Metodo horrek azterketa kualitatiboetako testuinguru sendoa ematen die. Doku-

mentuak denboran zehar gertatutakoaren erregistro baliotsua dirak (Bowen 2009, 31); horrez gain, azterketa egiteko tarte txikiagoa eskatzen du, eta ez da oso modu intrusiboa datuak biltzeko (Mayan 2009, 82). Ikerketa honetarako, hizkuntza proiektuekin lotutako bileren agiriak eta beste dokumentu batzuk analizatu dira. Halaber, Yunešit'in-eko eskolan aurkitu diren material linguistikoaren inbentarioa ere egin da, eskura zeuden hizkuntza-baliabideei buruzko datuak erregistratzeko.

Datu kualitatiboak aztertzeko, gai-azterketa induktiboa egitea erabaki dugu (Patton eta Cochran 2002; Thomas 2006). NVIVO programaren bitartez, datuetatik sortzen ziren patroiak behatzeko eta kodeak eta kategoriak identifikatzeko, datuak azterlanaren hainbat alderdi interpretatzen dituzten funtsezko gai edo ideiak osatu ditugu, datuetatik sortzen ziren patroiak behatzeko eta kodeak eta kategoriak identifikatzeko (Boyatzis 1998). Ikerketa-galderek eta lan honetan helburuek goi-mailako kategoria orokorragoak garatzen lagundu dute; azterketan ateratako gaiak (edo kode zehatzagoak), ordea, datu gordinen irakurketatik sortu dira (Thomas 2006), eta ez alde zuzenetik garatutako eredu batetik.

4. EMAITZAK

I

Datuen analititik, guztira 121 gai (kode) atera dira, eta, ikerketaren helburu kontuan hartuta, bost kategoria orokorretan antolatu ditugu: (1) hizkuntzaren jakite-maila, (2) hizkuntzaren erabilera; (3) hizkuntzaren balioa; (4) hizkuntza irakasteko/ikasteko estrategiak (4); eta (5) hizkuntza-baliabideak.

Aipatutako kategoria orokor horiek eta analisisian ateratako kodeak ikerketaren galderak eta hipotesiak aztertzeko erabili ditugu. Ondoren, emaitzen laburpena egin dugu; lehenengoz, galdera osagarriak erantzun ditugu, ondorengo galdera nagusiari testuingurua emateko. Jarraian emaitzen irakurketa eskaini dugu.

- **Zein da Yunešit'in komunitatean hizkuntzaren jakite-maila eta erabilera?** (2. ikerketa-galderari erantzuteko, 1. eta 2. kategoria orokorretan sartutako gaiak erabili dira)

Yunešit'in komunitateko kideen arabera, Tšilhqot'in hizkuntzaren jakite-maila eta erabilera aldatu egiten da belaunaldi bakoitzean. Komuni-

Komunitateko 45 urtetik gorako kideek hitz egiten dute hizkuntzan, familiarekin eta etxean ikasi dute, jarduera kulturalak egiten zituzten bitartean, eta hizkuntza maiz erabiltzen dute.

Kolonialismoak eta asimilatze-praktikek, hala nola Residential School sistemak (barnetegiek), zuzeneko eragina izan dute komunitateko kideek hizkuntzarekin duten harremanean, eta harekin lotutako trauma eragin diete.

tateko 45 urtetik gorako kideek hitz egiten dute hizkuntzan, familiarekin eta etxean ikasi dute, jarduera kulturalak egiten zituzten bitartean, eta hizkuntza maiz erabiltzen dute. 30 urtetik 45era bitartekoak hiztun hartzaileak dira, eta neurri batean ulertzen dute hizkuntza; familiarekin etxean eta irakasleekin eskolan ikasi dute, eta adinekoekin komunikatzeko erabiltzen dute hizkuntza. 30 urtetik beherakoek hizkuntzaren oinarri-oinarrizko jakite-maila dute; nahiz eta etxean zerbait jaso, batez ere eskolan ikasi dute; ez dute Tsilhqot'in-ez hitz egiten, baina zerbait ulertzen dute. Belaunaldi gazteenek gaur egun ere ikasten dute hizkuntza, batez ere eskolan edo aitona-amonengandik, eta oso gutxitan hitz egiten dute hizkuntza-programetatik kanpo.

Hizkuntza familiarekin, adinekoekin eta beste hiztunekin komunikatzeko erabiltzen da, baita pertsonak eta leku tradizionalak izendatzeko eta otoitz egiteko ere. Hizkuntza txantxetarako ere erabiltzen da, eta hizkuntza menderatzen ez dutenek ez ulertzeko. Batzuetan, hiztunek Nenqayni ch'ih eta ingelesa nahasten dituzte; batez ere ingelesa erabiltzen dute zenbaki altuak edo kontzeptu "berriak" aipatzeko edo haserrea eta frustrazioa azaltzeko. Nenqayni ch'ih etxean eta familia arloan erabiltzen da, baita komunitateko espazio publikoetan, ekitaldietan eta bileretan ere.

- **Zeintzuk dira komunitatean hizkuntzaren galeraren arrazoiak?** (3. ikerketa-galderari erantzuteko, 2. kategoria orokorrean sartutako gaiak erabili dira)

Tsilhqot'in hizkuntzaren galera azaltzen duten hainbat arrazoi daude. Kolonialismoak eta asimilatze-praktikek, hala nola *Residential School* sistemak (barnetegiek), zuzeneko eragina izan dute komunitateko kideek hizkuntzarekin duten harremanean, eta harekin lotutako trauma eragin diete. *Foster care* sisteman (harrera-familietan) hazitako komunitateko kideek ere ez dute euren hizkuntza eta kulturarekiko lotura bereganatu; eta gaur egungo hezkuntza-sistemak belaunaldi gazteenei ere eragin die identitatean eta, ondorioz, hizkuntzaren jakite mailan. Komunitateko kideek kolonizazio- eta asimilazio-praktiken ondorioak jasaten jarraitzen dute, eta iraganeko eta oraingo jokabide arrazistek eragindako traumak eragiten dute hizkuntzaren erabileran.

Bestalde, komunitateko kideak geografikoki sakabanatuta egoteak eta komunitateko bizimoduan dauden aldaketek ere eragina izan dute hizkuntzaren erabileran. Kasu askotan, familiek ez dituzte oinarrizko

beharrak beteta, eta hizkuntza ez da lehenetasun bihurtzen. Batzuetan, komunitateko kideak hizkuntza erabiltzean akatsak egiteko beldur dira. Ingelesa gailentzen da hizkuntza nagusi gisa, eta kontzeptu “berrietarako” hiztegiarik ez dago.

Ondorioz, hiztunen kopuruak behera egiten jarraitzen du. Hizkuntzaren etorkizuna zalantzazkoa bada ere, parte hartu duten komunitateko kide gehienak baikorrak dira hizkuntzaren erabilera berreskuratzeari dagokionez. Horretarako, haien ustez, hizkuntzaren erabilera sustatzeko estrategiak aplikatu behar dira. Gobernuak eremu publikoetan hizkuntzaren erabilera sustatzen duten hizkuntza-politikak garatu behar ditu, eta Tšilhqot'in-ez hitz egiteko denbora eta espazio espezifikoko bermatu behar ditu. Dena den, haientzat, hiztunek dute “giltza”; hizkuntzan hitz egiteko erantzukizuna hartu behar dute berriro, eta hizkuntza erabili egin behar dute.

- **Zergatik da garrantzitsua hizkuntzaren erabilera berreskuratzea eta mantentzea?** (4. ikerketa-galderari erantzuteko, 2. eta 3. kategoria orokorrean sartutako gaiak erabili dira)

Komunitateko kideen ustez, hizkuntzaren erabilera berreskuratzea eta mantentzea oso garrantzitsua da hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, gaur egun hitzun gutxi geratzen dira, eta etorkizuneko belaunaldiei transmititu behar zaie. Gainera, geratzen diren hitzun horietako batzuek ez dute ingelesa menderatzen; beraz, hizkuntzak eguneroko komunikaziorako beharrezkoa izaten jarraitzen du. Hizkuntza ikastea eta hitz egitea ere hitzunei errespetua adierazteko modu bat da.

Bestalde, hiztunen ustez, errazagoa da sentimenduak Nenqayni ch'ihi-n adieraztea eta hizkuntzaz hitz egiteak norberaren “mundua” edo “errealitatea” adierazten laguntzen du. Hizkuntzak ere zorientasun-maila handitzen du, osasunarekin, ongizatearekin eta espiritualtasunarekin lotzen baitute. Familiarekiko eta arbasoekiko zubia ere bada, baita Tšilhqot'in herriaren sorkundearekiko lotura ere; hortaz, ohorea da hizkuntzaren jabe izatea. Komunitateko kideek hizkuntza erabiltzeko eskubidea dutela badakite; libre egiten dituela sentitzen dute, eta herri gisa ahaldundu egiten dituela. Hizkuntzak belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutza biltzen du, eta lurrarekin eta kulturarekin lotzen ditu; euren nortasunaren parte funtsezkoa da. Komunitateko kideek uste dute hizkuntza erabiltzeari utziko baliote, hizkuntzarekin batera, euren kultura betiko galduko litzatekeela.

Hizkuntzak belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutza biltzen du, eta lurrarekin eta kulturarekin lotzen ditu; euren nortasunaren parte funtsezkoa da.

Hiztunen kopurua eta hizkuntzaren jakite-maila handitzeko hizkuntzan murgiltzeko programak garatzea eta txertatzea beharrezkoa da.

- **Zeintzuk dira Nenqayni ch'ih Yunešit'in-en biziberritzeko estrategiei eta baliabideei buruzko beharrak?** (1. ikerketa galderari erantzuteko, 4. eta 5. kategoria orokorretan sartutako gaiak erabili dira)

Lehenik, komunitateko kideen arabera, hiztunen kopurua eta hizkuntzaren jakite-maila handitzeko hizkuntzan murgiltzeko programak garatzea eta txertatzea beharrezkoa da. Hizkuntzak irakasteko metodoak zaharkituta daude, eta hizkuntza-murgiltzeko estrategiak aplikatu beharko lirateke, hizkuntza bat ikasteko edo berreskuratzeke ikuspegi-rik arrakastatsuen eta modurik eraginkorrena dela frogatu baita. Oro har, hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko denbora gehiago ziurtatu beharko litzateke; eta nahiz eta nagusiki ahozko hizkuntza gisa erabiltzen den, ahozkoan eta entzutezkoan trebatzeaz gain, programek irakurketa eta idazketa gaitasunak ere garatu behar dituzte.

Bigarrenik, hizkuntza-programek belaunaldien arteko transmisioa sustatu behar dute. Adin guztietakoek, gazteek, gurasoek zein adinekoek, hizkuntza biziberritzeko prozesuan parte hartzea beharrezkoa da. Horrez gain, hizkuntza biziberritzeko ahaleginak belaunaldi gazteenetan zentratu behar dira batez ere. Hizkuntzaren ikaskuntza adin txikietan hasi beharko litzateke, baita haurdunaldian ere, haurrak jaio baino lehen. Horrela, gurasoek euren haurrekiko harremana hizkuntzan garatuko lukete hasieratik. Gaur egun, traumarekin lotutako oztopo emozionalen ondorioz, hizkuntza ez da belaunaldiz belaunaldi transmititzen. Aitona-amonek bilobei batzuetan hitz egin diete, baina gurasoek ez. Horregatik, komunitateko kideen ustez, hizkuntza-programek etxean eta familia arloan ikasten lagundu behar dute, hizkuntza etorkizuneko belaunaldiei transmiti diezaioten. Programetan familiek parte hartu behar dute, gurasoek ere hizkuntza ikas dezaten, seme-alaben ikaskuntza-prozesuan behar bezala lagundu dezaten.

Hirugarrenik, hizkuntza klasetik kanpo eta *on the land* (naturan) irakasteko/ikasteko estrategia berriak garatzea eta aplikatzea beharrezkoa da. Tšilhqot'in herriak lotura estua du lurrarekin eta horren zaintzailatzat du bere burua. Beraz, hizkuntza-programak ikaskuntza praktikoan eta aktiboan eta jarduera kulturaletan oinarritu behar dira, lurrarekiko harremana sendotzeko eta ezagutza tradizionalaren transmisioa errazteko.

Azkenik, Tšilhqot'in mundu-ikuskeran oinarritutako hizkuntza-programak eta materialak garatzea beharrezkoa da, hizkuntzaren ikaskuntza bultzatzeko, eta, aldi berean, ezagutza tradizionala eskuratzeko. Adi-

nekoak eta adituak grabatu behar dira ezagutza tradizionala zaintzeko, besteak beste, kantak, sendabelarrak eta historia eta leku tradizionalari buruzko ezagutza.

Komunitatean hizkuntza-baliabide ugari daude: adibidez, hiztegiak, hitz-zerrendak, kantuak eta ipuin tradizionalen grabazioak. Baliabide asko etxeetan daude, eta material horien erabilera familiara mugatzen da. Hortaz, hizkuntza-baliabideen biltegi bat sortu behar da, hizkuntza-materialak eskuratzeko; eta horrekin batera, erabiltzeko eta partekatzeko politikak garatu behar dira.

Oro har, komunitateko kideek uste dute dauden hizkuntza-baliabideak bildu, antolatu eta eguneratu egin behar direla uste dute. Ikerketa honetan egindako inbentarioaren arabera, material ugari dago eskolan, eta material hori eguneratu beharra dago. Aurkitutako baliabideen artean honako hauek daude: haurrentzako ipuin-liburuak (% 38), batez ere bertakoak ez diren egileek ingelesez idatzitako ipuinak, eta Nenqayni ch'ih-ra itzuliak; haurrentzako materialak (% 37), gehienak 1980tik 2016ra bitartekoak eta Tšihqot'in-ek sortutakoak; eta jarduera kulturei buruzko materialak (% 13), gehienak komunitateko kideek idatzitakoak, besteak beste. Hizkuntzari dagokionez, bitarteko gehienak (% 60) Nenqayni ch'ih-z idatzita daude, nahiz eta ingelesezko testuren bat agertu; beste batzuk Nenqayni ch'ih-z bakarrik idatzita daude (20 artikulua, % 11); eta beste batzuk ingelesezkoak dira, edo Nenqayni ch'ih-zko hitzen batzuk agertzen dira. Egilearen jatorriari dagokionez, materialen ia erdia bertako egileek sortu dute (% 40), eta beste erdia bertakoak ez direnek (% 40); beste % 20an, egilea ez da zehazten.

Behin emaitzak aurkeztuta, azpimarratu behar da, lehen aipatu dugun bezala (3.2), lan honen metodologiaren eta etikaren arabera, ikerketa honek bi aldeentzako onurak ekarri dituela (CIHR, NSERC eta SSHRC 2010: 110-132); ekarpen akademikoaz gain, komunitatean aplikazio praktiko bat ere izan du, eta ikerketa-prozesua, emaitzak eta ondoriozko argitalpena komunitatearentzat ere erabilgarria izan dira, bereziki Yunešit'in-en egiten ari diren hizkuntza biziberritzeko ahaleginak sustatzeko (FATSIL 2014:16). Kasu honetan, aurkeztu diren emaitzak *Hizkuntza Biziberritzeko Plan Estrategikoa* (2017) osatzeko erabili dira. Helburu horretarako, plan horretan agertzen diren estrategiak osatzeko egokiak izan daitezkeen emaitza espezifikoak identifikatu dira, eta, emaitzen eskuratzearekin batera, komunitateko kideen pertzepzioekin osatutako proposamen bat prestatu da.

**Aurkeztu
diren emaitzak
Hizkuntza
Biziberritzeko
Plan Estrategikoa
(2017) osatzeko
erabili dira.**

[Nenqayni ch'ih biziberritzea] prozesu kolektiboa izanda, estrategiak ere modu kolektiboan garatu behar dira, eta, prozesuaren emaitza onak bermatzeko, ahaleginak batu egin behar dira eta hitz egiteko edo ikasteko konpromisoa komunitate osoak hartu behar du.

5. ONDORIO OROKORRAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Bukatzeko, ikerketa honetan atera ditugun beste ondorio orokor batzuk laburbiltzen ditugu ondoren.

1. Nenqayni ch'ih komunikatzeko tresna bat baino gehiago da. Ez da kode hutsa, Tšilhqot'in kulturaren emaitza da. Hitzunen pentsamendua moldatzen du, eta "betaurreko" berezi batzuk ematen dizkie errealitatea ikusteko. Hizkuntzak herrikide egiten ditu, eta identitatearekiko, kulturarekiko, lurrarekiko, arbasoekiko eta familiarekiko lotura da, baita norberaren osasunaren eta ongizatearen osagai garrantzitsua ere. Hortaz, hizkuntzaren biziberritzea kultura eta herriaren identitatea ere berreskuratze bidea da.
2. Yunešit'in komunitateko kideek Nenqayni ch'ih biziberritzea Tšilhqot'in kultura eta identitatea biziberritzeko prozesu zabalago baten barruan kokatzen dute, eta, partekatutako erantzukizun gisa, maila guztietan sustatu behar den zerbait dela uste dute: norberarengandik hasita, familian, komunitatean eta herri mailan landu behar da. Prozesu kolektiboa izanda, estrategiak ere modu kolektiboan garatu behar dira, eta, prozesuaren emaitza onak bermatzeko, ahaleginak batu egin behar dira eta hitz egiteko edo ikasteko konpromisoa komunitate osoak hartu behar du (Yamamoto 1998; Walsh 2010, 30). Hortaz, erakundeen babes garrantzitsua izan arren, herriak eta pertsonak izan behar dute motorra.
3. Hala ere, hizkuntzak biziberritzeko prozesuak konplexuak dira, eta norbanakoaren hizkuntza biografia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoak kontuan hartu behar dira. Halaber, etengabe aztertu eta egokitu behar dira, herrien errealitatea, gizartea eta egoera soziolinguistikoa etengabe aldatuz doazelako.
4. Tšilhqot'in hiztunek ez diote euren ama-hizkuntza hitz egiteari nahita utzi. Hizkuntzaren galera esperientzia traumatikoekin lotuta dago, eta prozesu kolonizatzaile eta asimilatzekeko estrategien emaitza da. Hortaz, hizkuntza biziberritzeko estrategien artean aitortzari eta erreparazioari garrantzia eman behar zaie, herriak hizkuntzarekin lotutako trauma sendatzeko eta hizkuntza berriz ere harrotasunez hitz egiteko.
5. Horrez gain, uste dute onuragarria dela prozesu berean ahalegintzen

ari diren beste komunitate batzuekin aliantzak eta sareak sortzea (Walsh 2010, 31), ez bakarrik elkarrengandik ikasteko, baita arrakastak ospatzeko eta esperientziak partekatzeko ere. Azpiegiturak eta hizkuntza-politikak garatzen, terminologia berria eta curriculum-eta hizkuntza-baliabideak sortzen ere lagun dezake elkarlan horrek (King 2010, 599). Halaber, unibertsitate, ikerketa-zentro eta beste erakunde batzuekin aritzea ere baliagarria izan daiteke (Walsh 2010, 29; Al-Munawwarah 2019, 251), lankidetzak-akordio argiak sinatzen badi-ra, komunitateen beharretan oinarritutakoak (Walsh 2010, 28).

6. Nenqayni ch'i'ih Columbia Britainiarreko hizkuntza-bizitasunik handiena duen arren, oraindik galtzeko arriskuan dago, eta hizkuntza biziberritzeko lanean jarraitu behar da komunitateetan hizkuntza erabilera berreskuratuzko. Aurrera begirakoei dagokienez, interesgarria izango litzateke antzeko ikerketaren bat egitea beste komunitate Tšilhqot'in batzuetan ere; nahiz eta sei komunitateek hizkuntza partekatzen duten, zenbait aldaera daude, eta komunitate bakoitzak dituen azpiegiturak eta baliabideak ere desberdinak dira; beraz, komunitateko kideek behar linguistikoei eta biziberritzeko estrategiei buruzko ikuspuntu desberdinak eduki ditzakete, hein batean. Horrez gain, herri mailan antzeko azterketa bat egitea ere onuragarria izan liteke hizkuntza-komunitate osoaren ikuspegiak hobeto ulertzeko, eta irakaspenak herriaren hizkuntza-politika eta plangintzarako estrategietan aplikatzeko.

Hondarreko hausnarketa gisa, interesgarria izan daiteke biziberritze prozesu hau Columbia Britainiarreko, Kanadako eta munduko beste hizkuntza gutxitu batzuen esperientziekin konparatzea eta antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzea. Horrek, nabarmen lagun dezake aztergai den komunitatearen beste alderdi batzuk ulertzen. Hala ere, hizkuntza biziberritzea kultura biziberritzeko prozesu zabalagoaren parte bat dela kontuan hartuta (Wilson eta Kaman, 2009), esperientzia bakoitza bertako komunitatean soilik aplikatu daiteke. Prozesua arrakastatsua izan dadin nahi badugu, hizkuntza biziberritzeko lana komunitateak egina izan behar du beti, komunitateak gidatutakoa eta euren mundu-ikuskeran oinarritutakoa (Pihama et al. 2004, 13; Rewi eta Rewi 2015, 150; Al-Munawwarah 2019, 254). ●

Prozesua arrakastatsua izan dadin nahi badugu, hizkuntza biziberritzeko lana komunitateak egina izan behar du beti, komunitateak gidatutakoa eta euren munduikuskeran oinarritutakoa.

BIBLIOGRAFIA

- Absolon, Kathy eta Willett, Cam. 2005. "Putting ourselves forward: Location in Aboriginal Research". In Brown, Leslie eta Strega, Susan. *Research as Resistance Critical, Indigenous, and Anti-Oppressive Approaches*. Toronto: Canadian Scholars' Press.
- Al-Munawwarah, Sophia Fithri. 2019. "An Overview of Indigenous Language Programs in Australian and New Zealand", *Advances in Social Science, Education and Humanities Research* (11th Conference on Applied Linguistics/CONAPLIN 2018), 250-254.
- Assembly of First Nations (AFN). n.d. *First Nations Ethics Guide on Research and Aboriginal Traditional Knowledge*. Ottawa: Assembly of First Nations
- Ball, Jessica eta McIvor, Onowa O. 2013. "Canada's big chill: Indigenous languages in education". In: Benson, Carol eta Kosonen, Kimmo (ed.), *Language Issues in Comparative Education: Inclusive teaching and learning in non-dominant languages and cultures*. Boston: Sense Publishers, 19-38.
- Barriga, Holger Raúl. 2015. «Las Hipótesis de Investigación Cuantitativas y Cualitativas en las Ciencias Sociales», *FENopina*, 79.
- Bessarab, D. 2008. "Yarning about different types of yarning in the doing of Indigenous Research". In *4th International Congress of Qualitative Inquiry* (Illinois, May 14-17, 2008).
- Bishop, Russell. 1999. "Collaborative storytelling: Meeting Indigenous people's desires for self-determination". In *World Indigenous People's Conference* (Albuquerque, June 15-22, 1999), 15-22.
- Bowen, Glenn A. 2009. "Document Analysis as a Qualitative Research Method", *Qualitative Research Journal*, 9(2), 27-40.
- Boyatzis, Richard. E. 1998. *Transforming Qualitative Information: Thematic Analysis and Code Development*. Sage: Cleveland.
- Brown, Leslie and Strega, Susan S. 2005. *Research As Resistance Critical, Indigenous, and Anti-Oppressive Approaches*. Toronto: Canadian Scholars' Press.
- Campoy Aranda, Tomás J. eta Gómez Araújo, Elda. 2015. "Técnicas e instrumentos cualitativos de recogida de datos". In Pantoja, Antonio. (ed.) *Manual básico para la realización de tesinas, tesis y trabajos de investigación*. Madrid, 273-300.
- Canadian Institutes of Health Research (CIHR), Natural Sciences and Engineering Research Council of Canada (NSERC), and Social Sciences and Humanities Research Council of Canada (SSHRC). 2010. *Tri-Council Policy Statement: Ethical Conduct for Research Involving Humans*. Ottawa: Government of Canada.

- Consolidation of Official Languages Act [S.Nu. 2008,c.10]. Iqaluit: Government of Nunavut
- Cook, Eung-Do eta Flynn, Darin. 2008. *Aboriginal Languages of Canada*. Toronto: Pearson Longman.
- Cook, Eung-Do. 1978. "Flattening and rounding in Chilcotin velars". In Efrat, Barbara, S. (ed.), *The Victoria Conference on Northwestern Languages*. Victoria: British Columbia Provincial Museum, 15-32.
- Cook, Eung-Do. 1983. "Chilcotin flattening", *Canadian Journal of Linguistics*, 28, 123-32.
- Cook, Eung-Do. 1987. "An autosegmental analysis of Chilcotin flattening.". In Bosh, Anna, Need, Barbara eta Schilleret, Eric. *Papers from the 23rd annual regional Meeting of the Chicago Linguistic Society. Part Two: Parasession on autosegmental and Metrical Phonology*. Chicago: Chicago Linguistic Society, 51-65.
- Cook, Eung-Do. 1989. "Chilcotin tone and verb paradigms". In Cook, Eung-Do eta Rice, Keren, D (ed.) *Athapaskan Linguistics: Current Perspectives on a Language Family*. New York: De Gruyter Mouton, 145-198.
- Cook, Eung-Do. 1993. "Chilcotin flattening and autosegmental phonology", *Lingua*, 91: 149-74.
- Cook, Eung-Do. 2005. "A linguistic introduction to Tsilhqút'in (Chilcotin)" (unpublished).
- Cook, Eung-Do. 2013. *A Tsilhqút'in Grammar*. Vancouver: UBC Press.
- Creswell, John Ward. 2003. *Research Design Qualitative, Quantitative, and Mixed Methods Approaches*. Thousand Oaks: SAGE Publications.
- Dickson-Swift, Virginia, James, Erica L. eta Liamputtong, Pranee. 2008. *Undertaking Sensitive Research in the Health and Social Sciences. Managing Boundaries, Emotions and Risks*. New York: Cambridge University Press.
- Dunlop, Brrit, Gessner, Suzan, Herbert, Tracey, Parker, Aliana, eta Wadsworth, Alex. 2018. *Report on the status of B.C. First Nations languages* (3rd ed.). Brentwood Bay: First Peoples' Cultural Council.
- Eberhard, David M., Simons, Gary F. eta Fennig, Charles D. (ed.). 2023. *Ethnologue: Languages of the World*. Twenty-sixth edition. Dallas, Texas: SIL International.
- Etmanski, Catherine, Hall, Budd L. eta Dawson, Teresa. 2014. *Learning and Teaching Community-Based Research. Linking Pedagogy to Practice*. Toronto: University of Toronto Press.
- Ezcoriza Morera, Luis. 2021. "Planificación lingüística y desarrollo de lenguas minoritarias", *RILCE* 37/2, 547-66.
- Federal of Aboriginal and Torres Strait Islander Corporation (FATSIL) 2014. *Guide to Community Protocols for Indigenous Language Projects*. Australia: Graphic Art.

- Finlay, Judy, Nagy, Anna eta Gray-McKay, Connie. 2013. "Searching Together: A Model for Community-Driven Research in Remote First Nations". In White, Jerry. P., Peters, Julie, eta Beavon, Dan (eds) *Aboriginal Policy Research Series: Voting, Governance, and Research Methodology*, 10. Toronto: Thompson Educational Publishing, 259-268.
- First Peoples' Cultural Council (FPCC). 2014. *Report on the Status of B.C. First Nation Languages*. Brentwood Bay: First Peoples' Cultural Council.
- First Peoples' Cultural Council (FPCC). 2015. *Proceedings of the Cultural Protocols and the Arts Forum* (Penticton, March 3-4, 2014). Brentwood Bay: First Peoples' Cultural Council.
- First Peoples' Cultural Council (FPCC). 2018a. "Language Diversity in B.C.", *Fact Series*, 1. Brentwood Bay: First Peoples' Cultural Council.
- First Peoples' Cultural Council (FPCC). 2018b. *Report on the Status of B.C. First Nation Languages* (3. ed.). Brentwood Bay: First Peoples' Cultural Council.
- First Peoples' Heritage, Language and Culture Council (FPHLCC). 2010. *Report on the Status of B.C. First Nation Languages*. Brentwood Bay: First Peoples' Cultural Council.
- Fishman, Joshua. 1991. *Reversing the language shift*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Forsyth, Alex. 2010. "Acknowledging Settler Responsibility", *Undergraduate Transitional Justice Review*, 1(3) 3, 228-244.
- Glaser, Barney G. eta Strauss, Anselm L. 1967. *The discovery of grounded theory: Strategies for qualitative research*. Chicago: Aldine.
- Graveline, Fyre Jean. 2000. "Circle as Methodology: Enacting an Aboriginal Paradigm". *Qualitative Studies in Education*, 200(13), 4, 361-367. Manitoba: Brandon University.
- Henry, John H., Dunbar, Terry, Arnott, Allan, Scrimgeour, Margaret eta Murakami-Gold, Lorna. 2004. *Indigenous Research Reform Agenda. A Review of Literature*. Links Monograph Series 5. Canberra: Cooperative Research Centre for Aboriginal & Topical Health.
- Ignace, Marianne. 2015. *British Columbia Kindergarten: 12 First Nations Languages Curriculum Building Guide*. Vancouver: FNESEC.
- King, Jennifer. 2010. "Sisters in Spirit Research Framework: Reflecting on Methodology and Process", *Aboriginal Policy Research*, 10, 269-285.
- King, Quindel. 1979. "Chilcotin phonology and vocabulary". In Hamp Eric, Howren, Robert, King, Quindel, Lowery, Brenda M. *Contributions to Canadian Linguistics*. Ottawa: University of Ottawa Press, 41-66.
- Kovach, Margaret. 2005. "Emerging from the margins: Indigenous methodologies", in Brown, Lestie eta Strega, Susan (ed.) 2005. *Research As Resistance Critical, Indigenous, and Anti-Oppressive Approaches*. Toronto:

- Canadian Scholars' Press, 19-36.
- Kovach, Margaret. 2010 "Conversational Method in Indigenous Research", in *First Peoples Child & Family Review*, Volume 5, Number 1, 40-48.
- Kraus, Michel E. 1975. "Chilcotin phonology: a descriptive and historical report with recommendations for a Chilcotin orthography" (unpublished).
- Latimer, Richard Murray. 1978. "A study of Chilcotin phonology" (Master's dissertation), University of Calgary.
- Lavallée, L. F. 2009. "Practical Application of an Indigenous Research Framework and Two Qualitative Indigenous Research Methods: Sharing Circles and Anishnaabe Symbol-Based Reflection". *International Journal of Qualitative Methods*, 8(1), 21-40.
- Marshall, Martin N. 1996. "Sampling for qualitative research", *Family Practice* 13, 522-525.
- Martí, Félix, Ortega, Paul, Amorrortu, Esti, Barreña, Andoni, Idiazabal, Itziar, Juaristi, Patxi, Junyent, Carme eta Uranga, Belen. 2005. *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- Mason, Jennifer. 2002. *Qualitative Researching*. London: Sage Publications.
- Mayan, Maria J. 2009. *Essentials on Qualitative Inquiry*. Walnut Creek: Left Coast Inc.
- Mejía Navarrete, Julio. 2000. "El muestreo en la investigación cualitativa", *Investigaciones sociales*, 4(5), 165-180.
- Milloy, John S. 1999. *A national crime: The Canadian government and the residential*. Manitoba: University of Manitoba Press.
- Moreno Fernández, Francisco. 1998. *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*. Barcelona: Ariel.
- Ovide, Evaristo. 2008. "Las TIC y las culturas minoritarias en un mundo global", *Teoría de la educación. Educación y Cultura en la Sociedad de la Comunicación*, 9(2), 95-113.
- Patton, Michael Quinn eta Cochran, Michel. 2002. *A Guide to Using Qualitative Research Methodology*. London: Médecins Sans Frontiers.
- Pihama, Leonie, Smith, Kaapua, Taki, Mereana eta Lee, Jenny. 2004. *A Literature Review on Kaupapa Maori and Maori Pedagogy*. Auckland: International Research Institute for Maori and Indigenous Education.
- Potts, Karen L. eta Brown, Leslie. 2005. "Becoming an anti-oppressive researcher". In Brown, Leslie eta Strega, Susan. (ed.) *Research As Resistance Critical, Indigenous, and Anti-Oppressive Approaches*. Toronto: Canadian Scholars' Press, 255-286.
- Rewi, Tangiwai eta Rewi, Poia. 2015. "The ZePA Model of Māori Language Revitalization: Key Considerations for Empowering Indigenous Lan-

- guage Educators, Students, and Communities". In Reyhner, Jon, Martin, Joseph, Lockard, Louise eta Sakiestewa, W. Gilbert (eds.) *Honoring our Elders: Culturally appropriate approaches for teaching Indigenous students*. Flagstaff: Northern Arizona University, 136-53.
- Romaine, Suzanne. 2015. "The Global Extinction of Languages and Its Consequences for Cultural Diversity. In Marten, Heiko. F., Rießler, Michel, Saarikivi, Janne eta Toivanen, Retta. (ed.) *Cultural and Linguistic Minorities in the Russian Federation and the European Union*. New York: Springer, 31-46.
- Royal Commission on Aboriginal Peoples (RCAP). 1996. *Gathering strength: Report of the Royal Commission on Aboriginal Peoples*. Ottawa: Minister of Supply and Services.
- Sinclair, Raven P. 2003. "Indigenous Research in social work: the challenge of operationalizing worldview". In *Native Social Work Journal. Articulation Aboriginal Paradigms: Implications for Aboriginal Social Work Practice*, 5, 139-177.
- Silva-Corvalán, Carmen. 2001. *Sociolingüística y pragmática del español*. Washington: Georgetown University Press.
- Smillie-Adjarkwa, Christine. 2009. "Aboriginal Alcohol Addiction in Ontario, Canada: A Look at the History and Current Healing Methods That Are Working In Breaking the Cycle of Abuse", *Indigenous Policy Journal*, 20(3), 1-9.
- Statistics Canada 2017. *2016 Census in Brief. The Aboriginal languages of First Nations people, Métis and Inuit*. Ottawa: Government of Canada.
- Strand, Kerry, Cutforth, Nick, Stoecker, Randy, Marullo, Sam eta Donohue, Patrick. 2003. "Community-Based Research in Higher Education: Principles and Practices". San Francisco: Jossey-Bass.
- Thomas, David R. 2006. "A General Inductive Approach for Qualitative Data Analysis", *American Journal of Evaluation*, 27(2), 237-246.
- Tovar, Maria Teresa eta Hidalgo, Patricia. 2009. *Métodos y Técnicas de Investigación en Gerencia Social*. Lima: Pontificia Universidad Católica del Perú.
- Tuhiwai Smith, Linda. 1999. *Decolonizing Methodologies, Research and Indigenous Peoples*. London, UK: Zed Books.
- Walmart, Brian. 2013. "Reclaiming First Nations Research: The Keewaytinook Okimakanak Research Institute". In White, Jerry P., Peters, Julie, eta Beavon, Dan (ed.) *Aboriginal Policy Research Series: Voting, Governance, and Research Methodology*, 10. Toronto: Thompson Educational Publishing, 217-225.
- Walsh, Michel. 2010. "Why language revitalization sometimes works". In Hobson, John. Lowe, Kevin, Poetsch, Susan eta Walsh, Michel (ed.) *Re-awakening languages. Theory and practice in the revitalisation of Australia's*

Indigenous languages. Sydney: Sidney University Press.

Wilson, William H. eta Kauanoë Kamanā. 2009. "Indigenous youth bilingualism from a Hawaiian activist perspective", *Journal of Language, Identity and Education*, 8, 369-375.

Yamamoto, Akira Y. 1998. "Linguists and endangered language communities: issues and approaches". In Matsumura, Kazuto. (ed). *Studies in endangered languages. International Clearing House for Endangered Languages, Linguistic Studies Vol. 1.* Tokyo: HitujiSyobo, 231-52.

Yukon Languages Act [2016 Chapter3]. Whitehorse: Government of Yukon.

HIGA! 2023: munduko hizkuntza gutxituen etorkizunerako aletxo

Ainhoa Pardina Arenaza*
Beñat Garaio Mendizabal**

Laburpena. Gizateriaren aberastasunik handienetako bat hizkuntzak dira, gehienak hizkuntza gutxituak, eta aurreikusten da munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen % 90 desagertuko dela XXI. mendearen amaieran. Horregatik da garrantzitsua hizkuntza gutxituen biziberritzean lan egitea eta hori da HIGArekin helburua. HIGA hizkuntza gutxituetako hiztun gazteen topaketa da, hizkuntza gutxituen biziberritzea eta munduko hizkuntza-komunitateen arteko sare-lana helburu duena. 2023ko uztailan egitasmo honen 4. edizioa egin da Gasteizen, eta, antolatutako 5 eguneko programazioaren baitan, komunitate ezberdinetako kideek hizkuntzen biziberritzearen zein hizkuntza aktibismoaren alorrean formatzeko eta haien errealitatea partekatzeko zein besteena ezagutzeko aukera izan dute. HIGAk parte hartzaileak 18-30 urte bitarteko gazteak dira. Artikulu honetan, HIGA proiektuak hizkuntza gutxituen biziberritzean egiten duen ekarpena ikusi nahi dugu. • *Hitz gakoak:* HIGA, gazte, hizkuntza gutxitu, biziberritze prozesua.

Abstract. Among humanity's greatest treasures are its languages, most of them minority ones, but 90% of the 6,000 languages spoken in the world are expected to disappear by the end of the 21st century. This is why it is important to strive to revitalise minority languages. This is the aim of HIGA, an initiative that brings together young speakers of minoritised languages with the aim of revitalising these languages and networking between the world's language communities. The 4th edition of these meetings was held in July 2023 in Vitoria-Gasteiz, and the four-day programme gave different communities the chance to learn and share their situations both in the field of reviving languages and in that of language activism. The members of HIGA are young people aged between 18 and 30. This paper describes HIGA's contribution to reviving minority languages. • *Key words:* HIGA young, minoritised language, revival process.

Sarrera-data: 2023/10/15. Ebaluazioak 2023/10/22 – 2023/11/27. Onartze-data 2023/11/29

Zitatzeko modu gomendatua:

Pardina Arenaza, Ainhoa eta Beñat Garaio Mendizabal. 2023. "HIGA! 2023: munduko hizkuntza gutxituen etorkizunerako aletxo". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 129, 97-114. Andoain (Gipuzkoa).
<https://doi.org/10.55714/BAT-129.5>

CC BY-SA 4.0

* Pardina Arenaza, Ainhoa | UPV/EHU; ELEBILAB ikertaldea; HIGAkoko lantaldea | ainhoa.pardina@ehu.eus | ORCID kodea: 0000-0001-8123-1940

** Beñat Garaio Mendizabal | HIGAkoko koordinatzailea | benat.garaio@gmail.com | ORCID Kodea: 0000-0002-9144-2861

SARRERA

I
Gizateriaren aberastasunik handienetako bat bere hizkuntzak dira, eta horiek, era berean, planetan bizi diren kulturen ispilu dira. Hizkuntza bat gizarte-eraikuntza bat da, komunikazio-sistema bat den heinean, eta hainbat gizarte-taldek landu eta praktikatu dute, kultura eta hizkuntza-elementuz hornituta. Bestela esanda, hizkuntza gizakien arteko komunikazio tresna ez ezik, kosmobisioaren, ohituren, tradizioen eta herri kulturen esperientziaren transmisiorako tresna da, eta norbanakoei identitatea ematen die (Flores et al. 2020; Garabide 2015). Hala ere, hizkuntza horiek ezaugarri eta egoera ezberdinak izan ditzakete. Esaterako, munduko ia hizkuntza guztiak 300 mila pertsona baino gutxiagoko komunitateek hitz egiten dituzte. Bestalde, munduko hizkuntzen % 6 inguruk gutxienez milioi bat hitzun ditu, biztanleria osoaren %94; munduko hizkuntzen % 94, berriz, planetako biztanleen %6k bakarrik hitz egiten dute (Flores et al. 2020). Beraz, Sadembouo-k eta Ngoumamba-k azaldu bezala (2015), hizkuntza gutxituak biziberritzeko beharra mundu mailako fenomeno da. Hain zuzen ere, 2000. urtean, Micheal Krauss-ek iragarri zuen munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen % 90 desagertzeko zela XXI. mendearen amaieran (Krauss, 2000 in Flores et al., 2020). Kraussek argitaratutako datuek hizkuntza gutxituak biziberritzeko beharraz sentsibilizatu zituzten hizkuntza-komunitateak. Azken datuen arabera, Kraussek aurreikusitako ehunekoa ia erdira jaitsi da. Gaur egun, munduan hitz egiten diren hizkuntzen % 46, Afrikako hizkuntza gehienak barne, desagertzeko arriskuan daude XXI. mendearen amaieran (Sadembouo eta Ngoumamba, 2015). Honek, munduko hizkuntzen erdiaren desagertze arriskuak, galera izugarria ekarriko luke munduko kultura-aniztasunerako eta biodibertsitatearen oreka orokorrerako. Beraz, hizkuntza gutxituen etorkizunak kezka nagusietako bat izan behar du munduko kultura-aniztasunaren babesa eta biodibertsitatearen oreka orokorra bermatzeko (Maffi 2005). Munduko hizkuntzen bidez, gainera, belaunaldiz belaunaldi, eskualdekako ingurunera moldatzeko jakinduria transmititu da. Gaur egun, ordea, hizkuntza gutxi batzuen nagusitasunak, hizkuntza gutxitu askoren galeraz gain, hizkuntza horietako askorekin lotutako jakinduriaren transmisioa desagertzeko arriskuan jarri du, eta, ondorioz, hainbat mundu ikuskera edo jakinduria ere galtzear daude (Garabide 2015).

Hori dela eta, garrantzitsua da hizkuntza gutxituen biziberritzean lan egitea eta, hori da, hain zuzen ere, HIGArekin helburua eta, hala, horrek erakusten du horrelako proiektuek duten garrantzia. HIGA hizkuntza

Gaur egun, hizkuntza gutxi batzuen nagusitasunak, hizkuntza gutxitu askoren galeraz gain, hizkuntza horietako askorekin lotutako jakinduriaren transmisioa desagertzeko arriskuan jarri du, eta, ondorioz, hainbat mundu ikuskera edo jakinduria ere galtzear daude.

Kultura eta ondarea babestea lan-ildo hartuta, eta hizkuntza gutxituen etorkizuna bermatzeko asmoz, gakoa da belaunaldi berriek euren jatorrizko hizkuntzak biziberritu nahi izatea. Bide horretan, HIGA hizkuntza-komunitate ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko espazioa da.

gutxituetako hiztun gazteen topaketa da, hizkuntza gutxituen biziberritzea eta mundu zabaleko hizkuntza-komunitate ezberdinen arteko sare-lana helburu duena. 2023ko uztailean egitasmo honen 4. edizioa egin da Gasteizen, eta, antolatutako 5 eguneko programazioaren baitan, komunitate ezberdinetako kideek hizkuntzen biziberritzearen zein hizkuntza aktibismoaren alorrean formatzeko aukera izan dute, bai eta haien errealitatea partekatzeko zein besteena ezagutzeko ere.

HIGAko parte hartzaileak 18-30 urte bitarteko gazteak dira; izan ere, gazteek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten papera oso garrantzitsua da (Amorrortu et al. 2020; Eusko Jaurlaritza 2016; Hernandez et al. 2020; Sadembouo eta Ngoumamba, 2015). Beraz, kultura eta ondarea babestea lan-ildo hartuta, eta hizkuntza gutxituen etorkizuna bermatzeko asmoz, gakoa da belaunaldi berriek euren jatorrizko hizkuntzak biziberritu nahi izatea. Bide horretan, HIGA hizkuntza-komunitate ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko espazioa da, partaideek esperientzia eta ezagutzak partekatzeko eta lankidetzeta-sareak osatzeko aukera izan dezaten. Hain zuzen ere, ezinbestekoa da hizkuntza politikak, plangintzak eta ekimenak gazteekin batera edo gazteengandik gertu egitea eta orain arte helduenak izandako ardurak eurekin partekatu nahiz eurek dituzten kezkak mahai gainean jartzea (Hernandez et al. 2020). Bestalde, topaketak prestakuntzarako espazioa izateko asmoa ere badu, gazteei hizkuntzen biziberritzean trebatzeko parada eskaintzen baitie.

HIGA Gasteizko Udaleko Euskara eta Gazteria Sailak bultzatzen duen egitasmoa da. Udalak Beñat Garaiori esleitu izan dio proiektu hau, aurreten estreinako Biziherrri IGB elkartearen bitartez eta aurreko ekitaldietako gazteekin osatutako lan-taldean burututa. Gisa honetako ekimen bakarra da HIGA mundu mailan eta aitzindaritzan hori Gasteiz, Araba eta Euskal Herriak eramatea aipatzekoa da. Hala ere, Euskal Herri mailan proiektu transbertsalagoa eta nazioarteko erreferentziazko ekimena bilakatzeko asmoz, aurreten proiektuari indar eta ikusgarritasun handiagoa emango zioten erakundeen elkarlana adostu da.

Lan honi dagokionez, bost ataletan banatu da: lehenengoan, HIGA-2023ren testuingurua azalduko dugu, HIGAren aurreko edizioak bertara ekarriz; bigarreanean HIGA2023ren nondik norakoak azalduko ditugu; hirugarreanean, HIGA2023ren metodologia edo helburuak gauratzeko bidea nolakoa izan den azalduko dugu. Laugarreanean, atera-tako emaitzak aurkeztuko ditugu eta, azkenik, bostgarreanean ondorio batzuk partekatuko ditugu.

1. TESTUINGURUA

Esan bezala, HIGArean laugarren edizioa izan da aurtengoa, eta aurreko edizioekin alderatuta, parte hartzaileen jatorria zabaltzen eta egitaraua indartzen joan da, urtez urte. Lehenengo edizioa 2011n egin zen, uztailaren 19tik 22ra bitartean. Gasteizko Udalaren Gazte Plana eta Euskara Planaren artean antolatu zen, eremu urriko hizkuntzak edo hizkuntza gutxituak hitz egiten dituzten Europako gazteen topaketa gisa. Bertan Britainia, Korsika, Galizia, Katalunia, Valentzia, Mallorca eta Euskal Herritik etorritako gazteak bildu ziren, honako egitarau hau betetzeko:

1. Irudia: HIGArean lehenengo edizioaren egitaraua

ORDUAK	18	19	20	21	22
GOIZEKO LEHEN ATALA ALDE AKADEMIKOA	Prestatzeko lanak	9- Harrera eta materialen banaketa EHU	9:00 Sechu Sende "Galizia eta galegoa"	9:00 Gorka Julio "Teknologi berriak".	Ikus-entzunezkoa
		9:30- aurkezpena: politikariak 10:00- Carme Junyent "hizkuntzen jasangarritasuna"	10:00 A. Urmeneta "Euskadiko egoera humore onez"	10:00 Joan Solé Camardons "Katalunyan egindako ikerketa"	9:30 Mahai ingurua: Jasone Osoro Irati Anda Abeslari bat Naroa Cuesta
ATSEDENALDIA		11:30	11:00	11:00	11:00
BIGARREN ZATIA	Prestatzeko lanak	12:00 Gazteen atala: helburuak eta edukiak zehaztu...	11:30 Gazteen atala: lekuz leku hausnartu	11:30 Gazteen atala: esperientziak eta hemendik aurrera?	11:30 Gazteen atala: idatzi Gasteizko adierazpena
		Harrera udalean			
BAZKARIA		14:00	14:00	14:00	14:00
ARRATSALDEAK	Partaideen harrera	Ekintza ludikoak: abestien lehiaketa, gastronomia...			
		Bisita Gasteizen, hiriko gazteekin	Hiriko leku batzuk bisitatzeko aukera	Eratzun berdean bizikletaz edo oinezko ibilbideak	Kultura-Folklore: Dantza plaza Kalegira Kontzertua

Bigarren edizioa 2018an egin zen, uztailaren 17tik 19ra bitartean, eta lehenengo ediziotik zazpi urteko geldiadia egon bazen ere, bigarren edizio honek ekimenaren jarraipena zuen helburutzat. Urte hartako edizioa oso arrakastatsua izan zen, harreman berriak ehunduz, elkarlan proiektuen lehen kimuak ernatuz eta instituzioen parte hartzea areagotuz. Gainera, kasu honetan, mundu mailako topaketa izan zen (75 gazte, 35 hizkuntza gutxitu), nahiz eta, oraindik, Europako parte hartzaile

asko egon gainerako jatorriekin alderatuz. Gazte hauek, 2018an, honako egitaraua izan zuten:

2. Irudia: HIGAre bigarren edizioaren egitaraua



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
UPV/EHU



HIGA! Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen II Topaketa Uztailaren 17, 18 eta 19a

	Astelehena 16	Asteartea 17	Asteazkena 18	Osteguna 19
09:00-10:30		"Hizkuntza politika ulertzeko gako batzuk" (Xavier Vila)	"Hizkuntzen biziberritzea baikortasunetik etorriko da, edo ez da etorriko" (Neus Mestres, Óscar-Adrià Ibáñez)	Mahai-ingurua: "Nola bizi duzu euskara?" (Iñaki Artola, Aneurgia, Kepa Matxain, Fariba Sheikhan)
10:30-10:45		Atsedenaia		
10:45-12:15		"Soziolinguistika herriko eta ekintzailea" (Séchu Sende)	"Etorkizuneko ekintzaileentzako TELP tailerrak" (Gemma Sangines)	Hizkuntzen biziberritzea eta beste mugimendu batzuekin elkarlana (Lorea Agirre)
12:15-12:45		Atsedenaia		
12:45-14:00		Hausnarketa-dinamikak (1)	Hausnarketa-dinamikak (2)	Hausnarketa-dinamikak (3)
14:00-15:30		Bazkaria		
15:30-17:00		Atsedenaia		
17:00-18:00	Harrera hitzaldiak		Eraztun berdean ibilaldia	Yezhou dokumentalaren estreinaldia: Morgan Fercot
18:00-19:00	Elkar ezagutzeko dinamikak	Gasteizko bisita gidatua		Topaketaren amaiera (hausnarketen ondorioak + bukaerako ekitaldia)
19:00-20:00	Alidé Sans-en kontzertua		Bidelapurrak taldearen kontzertua	Dantza Plazan - Balfolk

Hirugarren edizioari dagokionez, 2020an zen ospatzekoa baina, pandemia dela eta, HIGA e-GA bilakatu zen azkenean 2021ean. Edizio horrek hizkuntza-lankidetzarako proiektu-lehiaketa abiatu zuen eta online eta semi presentzialki antolatutako sari banaketa egunean, poesia, hitzaldi bat, eta musikaz gozatzeko aukera egon zen.

Behin pandemia pasata, 2023ko uztailan antolatu zen HIGAre lau garren edizioa. Orain arteko zabalena izan da bai programazioaren, bai parte hartzaileen jatorriaren aldetik, jarraian ikusiko dugun bezala. Esan beharra dago hainbat izan zirela, ekitaldiz ekitaldi pilatutako eskarmen-tuarekin, moldatzeko beharra zutela antzemandako elementuak, esaterako, egunak luzatzea, elkar ezagutzeko tarte gehiago ematea, hizlarien eta tratatzen ziren gaien aniztasuna handitzea eta egunak tematikoki antolatzea, europar zentrisimo ikuspegia murrizten hastea, HIGA topaketa soil bat baino gehiago izatea, elkarlanean proiektuak eraikitzea, munduan zehar ikusgarritasuna izatea, etab. Horiek guztiak kontuan hartuta osatu genuen 2023ko egitaraua.

2. HIGA! 2023REN EGITARUA

I

Topaketak iraun dituen 5 egunetan zehar, parte hartuko duten gazteei ekintza ezberdinez osatutako egitaraua eskaini zaie:


- a. Hartu-emanerako espazioen dinamizazioa: Topaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzean trebatzeaz gain, hizkuntza-komunitate ezberdinen arteko sare-lana sustatzea du xede. Hori horrela, partaideek elkar ezagutzeko, euren arteko giro atsegina sustatzeko eta hartu-emanerako espazioak sortzeko, topaketaren lehenengo egunetan zehar hainbat ordu eskaini zitzaizkion talde dinamikei. Aurkezpen eta elkar ezagutza dinamikez gain, hizkuntza-komunitate ezberdinen aurkezpenari ere eskaini zitzaion tartea.
- b. Hitzaldiak: Egun bakoitzak gai orokor bat izan du gidalerro (1 - ekintzailletza; 2- aniztasuna eta 3- teknologia berriak). Gai horretan arituak zein adituak izan dira hura lantzeko gonbidatuak. Hitzaldiek balio izan dute eguneko gaia aurkeztu eta horretan sakontzeko. Horretaz gain, gaian aritzen diren banako zein kolektiboak ezagutzera emateko aukera ere eman dute hitzaldiek, hizlari eta partaideen arteko hartu-eman aukera zabaltzarekin batera.
- c. Tailerrak: Eguneko gaiari lotuta, eta hitzaldietan aurkeztutakoari jarraipena eman asmoz, partaideei ordubete eta erdiko tailerra eskaini zitzairen. Tailerrekin, hitzaldien antzera, gaian sakontzeko helburua izan dute; hala ere, kasu honetan, modu praktikoan eta parte hartzaileagoan landu dira gaiak.
- d. Proiektuen sorkuntza espazioa: Taldeko sorkuntzarako espazioa eskaini da. Horren helburua zera izan da: hizkuntza-komunitate ezberdinetako kideen arteko elkarlanean oinarritutako proiektu txikien garapena. HIGA! 2023k iraun bitartean, taldeka lan egin eta ideia/proiektu ezberdinak garatu dira eta azkeneko egunetan horiek aurkeztu ziren.
- e. Talde-ekintzak eta aisialdia: Mundu zabaleko gazteak gerturatu ziren Gasteizeko topaketa honetara eta partaideei ongi etorria egitea eta gure lurraldea ezagutzera ematea izan da helburua. Horretaz gain, aisialdi- zein talde-ekintzak, talde izaera garatzeko eta elkar ezagutzeko bideratu dira.

Topaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzean trebatzeaz gain, hizkuntza-komunitate ezberdinen arteko sare-lana sustatzea du xede. Hori horrela, partaideek elkar ezagutzeko, euren arteko giro atsegina sustatzeko eta hartu-emanerako espazioak sortzeko, topaketaren lehenengo egunetan zehar hainbat ordu eskaini zitzaizkion talde dinamikei.

- f. Plaza digitalerako eduki-sorkuntza: Topaketa osteko web-dokumentala osatzeko asmoz, hizkuntza ezberdinetako partaideekin elkarriketa gidatuak egin dira topaketan zehar eta ekitaldiaren ikus-entzunezko dokumentazioa egin da.

Hau guztia gauzatu ahal izateko, beraz, ondorengo egitaraua prestatu zen:

3. Irudia: HIGA2023ren egitaraua



3. 2023KO EKITALDIAREN EMAITZAK

I

Emaitzak hainbat ataletan banatuko ditugu: antolakuntza; parte hartzea; komunikazioa; edukia.

3.1. Antolakuntza

2018ko ekitaldiaren oroitzapen onekin eta urteetako hutsunearen ostean, ilusio handiarekin berrartu zen Gasteizko Udaleko Gazteria eta Euskara zerbitzuetako plan estrategikoetan jasotako HIGA jarduera antolatzeke eta aurrera eramateko enkargua. Gainera, proiektua hazteko apustua egin zuen lan taldeak hasieratik, aurretik identifikatutako 6 hutsune gainditu ahal izateko:

- HIGAKo partaideen aniztasuna areagotzea, Europatik kanpokoak erakarriz
- Maila profesional handiko topaketa bat egitea
- Emaleei eta hornitzaileei baldintza duinak eskaintzea
- Topaketa bat baino gehiago izatea, indarra partaideen saretzean jarritz
- Esparru eta kokaleku ezberdinetako erakundeekin elkarlana areagotzea HIGA antolatzeke
- HIGAREN oihartzuna handia izatea, bai Euskal Herrian bai munduan

Itxaropen eta anbizio maila honekin hasi genuen lana lan-taldekoek, are gehiago ikusita lanean hasi eta gutxira HIGA2020-rako aurreikusita zegoen aurrekontua erraz gainditu genuela.

HIGA antolatzeari 2022ko irailaren amaieran ekin zitzaion eta lehen hilabeteetako aurreprestaketen ondoren, lan-talde osoa lanez gainezka ibili zen urtarriletik. Lan-taldeak bere gain hartu zezakeen lan-karga baino askoz altuagoari egin behar izan zion aurre, hein handi batean bidean sortu ziren hainbat ezustekorengatik (gorabehera ekonomikoak eta bidai eta bisatuekin arazoak, batik bat).

Horiengatik guztiengatik eta aurre lan handia eginda zegoen arren, lantaldea zalantzez beterik eta segurtasunik ezaz iritsi zen topaketaren hasierara.


Proiektua hazteko apustua egin zuen lan taldeak hasieratik, aurretik identifikatutako 6 hutsune gainditu ahal izateko, besteak beste, HIGAKo partaideen aniztasuna areagotzea, Europatik kanpokoak erakarriz eta HIGAREN oihartzuna handia izatea, bai Euskal Herrian bai munduan.

3.2. Parte-hartzea

Ezer baino lehen, gogoratu beharra dago 330 izen-emate jaso zirela prozesuan zehar, 115 hizkuntza gutxitu ordezkatzuz, eta horietatik 75 hautatu zirela, eskainitako plaza kopuru adina, alegia.


Labur-labur, hauek izan dira HIGA topaketako zenbakiak: 75 partaideetatik, erdia baino gehiago emakumeak izan dira eta 3 lagun ez-bitarrek hartu dute parte. Partaideen batez besteko adina, bestalde, 28 urtetan kokatu da aurten.

1. Grafikoa: parte hartzaileen generoa



60 hizkuntza gutxitu ordezkatu dituzte aurtengo partaideek eta hor jauzi nabarmena eman du HIGAK. Azken orduan partaideetan egondako galerekin 10 hizkuntza galdu ditugu eta horien ordez dagoeneko ordezkatuta zeuden hizkuntza-komunitateetako partaide europear asko sartu dira. Edonola ere, hizkuntza aniztasun handia egon da aurtengo HIGAn. Honela banatzen da aniztasun hori:

2. Grafikoa: Parte hartzaileen jatorria



Horretaz gain, ondorengo kide hauek ere parte hartu dute HIGAn:

- Emaleak: 27
- Beste langileak eta zerbitzu hornitzaileak: 42
- Artistak: 39
- Publiko gehigarria hitzaldietan: 46
- Streaming bidezko ikustaldiak memoria hau idatzi denean: 2.102
- Publiko gehigarria kontzertuetan: 135
- Talde-antolatzailea eta udaleko teknikariak eta arduradunak: 13

Parte hartzeari dagokionez, aurrerapauso handi bat eman du HIGAK 2023ko ekitaldian, ez bakarrik gazte-partaideei eta euren ezaugarri eta profilei dagokionez, baizik eta HIGAK erakarri dituen pertsona guztiei dagokionez ere. Arrazoi ekonomikoei eta azken orduko arazo administratibo ugari zirela medio, HIGARA ez ziren hasieran aurreikusten ziren gazte guztiak etorri eta, esan bezala, ordezkatutako hizkuntza gutxituak eta lurraldeak murriztu ziren.

3.3 Komunikazioa

Bi atal nabarmendu daitezke: hedabide zein erakundeetako kanaletan izandako agerpenak eta sare sozialak. Hedabide eta erakundeei dagokionez, 50 agerpenetik gora (prentsan, irratietan, telebistetan, podcastetan...) izateaz gain ETBk bi zuzeneko emisio egitea lortu da, hartara HIGAn gertatzen ari zena zuzenean zabaldu ahal izateko bere YouTubeko katearen bitartez. Horrez gain, zabalpen lana egin da sare sozialetan, zehazki Facebook, Twitter eta Instagramen. Hona sare sozialetako datu batzuk (2023ko uztailari dagozkionak):

- Facebook: guztira 22 argitalpen egin dira, 4.800 hartzailearengana iristea lortu da eta 1.200 interakzio izan dira. Edukiari erreparatuta, HIGAK iraun bitartean egun bakoitzeko argazki bilduma bat eta bideo laburpen bat argitatu da.
- Twitter: guztira 60 txio egin dira eta 50.000 inpresio, 500 atsegindut, 250 bertxio eta 100 klik jaso dituzte. Edukiari dagokionez, HIGAK iraun bitartean Twitterreko hari bat egin da egun bakoitzeko eta bertan eman da egindakoaren berri.
- Instagram: guztira 23 post eta 90 istorio argitaratu dira, 28.000 inpresio jaso dira eta 4.200 erabiltzailearengana iritsi da eduki hori;

Hedabide eta erakundeei dagokionez, 50 agerpenetik gora (prentsan, irratietan, telebistetan, podcastetan...) izateaz gain ETBk bi zuzeneko emisio egitea lortu da, hartara HIGAn gertatzen ari zena zuzenean zabaldu ahal izateko bere YouTubeko katearen bitartez. Horrez gain, zabalpen lana egin da sare sozialetan, zehazki Facebook, Twitter eta Instagramen.

Gemma Sanginsen tailerrak gazte ekintzaile horiek partekatutako erronka, zailtasun eta errealitateei erantzuteko tresnak eskaintzea zuen helburu. Hizlariak bi ildo jorratu zituen: alde batetik, hizkuntza asertibitatea nola landu azaltzea, eta, bestetik, osasun mentala nola zaindu ekintzailetza-testuinguru batean.

erabiltzaileen artean % 57 emakumezkoak izan dira eta % 43 gizona eta, adinari dagokionez, % 20 izan dira 18-24 urte artekoak eta % 52, aldiz, 25-34 urte artekoak. Edukiari erreparatuta, HIGAk iraun bitartean egunean 3 argitalpen egin dira: eguneko agenda iragarri, egunean egindakoaren argazki bilduma eta bideo laburpena. Horrez gain, istorioetan zuzenean eman da egindakoaren berri.

Aurreko HIGA ekitaldiak, giro, ekarpen eta eduki aldetik arrakastatsuak izan arren, komunikazio mailan oso mugatuta ibili ziren eta jasotako oihartzuna urria izan zen, betiere Araba eta Euskal Herriko komunikabide batzuetan agertu baitzen. HIGA! 2023-ak bestelako emaitzak izan zituen, ezbaierik gabe pilatutako eskarmentuarengatik, lan-taldeak eskainitako orduengatik eta hainbat erakunderekin abian jarritako elkarlanarengatik.

3.4 Edukia

Gorago partekatu dugun egitarauari helduta, HIGAk eskaini duena partekatuko dugu jarraian.

Hasiera ekitaldia, itxiera eta atsedeneak

Aurreko urteetako esperientziatik abiatuta, hasiera eta bukaerako zeremonietan lagunarteko giro atsegina prestatu genuen, elkarren eza-gutza urria zuten gazteak pixkanaka taldean txertatzen joan zitezten. Emozioak adierazteko eta norbere barruan partekatu nahi zuten hori entzuteko eskainitako momentu ezberdinak oso baliagarriak izan ziren lehenengo momentutik taldea eraikitzeko.

Bestalde, aurtengo egitaraua betea zen arren, atsedenerako arratsaldeak jarri genituen, baita hautazko ekintzak ere, eta horrek ere lagundu zuen partaideen energia kudeatzeko eta elkarrekin HIGAk burbuilatik kanpo harremanak sendotzen joateko.

Lehenengo eguna: Gazteak hizkuntza aktibismoan

Bi mahai-inguru prestatu genituen lehenengo zatian, mundu osoko aktibista ezberdinekin. Lehenengo zatian beraien ibilbidearen berri eman zuten eta bertan agertu ziren partekatzen dituzten hainbat gai: ekarpenak egiteko desira, beraien testuinguru mugatzailean altxatzeko beha-

rra, norbere burua aurkitzea aktibismoan, momentuko baldintzek izan ditzaketen eraginak etab. Bigarren zatian, aldiz, ikuspegi pertsonalago batetik heldu zioten eta luze hitz egin zuten osasun mentalean aktibismoak duen eraginari buruz, denbora eta indar faltaz, lagun-sare bat izatearen garrantziaz, fruituak ikusteak dakarren poztasuna eta beste hainbat gertakari.

Gemma Sanginésen tailerrak gazte ekintzaile horiek partekatutako erronka, zailtasun eta errealtateei erantzuteko tresnak eskaintzea zuen helburu. Hizlariak bi ildo jorratu zituen: alde batetik, hizkuntza asertibitatea nola landu azaltzea, eta, bestetik, osasun mentala nola zaindu ekintzailetza-testuinguru batean.

Bigarren eguna: Interseksionalitatea eta periferiak hizkuntza-aktibismoan

Lehenik eta behin, Lorea Agirrek feminismoak egin dituen ekarpen eraldatzaile nabarmenak xehetu zituen eta horretarako zer nolako pausoak eman diren historian zehar. Ostean, hizkuntzen biziberritzea genero-ikuspegi batetik aztertu zuen, hizkuntzen egoeraren atzean emakumeek duten ardura xehetuz.

Mahai-inguruan testuinguru ezberdinetako hiru ekintzailek hartu zuten hitza, ekintzaileak hizkuntzen biziberritzean eta ekintzaileak LGTBQ+ mugimenduan. Hiru ardatz jorratu zituzten mahai-inguruan: bi alorrak uztartzen dituzten ekimenak, jasotzen duten diskriminazioa arlo batean edota bestean eta etorkizunera begirako erronka nagusienak.

Bukatzeko, PROLEMA ekimeneko hiru kidek euren esperientzia zertan zetzan azaldu zuten. Egoera zaurgarrian daudeen gazteak trebatzen dituzte euren hizkuntza irakatsi ahal izateko eta, ondoren, irakasle lanetan hasten dira soldatapean. Kide horiei diru-iturri bat eta euren ondarearekiko atxikimendua eskaintzeaz gain, harrera-gizartean hizkuntza-aniztasuna sustatzeko bide bat eskaintzen zaio herritarrari. Ostean, PROLEMAko kideek euren hizkuntza autobiografia egin zuten eta nola egin azaldu ostean, HIGAKo partaide guztiak aritu ziren lanketa hori egiten.

Lorea Agirrek feminismoak egin dituen ekarpen eraldatzaile nabarmenak xehetu zituen eta horretarako zer nolako pausoak eman diren historian zehar. Ostean, hizkuntzen biziberritzea genero-ikuspegi batetik aztertu zuen, hizkuntzen egoeraren atzean emakumeek duten ardura xehetuz.

Aurtengo HIGAn tarte hau sortu genuen hizkuntza biziberritzerako proiektu zehatzak sortzeko. Alde batetik, bazitekeen proiekturen bat ona izatea eta ondoren garatzeko aukera izatea. Bestalde, hain egoera ezberdinetan zeuden hizkuntzentzako baliagarriak izan zitezkeen eszenatokiak irudikatzen jarriko zituen gazteak ariketa honek.

Hirugarren eguna: hizkuntza aktibismorako teknologia eta komunikazio-tresnak

Sare sozialetan eta YouTubeen ezagunak diren mundu osoko lau sortzaile aritu ziren euren esperientziari buruz hitz egiten. Lehenik eta behin, du-ten ikusgarritasuna helburu batzuetara bideratzearen garrantziaz hitz egin zuten. Bigarrenik, eredu diren heinean, jarraitu beharreko irizpide batzuk proposatu zituzten. Hirugarrenik, lan-eskerga handia eskatzen duen ekintzailtza izanik, sortzaileak dituzten baliabide urriak salatu zituzten. Bukatzeko, sortzaile ezberdinen artean sartzeko premia aldarrikatu zuten.

Ondoren, Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak bultzatutako tailerra egin zen: marrazki bizidunetan kontatutako bi ipuin bi-koiztu ziren ahal izan ziren hizkuntza gutxituetara, Ane Murua (Binahi Academy) eta Hala Bedi irratia-aren laguntzarekin.

Proiektuak sortzeko tarte

Elkar ezagutzeko dinamika bezala ere baliagarria den arren, aurtengo HIGAn tarte hau sortu genuen hizkuntza biziberritzerako proiektu zehatzak sortzeko. Alde batetik, bazitekeen proiekturen bat ona izatea eta ondoren garatzeko aukera izatea. Bestalde, hain egoera ezberdinetan zeuden hizkuntzentzako baliagarriak izan zitezkeen eszenatokiak irudikatzen jarriko zituen gazteak ariketa honek. Halaber, gazteak proiektuak sortzen trebatzeko aukera ona izan zitekeen tarte hau ere.

Interesgarria izan zen proiektuen sorrera prozesua gidatzeko jaso genuen eragileen aholkularitza, esaterako, Porrotx eta Bizipoza eta Mentxu Ramilo (Wikimedia).

Hauek izan ziren garatu ziren proiektuak:

1. EiTBrekin egindako ikus-entzunezko proiektuak: Proiektu honetan, ideia bat garatu eta planifikatu zen, bi galderei helduta:
 - Nola lagun liezaieke Netflix bezalako euskal plataforma batek gainerako hizkuntza gutxituei?
 - Nola lagun liezaieke BBC sounds bezalako euskal plataforma batek gainerako hizkuntza gutxituei?

2. Memeak sortzeko proiektua: Proiektu honetan parte hartzaileen komunitateetan oinarrituta baina aldi berean unibertsalak diren memeak sortu ziren.
3. Hizkuntzaturismoa edo komunitatearentzako ekoturismo plana: Proiektu honetan, komunitateetan turismo linguistikoari buruzko ideiak edo norbere komunitateekiko errespetuzkoa eta onuragarria den ekoturismorako oinarri bat diseinatu zen, turismo linguistiko iraunkorrerako dekalogo batekin batera.
4. Komunitate bakoitzari egokitutako espazio elebakarrak sortzeko proiektua: Proiektu honetan hizkuntzak erabiltzeko espazio seguruak sortzeko ideiak garatu ziren.
5. Hizkuntza-dokumentaziorako jardunbide egokien dekalogo / Komunitatetik egindako hizkuntza-dokumentazioaren proiektua
6. Hizkuntza biziberritzeko interseksionalitatearen dekalogo: Proiektu honetarako dekalogo bat idatzi zen, hizkuntza biziberritzean eta hizkuntza aktibismoan praktika interseksionalak txertatzeko. Ohar gisa, asteazkeneko jardunaldia gai honi buruzkoa izan zen.
7. Hizkuntza gutxituaren erabilera bermatzeko dekalogo/protokolo linguistikoa
8. Tajimalkotik: A Language Gamification App: hizkuntza gutxiak irakasteko app baten diseinua.
9. Wikimedia Proiektuaren Editatoia: Wikimedia Españako kide batek dinamizatu du proiektu hau, Mentxu Ramilok, zeina Wikimediako proiektuetan hizkuntza-aniztasuna sustatzera bideratutako Porto Meeting 2023ko kide ere baden. Proiektu honek Mentxuren wiki formazio bat eman zuen eta Wiki eleanitzago bat eraikitzen laguntzeko urrats batzuk eman ziren.
10. Hizkuntza gutxitua sustatuko duen hezkuntza-sistema egungo errealitatera nola egokitu irudikatzea: partaideen komunitateetako hezkuntza-sistemen arteko alderaketatik abiatuta, hezkuntza-sistema horiek hobetzeko eta hizkuntza sustatzen edo

Hizkuntza biziberritzeko interseksionalitatearen dekalogo bat idatzi zen, hizkuntza biziberritzean eta hizkuntza aktibismoan praktika interseksionalak txertatzeko.

Proiektu honetan partaideen hizkuntzentzako etorkizuneko agertokiak imajinatu ziren, baita agertoki horietara iristeko bideak ere.

mantentzen lagun dezakeen hezkuntza-sistema errealista eta gauzagarria irudikatzeko ideiak proposatu ziren.

11. Hizkuntza gutxituen etorkizuneko agertokiak imajinatzea eta desiratzea (design thinking): Proiektu honetan partaideen hizkuntzentzako etorkizuneko agertokiak imajinatu ziren, baita agertoki horietara iristeko bideak ere.
12. HIGAn bertso tematikoagoak antolatzeko azpiegitura eta metodologia diseinatzea: proiektu honek, adibidez, hizkuntza dokumentatzaile gazteen HIGA antolatzeko eman beharreko pausoak azaldu zituen.

HIGA Plaza

Proiektu honen garapena lortu beharko litzatekeen finantzazioaren menpe dagoen arren, HIGAn egunetan Morgane Lincy Fercotek 40 el-karrizketa egin zizkien HIGAn partaide batzuei, HIGAn partaideak eta euren hizkuntza errealitatea ezagutarazteko ikus-entzunezko interaktibo bat sortzeko asmoz.

Ekitaldi kulturalak

Lehenengo egunean Plouz&Foen rap talde bretoiak kontzertu ikusgarri bat egin zuen. Abeslarietako baten jarrera eta euskarazko gaitasunari eskerrak, aukera polita izan zen publikoa kantuan eta dantzan jartzeko. Gainera, taldeko kideak HIGAn zehar gelditu ziren partaide bezala eta horrek ere taldearen eraikuntzan eragin zuen.

Bigarren eguneko mikro irekia izan zen, ez bairik gabe, aztarna handiena utzi zuena. Saioa hasi baino lehen HIGAn partaideei galdetu zitzaieen oholtza gainean zerbait antzestu, errexitatu edo kantatu nahi al zuten, eta azkeneko 22 txanda antolatu genituen: poesia errexitatzen, a capella kantatzen, dantzak erakusten, ipuin bat kontatzen, bertso emanaldi bat... Azkeneko 45 pertsonatik gora igo ziren oholtzara eta ikusi zen HIGAn kideen gaitasun artistikoa itzela dela. HIGAn kideek publikoa pizten zutela ikusteak onura handia egin zion taldeari eta kanpoko publikoa erakarri zuen.

Hirugarren eta laugarren egunetan giro ona jarriko zuten musika alai eta festa-girokoa eskaini zen, baita *dantza-plazan* bat ere. Aurreko bi egu-

netako ezteandaren ondoren, bi gau hauek balio izan zuten taldeko euforia goian mantentzeko, baita Euskal Herriko hizkuntza ere den gaskoierari mikroa eman eta emakume gazteen taldeak lehenesteko ere.

Aurtengo egitarauaren balorazio bat egiteko asmoz, alde aurretik lortu nahi ziren emaitzak bete direla esan liteke: 2. atala baino lehenxeago zehaztutako helburu eta hobekuntzek HIGA antolatzaileok nahi genuen eremura eraman dugulako: mundu osoko hiztun gazteak aktibatuta, kritikoki trebatu eta saretuko dituen topaketa bat izan da HIGA, topaketa hori ibilbide baten mugarri edo kitzikatzaile izanik, baina inolaz ere helmuga.

Hurrengo ekitaldietara begira, egitarauan hainbat aldaketa txertatu beharko lirateke. Alde batetik, gazte partaideek, entzule pasiboak izan ez diren arren, ardura eta protagonismo handiagoa hartu beharko lukete eta aukera hau baliatu elkarren errealitate soziolinguistikoen berri izateko. Bestalde, antolakuntzak baliabideak eta erraztasunak jarri beharko lituzkete HIGA topaketa bat baino gehiago bilakatu dadin eta, adibidez, horretarako bide bat litzateke partaideek sortutako proiektuak diruz hornitzea edo finantzazioa bilatzen laguntzea. Bukatzeko, egitaraua lasaitu eta atsedean une gehiago sartzeko beharra ere ikusi da 2023ko ekitaldian, baita HIGARI egunak gehitzekoa ere.

4. ONDORIOAK

I

Aurretik aipatutako puntu guztiak garatu eta gero, HIGAREN laugarren ekitaldiaren balorazioa egingo dugu. Hasteko, hainbat alde on izan ditu: 1) giro bikaina egon da lehenengo momentutik; 2) sortu diren harremanek aukera ematen dute etorkizunean beraien arteko lankidetzak proiektuak sortzeko; 3) oihartzun handiagoa izan du aurtengo ekitaldiak, gure komunikazioko lan-taldearen saiakerei, EITBri eta atzerriko erakunde batzuen interesari eskerrak (ELP eta Rising Voices); 4) maila profesional handiko topaketa izan da, adibidez, edukiaren aldetik, parte hartzaileen aldetik edo komunikazio aldetik; 5) baldintza duinak eskaini ahal izan dizkiegu partaide, emale eta hornitzaileei (2018ko ekitaldian, esaterako, bideoak eta interpretazioa merkatuaren azpitik ordaindu ziren eta ez zen kaferik edo afaririk eskaini partaideentzako); 6) hainbat erakunde-rengandik jasotako feedbacka; 7) gertuko pertsona batzuek emandako laguntza HIGA posiblea izateko, izan ere, beraiek gabe HIGAREN kalitatea apalagoa izango zen; 8) partaideei bidalitako inkestetan erraz

HIGAREN laugarren ekitaldiaren balorazioa egingo dugu. Besteak beste honakoak aipagarriak dira: 1) giro bikaina egon da lehenengo momentutik; 2) sortu diren harremanek aukera ematen dute etorkizunean beraien arteko lankidetzak proiektuak sortzeko; 3) oihartzun handiagoa izan du aurtengo ekitaldiak, gure komunikazioko lan-taldearen saiakerei, EITBri eta atzerriko erakunde batzuen interesari eskerrak (ELP eta Rising Voices).

Hiztun gazteen aktibazioa, trebatzea eta saretzea ditu helburu HIGAk eta urtez urte joan da hainbat eremutan hazten. Hiztun komunitateentzako funtsezkoak diren gazteak elkartzen dira hainbat egunez Gasteizen, kultur-aniztasun testuinguru batean, eta hizkuntzen biziberritzerako praktika on gisa izendatua izan da.

hobetzeko hainbat alor proposatu zizkiguten: aterpetxea eta otorduak, partaideei ahots gehiago ematearena, egitaraua apur bat lasaitzearena, etab.

Bestalde, hainbat alde txar ere izan dira: 1) lan-taldearen muturreko gain-karga eta lanerako baldintzek eragindako ondorio ekonomiko, profesional eta pertsonalak; 2) aurrekontu egoki bat lortzeko ezintasuna eta lortze bidean izandako zailtasunak; 3) erakunde batzuen babes falta eta trabak, baita HIGAreneko momentu kritiko batzuetan ere; 4) bisadoak eta bidaiak, inplikazio handiko lan gogorra izan da aurtengoa; 5) hautatutako partaideetan azkenengo momenturaino izandako gora-beherak (30 azken orduko aldaketa egin behar izan ditugu).

HIGAk lan-taldea sinetsita dago HIGA proiektua bultzatzen jarraitu beharra dagoela, mundu mailan bakarra den ekimena delako. Dena dela, hainbat hobekuntza gomendatzen ditugu: hasteko, HIGAk lan-taldeari dagokionez, proiektuaren hazkundera egotekotan planifikazio eta informazio gehiagorekin egitea komeni da (adib. bidaiak eta bisadoak), lan-karga neurrigabea saihesteko asmotan. Horretaz gain, HIGA antolatzen lehenago hasi beharko litzateke, dedikazio handiagoa eskaini ahal dion lan-taldea hautatuz eta ahalik eta lan gehien beste erakunde batzuei esleituz. Azkenik, lan-taldearen presentzialitatea areagotzeko moduak bilatzea ere komenigarria izan daiteke.

Erakunde bultzatzaileei dagokienez, jakitun izan behar dira HIGA antolatzeak zer dakarren eta zer eskatzen duen, eta HIGAreneko aldeko apustua egin beharko litzateke, horretarako baldintza ekonomiko, material eta pertsonalak bermatuz nahiz lan teknikoak bere gain hartuz eta komunikazio arloa ondo jorratuz. Horrez gain, gomendagarria izango litzateke sei eguneko HIGA bat antolatzea, denbora gehiago izateko eta Erasmus+ diru-laguntzak lortu ahal izateko. Horretarako, beste erakunde batzuen elkarlana eta babesa lortzea komeniko litzateke.

Hiztun gazteen aktibazioa, trebatzea eta saretzea ditu helburu HIGAk eta urtez urte joan da hainbat eremutan hazten. Hiztun komunitateentzako funtsezkoak diren gazteak elkartzen dira hainbat egunez Gasteizen, kultur-aniztasun testuinguru batean, eta hizkuntzen biziberritzerako praktika on gisa izendatua izan da. Hauek honela, HIGA bezalako ekimenen sustapenaren beharra ikusi eta aldarrikatzen dugu, ekimen honen onurak eta emaitzek erakusten duten bezala. ●

BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu, Estibaliz, Ane Ortega eta Jone Goirigolzarri. 2020. "Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behin-behineko emaitzak". In *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* Santazilia, Ekaitz, Dorota Krajewska, Ekaitz Zuloaga & Borja Ariztimuño (arg.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.3546/62/fontes50urte.3>
- Eusko Jaurlaritza. 2016. *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunerako hurbiltzeko ikerketa partehartzailea*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Flores, José Antonio, Lorena Córdova eta Josep Cru. 2020. *Guía de revitalización lingüística: para una gestión formada e informada*. Barcelona: Linguapax Internacional.
- Garabide Elkartea. 2015. *Euskararen berreskuratzea. Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*. Zubillaga: Gertu.
- Hernández, Jone Miren, Iñigo Beitia, Josu Ozaita, Ainara Santamaria, Maialen Iñarra eta Olatz Altuna. 2020. *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia: euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- Maffi, Luisa. 2005. "Linguistic, cultural, and biological diversity". *Annual Review of Anthropology*, 34(1), 599–617.
- Sadembouo, Etienne eta Laurence Ngoumamba. 2015. "Young people and the revitalisation of indigenous languages: the case of Cameroun". In *The Role of Youth in Language Revitalisation*. Cru, Josep, Amélie Ponce eta Vicky Pounce. Linguapax review.

TEKNOPOLIS



Zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzari buruzko telebista-saioa

etb

Larunbata, 13:30

etb

Igandea, 12:00



Ekoizleak:  eitb  elhuyar

Babesleak:



Haurren euskarazko sozializazioa Zumaian

Belen Uranga Arakistain*

Ibon Manterola Garate**

Laburpena. Zein da zehazki Zumaiaiko haurren eta nerabeen sozializazioan euskarak duen lekua? Berdin hitz egiten dute haiek eskola-esparruan eta eskolatik kanpo daudenean? Zein leku du euskarak lagunekin kalean daudenean eta bestelako aisialdiko jardueretan? Zein da euskararen lekua haur horien etxeetan? Eta loturarik ba ote da etxeko erabileraren bitartez eta haurren kaleko eta eskolako euskararen erabileraren artean?

Zumaian bizi diren euskaradunen dentsitatea eta herriko kaleetan entzuten den euskararen erabilera aintzat hartuta, esan daiteke Zumaia herri oso euskalduna dela. Testuinguru horretan egin da haurren sozializazioan euskararen presentziaren inguruko ikerketa. Zehazki, Zumaiaiko HH5, LH4 eta LH6ko haur eta nerabeen hizkuntzen erabileraren behaketa zuzena egin da alde batetik, eta, bestetik, nerabeek eta euren gurasoek osatutako inkestaren bitartez jasotako datuak aztertu dira. Artikulu honetan, ikerketak emaniko emaitza izan den diagnosiaren laburpena eskainiko da. • *Hitz gakoak:* euskara, aisialdia, hizkuntzen erabilera, sozializazioa, hizkuntza-jarrerak.

Abstract. What roles does Basque play in the socialisation of children and adolescents in Zumaia? Do they speak the same in and out of school? What is the place of Basque in the street and in different leisure activities. And what about the children's home environment? Is there any relationship between the use of Basque at home and the way children use it in the street or school?

Taking into account the density of Basque speakers in Zumaia and the use of the language in the streets locally, can Zumaia be said to be a majority Basque-speaking locality? A study of the presence of Basque in the socialisation of children was conducted in this respect. On the one hand, the languages used by children and adolescents in infant 5, primary 4 and primary 6 classes in Zumaia were assessed, and on the other hand, additional data were gathered through the survey completed by adolescents and their parents in the town. This paper summarises the diagnosis resulting from the research. • *Key words:* Basque, leisure, language use, socialisation, language attitudes.

Sarrera-data: 2023/10/15. Ebaluazioak 2023/10/22 – 2023/12/15. Onartze-data 2023/12/20

Zitatzeko modu gomendatua:

Uranga Arakistain, Belen eta Ibon Manterola Garate. 2023. "Haurren euskarazko sozializazioa Zumaian". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 129, 117-147. Andoain (Gipuzkoa)
<https://doi.org/10.55714/BAT-129.6>

CC BY-SA 4.0

* Belen Uranga Arakistain | Soziolinguistika Klusterra | b.uranga@soziolinguistika.eus | ORCID kodea: 0000-0003-0343-718X

** Ibon Manterola Garate | UPV/EHU | ibon.manterola@ehu.eus | ORCID kodea: 0000-0001-8368-3318

1. SARRERA

Zumaiako Larraina Euskara Elkartek *Haurren euskarazko sozializazioa Zumaian* izeneko egitasmoa burutu du 2021 eta 2022 urte bitartean, hain zuzen, prozesu horretan euskararen presentziaren inguruko diagnostia egiteko; xede horrekin aztertu du haurren inguruko eskola-eremuan, aisialdian eta etxean zein den euskararen presentzia eta erabilera¹. Artikulu honetan, ikerketak lortu dituen emaitza eta ondorio esanguratsuenak aurkeztuko dira.

Sarrera honen ondoren, bigarren atalean, ikerketaren ingurune eta oinarri teorikoaren ideia nagusiak eskainiko dira; hirugarren atalean, ikerketaren fitxa tekniko orokorra aurkeztuko da; laugarrenean, behaketaren bitartez egindako ikerketaren emaitzak erakutsiko dira, eta bosgarrenean, inkesta bidez bildutako datuenak. Azkenik, seigarren kapitulu, zenbait ondorio aurkeztuko dira. Horrela, Zumaiako haurren euskarazko sozializazioaren diagnosiaren inguruko zenbait ideiarekin laburbilduko da emaitza.

2. HAURREN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOAZ

Hizkuntza-sozializazioa oinarri teoriko emankorra ari da izaten euskal soziolinguistikaren esparruan. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena edo, oro har, euskararen erabilera bezalako ikergaie-tan ekarpen interesgarriak egin dira. Familietan euskarak belaunaldiz belaunaldi izan duen etena zein jarraipena ikertzeko orduan, Kasaresek argudiatzen du hizkuntza-transmisioaren ikuspegiak dauzkan hainbat muga gainditzen dituela hizkuntza-sozializazioaren hurbilketak (Kasares 2014). Hizkuntzaren transmisioaren ikuspegia goitik beherakoa eta norabide bakarrekoa da: gurasoak, edo oro har, helduak dira hizkuntza haurrei transmititzen dietenak eta haurrak, berriz, helduek transmititutako horren jasotzaile huts eta pasiboak lirateke. Esan beharrik ez dago ikuspegi horren arabera gurasoak edo helduak euskaraz jakin behar

Hizkuntzaren transmisioaren ikuspegia goitik beherakoa eta norabide bakarrekoa da: gurasoak, edo oro har, helduak dira hizkuntza haurrei transmititzen dietenak eta haurrak, berriz, helduek transmititutako horren jasotzaile huts eta pasiboak lirateke.

1 Ikerketa hau egiteko Zumaiako ikastetxe guztietako lankidetzak ezinbestekoa izan da (Zumaiako Herri Eskola, Zumaiana Ikastetxea eta Oikiako Eskola); era berean, Zumaiako Udalaren laguntza ere garrantzizkoa izan da, finantzazioaz gain, baita koordinazio-lanetan ere, asko lagundu duelako. Ikerketa-taldean Larraina Elkarteko kideekin batera, datu-bilketan neurtzaile gisa aritu direnak aipatu behar dira. Halaber, Soziolinguistika Klusterreko (www.soziolinguistika.eus) teknikarien aholkularitza eta baliabide teknikoak ere baliatu dira proiektua aurrera eramateko. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu euren laguntzagatik.

**Sozializazioa
—handi-handika
harturik—
haurrari
edo heldu
hasiberriari
komunitate
jakin baten
gizarte-bizitzan
eraginkortasunez
eta egoki
parte hartzeko
beharrezkoak
diren ezagutzak,
joerak eta
jarduerak
eskuratzea
ahalbidetzen
dion prozesua da.
(Kasares 2017)**

duela, baldin eta haurrei euskara “transmitituko” badie. Ikuspegi horren bidez azaldu izan da bai familiako hizkuntza-transmisioa eta baita ere eskolakoa. Hau horrela, gizartean hedatu xamar egon daitekeen us-tea da gurasoek euskara “trasmititzen” duten familietan, haurrek euskara ikasi eta erabiliko dutela.

Hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiak modu konplexuagoan problematizatzen ditu familian eta familiatik kanpoko gertatzen diren “hizkuntza-transmisio” prozesuak. Hasteko eta behin, argitu behar da sozializazioa ez dela ez etxera edota eskolara mugatzen den prozesu bat, eta ezta ere haurtzarora mugatzen den bilakabide bat; kontrara, askotariko elkarrekintza egoeretan eta bizialdi osoan gertatzen den prozesua da sozializazioa. Besteak beste, Schiefelin eta Ochs-en lanetatik abiatuta (Schieffelin eta Ochs 1986), Kasaresek honela definitzen du sozializazioa: “Sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da” (Kasares 2017, 29). Sozializazio-prozesuak hizkuntzaren erabileraren bidez gauzatzen dira, bi zentzutari: batetik, haurra edo heldu hasi berria komunitate batean txertatu ahal izateko jarduerak hizkuntza erabiliz egiten dira; bestetik, sozializatzeko prozesuan haurrak zein hasi berriak barneratuko du hizkuntza nola erabili behar den dena delako komunitate edo talde horretako kide bihurtzeko. Hizkuntzaren barneratzea edo jabekuntza ez dagokie bakarrik hizkuntzaren dimentsio fonologiko, lexiko, morfosintaktiko eta testual-diskurtsiboei, baita, hizkuntza-erabilera bakoitzaren balio sozialari ere. Horrela, egoera elebidun edo eleaniztunetako sozializazio-prozesuetan haur edota edozein hasi berri ikasten duena da hizkuntza bakoitzak zein balio sozial daukan egoera zehatzetan. Beraz, Bengoetxeak dioten moduan, hizkuntzaren erabilerak hizkuntzari buruzko pertzepzioetan, prestigioan eta atxikimenduan eragin dezake (Bengoetxea 2013).

Hizkuntza-sozializazioaren ikuspegian, gurasoen hizkuntza-gaitasuna ez da ezinbesteko baldintza haurrak hizkuntza hori ikasi eta bere egin dezaten. Martinez de Lunak dioten moduan, lehen hizkuntza eta familiako hizkuntza erdararen bat duten haurren kasuan, posible da haurrek eskolan euskara ikasi eta erabiltzea, izan ere, “ikaslearen hizkuntza-sozializazioa bideratu duten familiak zein gizarte hurbilak eragin handia dute ikaslearen eskolako euskararen erabileran” (Martinez de Luna 2013, 131).

Bestalde, transmisioaren ikuspegiarekin konparatuta, haurren papera beste modu batera teorizatzen da hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiari: haurrak ez dira helduek transmisitutakoaren jasotzaile hutsak; aitzitik, haurrek eragin handia izan dezakete helduen zein beste haurren hizkuntza-erabileretan eta -jarreretan, bai familia esparruan, eta baita handik kanpoko askotariko esparruetan ere. Kasaresek dioen moduan, “haurren hizkuntza-sozializazioa prozesu elkarrengaitik eta noranzko askotarikoa da, belaunaldien arteko harremanetan (goitik behera nahiz behetik gora) eta belaunaldi berekoen arteko harreman eszentrikoetan (ezker-eskuin) ere mamitzen dena” (Kasares 2017, 36).

Eskolan gertatzen den euskararen erabileraren ikerketak hizkuntza-sozializazioaren izaera konplexu hau baieztatu du. Zalbidetik azaltzen duen moduan, EAEn eskola da haurren euskararen erabilera indartzerakoan emaitza sendoenak izan dituen jardun-gunea (Zalbide 2013). Hau ukazina bada ere, testuinguru askotan eskola-giroko elkarrekintzetan gaztelaniak daukan presentziak etxetik euskaldun diren haurrak gaztelaniaz sozializatzea eraman ditu haur asko (García-Ruiz 2023). Gertaera horretan haurren adinak eragina dauka (Amezaga 2013), izan ere, adinean aurrera egin ahala, haurrak etxetik eta eskolatik kanpoko sozializazio-esparruetan murgiltzen dira, izan presentzialak, izan digitalak. Espazio horietako jarduerak zenbat eta gehiago izan euskaraz, orduan eta aukera gehiago izango dira espazio horietara sartzen diren haurren arteko elkarrekintzak euskaraz izateko, euskaraz egitea “natural” bihurtzeraino. Hain zuzen ere, Zumaian gazteekin egindako ikerketa batean ikusi da euskaraz egitea naturaltasunarekin lotzen dutela gazteek beraiek (Al-tuna Zumeta eta Hernández García 2021). Ikertzaile horien arabera, ez dago argi gazteek zer esan nahi duten euskara “natural” egiten dutela diotenean. Hala ere, honako ezaugarri hauekin lotu daitezkeela uste dute: familian euskara ikasi eta hitz egitea beti edo ia beti; euskara asko egiten den testuinguru batean bizitzea; euskaraz gaitasun handia eta jario erraza izatea; euskaraz egiteak ez sortzea batere “markarik”, alegia, euskaraz egitea ez izatea besteen aurrean markatua geratzeko ezaugarria.

**Euskara
“natural” egitea
honako ezaugarri
hauekin lotu
daitezke: familian
euskara ikasi
eta hitz egitea
beti edo ia
beti; euskara
asko egiten den
testuinguru
batean bizitzea;
euskaraz
gaitasun handia
eta jario erraza
izatea; euskaraz
egiteak ez
sortzea batere
“markarik”,
alegia, euskaraz
egitea ez izatea
besteen aurrean
markatua
geratzeko
ezaugarria.**

3. IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA

I

3.1. Helburua

Egitasmoaren helburu orokorra Zumaiako haurren eta nerabeen sozializazioan euskarak duen presentziaren inguruko diagnosis egitea da.

Bi datu-bilketa hauek egin dira:

- 1. Eskolako eremu ez formaletako euskararen erabileraren neurketa (behaketa zuzena).**
- 2. Eskolan, aisialdian eta etxean egiten duten hizkuntzen erabileran euskararen presentziaren kuantifikazioa (haurrek zein euren gurasoek osaturiko inkesta).**

Helburu orokorra lortzeko xedearekin, honako helburu partzialak zehaztu dira:

- Hiru eskoletako -eta udalekuetako- sarrera eta irteeretan, jolas-lekuetan eta irakaslearen eragin zuzenik gabeko zenbait gelatan, haurren euskararen erabilera neurtzea.
- Haurrek eskolan, etxean eta aisialdian egiten duten euskararen erabilera kuantifikatzea.
- Haurren *etxeko euskararen erabilerak* beste eremu batzuetan egiten duten erabileretan duen loturak identifikatzea.
- Haurrek *euskaraz hitz egiteko duten erraztasun erlatiboak* eskolako eta *lagun arteko euskararen erabileraren* arteko lotura kuantifikatzea.

3.2. Metodologia

Ikerketan izaera metodologiko desberdinak dituzten honako bi datu-bilketa hauek egin dira²:

1. Zumaiaiko haurren eskolako eremu ez formaletako euskararen erabileraren neurketa (behaketa zuzena).
2. Zumaiaiko haurrek eskolan, aisialdian eta etxean egiten duten hizkuntzen erabileran euskararen presentziaren kuantifikazioa (haurrek zein euren gurasoek osaturiko inkesta).

3.3. Ikerketaren unibertsoa

Zumaiaiko haurren sozializazioaren ikerketaren unibertsoa, izatez, herriko haur guztiak dira. Nolanahi ere, ikerketa egingarri izan dadin, hiru mailatako haurren erabileran fokalizatu da datu-bilketa. Alegia, honako ikasmailarako haur eta nerabeek emaniko datuak aztertu dira: *Haur Hezkuntzako 5. maila (HH5)*, *Lehen Hezkuntzako 4. maila (LH4)* eta *Lehen Hezkuntzako 6. maila (LH6)*³. Datu-bilketa Zumaiaiko Herri Eskolan,

2 Ikerketa bakoitzaren alderdi metodologiko zehatzak ikerketa bakoitzaren ataletan eskainiko dira.

3 Haur Hezkuntzako 5. mailako haurrek (HH5) 5-6 urte dituzte; Lehen Hezkuntzako 4. mailakoek (LH4) 8-9, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailakoek (LH6) 11-12 urte.

Zumaiena ikastetxean, Oikiako Eskolan (udalerrian dauden hiru eskoletan) eta Udalak antolatutako udalekuetan egin da⁴.

4. BEHAKETA: HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETA

I

Arestian esan bezala, ikerketak metodologia desberdineko bi datu-bilketa egin ditu. Atal honetan horien arteko lehena aurkeztuko da, hain zuzen, behaketa zuzenaren bitartez eginiko neurketa.

4.1. Fitxa teknikoa

4.1.1. Metodologia

Zumaiako haurren hizkuntzen erabileraren neurketa egiteko Soziolinguistika Klusterrak garatutako *Hizkuntzen Erabileran Neurketarako metodologia*, aplikazio mugikorra eta datu-basea erabili dira⁵.

Behaketaren helburua eskoletako -eta udalekuetako- esparru ez formaletan HH5, LH4 eta LH6ko ikasleek egiten duten hizkuntzen erabilera (euskara, gaztelania, edo beste hizkuntzak) behatzea eta neurtzea da, elkarrizketa horietan parte hartu duten haurren artean zein diren neska eta zein mutil bereizita⁶.

4.1.2. Ibilbideak eta laginak

Behaketa honako gune hauetan egin da:

- 4 Ikerketak aukera eman du Zumaiako hiru ikastetxeetako datuak modu berezian aztertzeko. Alabaina, artikulua honetan ez dira ikastetxez ikastetxeko datuak eskainiko, horiek ikastetxeen eskutan geratu baitira. Era berean, aipatu behar da, ikerketako datu-bilketak badituela bere baitan oraindik aztertu ezin izan diren alderdi batzuk; horiek egoera sakonago arakatzeko aukera ematen dute eta hemen aurkezten diren emaitzen osagarri izan daitezke; beraz, kontuan izateko moduko aukera berriak zabaltzen dituzte.
- 5 Behaketa zuzenaren bidez jaso dira hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Teknika horrek, ezinbestean, diskrezioa eskatzen du, hau da, hizkuntza-praktikei buruzko informazioa hiztunak behatuak direla ohartu gabe jasotzea.
- 6 Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren neurketetan erabiltzen duen oinarri teknikoa jarraitu da. Honela dio Zumaiako hizkuntzen erabileraren 2021eko neurketaren txostenean: “Erabilera neurtzeko metodoa Siadeco Ikerketa Taldeak sortu zuen, Iñaki Larrañagaren gidaritzapean (2021ean hil zen soziolinguista aitzindaria). Garai hartan, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak jaso ziren estreinakoz EAEn, 1981eko zentsuaren bidez; 1983. urtean, Kale Erabileraren Neurketa metodologia sortu zuten, eta Gipuzkoako udalerrri guztietan egin zituzten neurketak (Larrañaga 1986)” (Iñarra et al. 2022, 8).

Behaketaren helburua eskoletako -eta udalekuetako- esparru ez formaletan HH5, LH4 eta LH6ko ikasleek egiten duten hizkuntzen erabilera (euskara, gaztelania, edo beste hizkuntzak) behatzea eta neurtzea da, zein diren neska eta zein mutil bereizita.

- Hiru eskoletako sarrera eta irteeretan, jolasleketan eta irakaslearen eragin zuzenik gabeko zenbait gelatan.
- Udalekuetako sarrera eta irteeretako joan-etorrietan eta begiraleen eraginik gabeko eremuetan.

Behaketak aurrez ikastetxeetako irakasleekin elkarlanean diseinatu-tako ibilbide eta neurraldietan egin dira, 15 egunetan zehar, ibilbide bakoitzean 20-25 minutuko tarteko datu-bilketak eginez. Aipagarria da irakasle arduradun horiekin zehaztu direla ibilbideak eta behaketa-orduak, hain zuzen, ikas-maila desberdinetako ikasleak euren artean bereizita behatuak izan daitezzen. Neurtzaileek landa-lana egiteko beharrezko duten formazioa jaso dute, eta datuak *neurgailuaren* bidez jaso dituzte⁷.

Ondorengo taulan, datu-bilketan jasotako laginak⁸ ikus daitezke, ikastetxearen, ikasmilaren eta ibilbidearen arabera antolatuta.

1. Taula. Behaketan jasotako laginak, ikastetxe eta ibilbideka, ikasmilaren arabera

<i>Ibilbidea</i>	<i>Guztira</i>	<i>HH5</i>	<i>LH4</i>	<i>LH6</i>
Oikiako Eskola: Gela	156	55	49	52
Oikiako Eskola: Irteera	115	35	41	39
Oikiako Eskola: Jolaslekua	106	4	36	66
Oikiako Eskola: Sarrera	122	8	64	50
Zumaiako Herri Eskola: Jolaslekua	2.519	1.173	670	676
Zumaiako Herri Eskola: Gela	1.035	1.035		
Zumaiako Herri Eskola: Irteera	1.170	286	376	508
Zumaiako Herri Eskola: Sarrera	1.813	598	601	614
Zumaiena: Gela	742	742		
Zumaiena: Irteera	1.043	158	414	471

7 Neurgailua Soziolinguistika Klusterrak mota honetako ikerketetarako garatutako mugikorreko aplikazioa da, jaso ahala datu horien jarraipena egiteko aukera ematen duena.

8 *Lagina* behatutako elkarriketetan parte hartzen ari ziren haur-kopuruak dira.


Zumaiena: Jolaslekua	1.473	472	541	460
Zumaiena: Sarrera	1.230	225	432	573
Udalekuak	938	449	489	0
GUZTIRA	12.462	5.240	3.713	3.509

Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

4.2. Emaitzak

4.2.1. Haurren euskararen erabilera orokorra

1. Grafikoa. Haurren hizkuntzen erabilera orokorra. ZUMAIA, 2021 (%)




	Lagina	Euskaraz (%)	Gaztelaniaz (%)	Beste hizkuntzatan (%)
Zumaia	12.462	75,4	24,6	0,0

Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Egindako behaketaren arabera, eskola inguruko esparru ez-formaletan Zumaiaiko haurrek egiten duten euskararen erabilera orokorra % 75,4koa da; alegia, behatutako haurren artean % 75,4 euskarazko el-karrizketetan parte hartzen ari ziren eta gaztelaniazkoetan, % 24,6; azpi-marratzekoa da ez zela beste hizkuntzen erabilerarik behatu.

4.2.2. Sexuaren araberako euskararen erabilera

2. Grafikoa. Haurren hizkuntzen erabilera orokorra, sexuaren arabera. ZUMAIA, 2021. (%)




	Lagina	Euskaraz (%)	Gaztelaniaz (%)
Neskak	5.973	80,0	20,0
Mutilak	6.489	71,2	28,8

Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021

Datuak sexuaren arabera aztertuta ikus daiteke neskek mutilek baino nabarmen gehiago egiten dutela euskaraz Zumaian. Elkarrizketetan parte hartzen zuten nesken % 80 euskarazko elkarrizketetan ari zen; mutilen artean, aldiz, % 71,2koa zen euskararen erabilera.

4.2.3. Ikasmilaren araberako euskararen erabilera

3. Grafikoa. Haurren hizkuntzen erabilera orokorra, ikasmilaren arabera. ZUMAIA, 2021. (%)



	Lagina	Euskaraz (%)	Gaztelaniaz (%)
HH5	5.234	85,4	14,6
LH4	3.719	62,1	37,9
LH6	3.509	74,6	25,3

Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Aurreko grafikoak erakusten duenez, behatutakoen artean haur txikienek euskararen erabilera handiena dute (HH5: % 85,4), nabarmen gutxiago egiten dute LH4ko ikasleek (% 62,1) eta tarteko erabilera dute adinez haur handienek (LH6: % 74,6).

4.3. Behaketaren ondorioak

Ikasleen artean egindako *Hizkuntzen erabileraren neurketak* eman dituen emaitzen artean ondoren zehazten diren honako ideia hauek azpimarra daitezke:

- Behatutako haur txikienak dira euskaraz gehien egiten dutenak Zumaian; haurrak hazi ahala, euskararen erabilera higatzen doa. Baina, erabileraren jaitsiera ez da lineala: erabilera handiena haur txikienek dute (HH5: % 85,4ko euskararen erabilera), baina nagusienek ez dute erabilera baxuena (LH6: % 74,6), izan ere, tarteko adina duten LH4koak dira euskaraz gutxien egiten dutenak (LH4: % 62,1).
- Haurren euskararen erabilera-datua Zumaiako kaleetan Soziolinguistika Klusterrak egindako *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketan* bildutako datuekin alderatzea interesgarria da. Bi ikerketa horiek metodologia berbera erabiliz egin dira, bi eremu desberdinetako esparru ez formaletan (herriko kaleetan *Zumaiako Hizkuntzen Erabileraren Neurketan* eta eskola-eremuan *Zumaiako Euskarazko Haurren Sozializazioan*). Zumaiako neurketan euskararen erabilera orokorraren datua % 50,8koa izan da, eta haurren erabilera orokorra % 70,3koa (Iñarra et al. 2022). Esan daiteke daurren kaleko eta eskola-esparruko euskararen erabileraren datuak oso koherenteak direla, izan ere, eskola-inguruan jasotako datua bost puntu altuagoa izateak berresten du eskola-giroak haurrek euskaraz gehiago hitz egin dezaten duen eragina (ikus artikulua bigarren atala: Sozializazioaz).
- Sexuaren araberako erabilera-datuei dagokionez, aipagarria da, era berean, neskek mutilek baino gehiago egitea euskaraz. Gertakari hori bat dator Euskal Herriko neurketetan jaso ohi den joera orokorrarekin, alegia, adin-tarte guztietan erabilera handiagoa izatea nesken artean, adinekoetan izan ezik:

Zumaiako haurren erabileraren jaitsiera ez da lineala: erabilera handiena haur txikienek dute (HH5), baina nagusienek ez dute erabilera baxuena (LH6), izan ere, tarteko adina duten LH4koak dira euskaraz gutxien egiten dutenak.

Emaitzak ikasle zein gurasoek emaniko datu aitortuak dira, eta, kontrastean jarriko dira aurreko atalean ikasleak ohartu gabe jasotako datu behatuekin. Bi metodologia horiek elkarren osagarri direlako hautatu dira emaitza sendoagoa izan dadin.

Zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoenari. Haurretan, gazteetan eta helduetan altuagoa da emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoena baino. Portaera hori aurreko edizioetan ere behatu da. Desberdintasun handiena haurren eta gazteen adin-taldeetan gertatzen da. Adinekoen kasuan, ordea, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago darabilte euskara. (Altuna Zumeta et al. 2022, 35)

5. INKESTA: HIZKUNTZEN ERABILERA ESKOLAN, ETXEAN ETA AISIALDIAN

I

Haurren sozializazioaren diagnosa egiteko helburu duen ikerketa honetan, metodologia desberdina erabiliz bigarren datu-bilketa egin da, kasu honetan, inkesta bitartez ikasle zein gurasoek osatutako inkesta batez jasotako datuak dira. Beraz, emaitzak ikasle zein gurasoek emaniko datu aitortuak dira, eta, kontrastean jarriko dira aurreko atalean ikasleak ohartu gabe jasotako datu behatuekin. Bi metodologia horiek elkarren osagarri direlako hautatu dira, emaitza sendoagoa izan dadin.

Atal honetan, beraz, inkesta bitartez izandako emaitzak aurkeztuko dira.

5.1. Fitxa teknikoa

Azterketaren helburua haurren sozializazio-prozesuaren zenbait eremutan euskararen erabilera zein den ezagutzeta eta kuantifikatzea izan da. Zehazki, honako hauek dira aztertutako gaiak⁹:

- Haurren euskararen erabilera *eskolan, etxean* eta *aisialdian*.
- Haurren *etxeko euskararen erabileraren* eta *eskolako euskararen erabileraren* arteko lotura.
- Haurren *etxeko euskararen erabileraren* eta *kalean, lagun arteko erabileraren* arteko lotura.
- Haurrek *euskaraz hitz egiteko duten erraztasun erlatiboaren* eta *euren lagun arteko euskararen erabileraren* arteko lotura.

9 Ikerketa honetan landu diren gaiak eta galdesortak ARRUE ikerketan jasotako informazioan oinarrituta eta inspiratuta aukeratu eta egin dira. Ikus ikerketa horren txostena: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/arrue-ikasleak-hiztun-2011/> (Martínez de Luna et al. 2013)

Datu-bilketarako bi galde-sorta erabili dira, ikasleek eta euren gurasoek bete dituztenak¹⁰. Galdesortak Zumaiaiko hiru eskoletako LH4ko eta LH6ko ikasle guztiei pasa zitzaizkien¹¹. Horrez gain, datu horiek kontrastatzeko helburuarekin, beste galde-sorta bat prestatu zen ikastetxeetako HH5ko, LH4ko, LH6ko ikasleen guraso guztientzat. Bi bide ezberdin erbilitako datu-bilketa bikoitz hori egiterakoan errealitatearen argazki fidagarriagoa ateratzea izan dugu helburu.

Ikasleei zein gurasoei pasatako eta jasotako galdesorta-kopuruak ondorengo taulan bildu dira, ikastetxearen eta ikasmilaren arabera antolatuta. Ikus daitekeen bezaka, oso altua da gurasoen aldetik jasotako erantzunen proportzioa: gurasoen % 90ek eman du informazioa, eta horrek, gure ustez, gurasoek euskararekiko duten jarrera positiboa adierazten du. Ikasleen aldetik, berriz, erabateko erantzuna jaso da; hau da, aztergai diren ikasmiletako Zumaiaiko 368 ikasleren datuak jaso dira, ikerketa honetan.

2. Taula: Galdesortak pasatako Zumaiaiko ikastetxeetako haurrak eta gurasoak

		Haur Hezkuntza		LH4		LH6		GUZTIRA	
		Banatu ¹²	Jaso ¹³	Banatu	Jaso	Banatu	Jaso	Banatu	Jaso
Oikiako Eskola	Ikasleak	(14)				7	7	7	7
	Gurasoak	28	27			14	14	42	41
Zumaiaiko Herri Eskola	Ikasleak	(64)		93	93	84	84	241	241
	Gurasoak	128	121	186	175	168	161	482	457
ZUMAIENA	Ikasleak	(37)		35	35	48	48	120	120
	Gurasoak	74	74	70	67	96	89	240	230
GUZTIRA	Ikasleak	(115)		128	128	139	139	368	368
	Gurasoak	230	195	256	242	278	250	764	687

Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarteak. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

10 Gurasoek emaniko datuak kontrastean jarri dira haurrek emaniko guztiekin, eta lortutako erabateko koherentziak ikerketaren fidagarritasuna handitu du. Nolanahi ere, artikuluko honetan, gurasoek emaniko datuen berri soil-soilik beharrezkoa ikusi den kasuetan eskainiko da.

11 HH5eko ikasleek ez dute honetan parte hartu, txikiegiak baitziren horretarako. Oikian LH4 eta LH6ko ikasleak batera daude gelan, eta, behaketan bereizi ezin zirenez, ez ditugu galdesortaren banaketan ere bereizi, ez eurenak, ez eta euren gurasoen erantzunak ere. Kasu horretan, erantzun guztiak LH6ko taldean aztertu dira.

12 Banatu diren galdesortak: parentesi artean HH5eko ikasle-kopuruak; horiei ez zaie banatu, baina bai haien gurasoei.

13 Jasotako diren galdesortak

5.2. Emaitzak


5.2.1. Haurren euskararen erabilera eskolan

Ikasleek osatutako inkestaren bidez jasotako datuek LH4ko eta LH6ko ikasleen eskola-eremuko euskararen erabilera kuantifikatzea ahalbidetu dute, honako lau egoera hauetan:


- 1) ikasleen euskararen erabilera irakasleekin gela barruan 2) ikasleen erabilera irakasleekin gelatik kanpo, 3) ikasleen euskararen erabilera ikaskideekin gela barruan, eta 4) ikasleen erabilera ikaskideekin gelatik kanpo.

Emaitzak ondorengo grafikoan ikus daitezke:

4. Grafikoa. Euskaraz beti edo gehienetan ZUMAIA. IKASLEAK. LH4 (%)



5. Grafikoa. Euskaraz beti edo gehienetan ZUMAIA. IKASLEAK. LH6 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Azpimarratzeko emaitza nagusiak honako hauek dira:

- Zumaiaiko haurren euskararen erabilera eskola-eremuan oso handia da: LH4koen artean irakasleekin % 90etik gorakoa, eta LH6koen artean % 95etik gorakoa. Ikaskideekin zerbait baxuagoa izan arren ere, oso handia da baita ere (LH4: % 86,7 % 78,9 gela barruan eta jolaslekuan, eta LH6 % 85,6 % 82 jolaslekuan eta barruan, hurrenez hurren).
- Adinaren arabera aztertuta ikus daiteke, oro har, LH6ko haurren erabilera LH4koena baino zerbait handiagoa dela (salbuespena,

ikaskideekin gela barruan daudenean: kasu horretan bi adin-taldekoek oso antzeko erabilerak dituzte)¹⁴.

5.2.2. Ikasleen eskolako euskararen erabilera orokorra, mailaz maila

Mailaz mailako euskararen erabilera orokorra zehazteko, ikerketan aztertu diren lau erabileren arteko konbinazioa egin da, erabilera bakoitzari pisu desberdina esleitzuz¹⁵. Honakoa da emandako pisuen banaketa, kasu bakoitzerako:

• Ikaskideekin gelan	% 25
• Ikaskideekin jolaslekuan	% 40
• Irakasleekin gelan	% 20
• Irakasleekin gelatik kanpo	% 15
GUZTIRA	% 100

Balioen esleipen horren arabera kalkulatu dira bi ikasmaitako erabilera orokorrak, eta ondorengo grafikoan ikus daiteke kalkuluaren emaitza.

14 Aipagarria da ARRUE ikerketak ere ondo bereizi dituela ikasleek egiten duten erabilera: handiagoa da irakasleekin egiten duten erabilea (gela barruan zein gelatik kanpo) eta ikaskideekin egiten dutena (gela barruan zein kanpoan) (Martinez de Luna 2013, 38-39).

15 Balioen esleipen horren arabera kalkulatu dira bi ikasmaitako erabilera orokorrak. Erabilera orokorraren kalkulua egiteko erabilitako irizpidea, aurrez ARRUE ikerketan erabilitako berbera da. “Mendeko aldagai berria osatzean aukera ezberdinak baloratu dira a, b, c eta d aldagaiak konbinatzeko, helburua izanik ikasleek eskolan dauden bitartean duten hizkuntza-erabilera guztia laburbiltzen duen aldagai trinko bat sortzea; eta gaztelania < > euskara erkaketa bidez gauzatu da aipatu konbinaketa. Horrela izendatu dugu sortutako aldagai trinkoa: ikasleen eskolako erabilera orokorra. [...]

Zergatik eman zaie lau erabilerei pisu ezberdina mendeko aldagaia osatzean? Eta, zeren arabera hobetsi da haztapan hori eta ez beste bat? Ondoko hiru parametroak hartu dira kontuan haztapa egiteko garaian:


a) Mintzajardunaren zenbatekoa: zenbaki zehatzetan ezin eman baliteke ere normalean, bistan da ordu gehiago «sartzen» dituela LMH4ko (zer esanik ez DBH2ko) ikasleak bere ikaskideekin, irakasleekin baino. ... Ahozko jarduna, hitzezkoa, bereziki da alor horretan zentrala. [...]

b) Mintzajardunaren nolakoa: gizarte-bizitzarako garapen-oinarri gisa esanguratsua goa da ikasleen arteko erabilera informala, eguneroko asmo-gogo-beldur-irrikeraz oratua, trebetasun —edo ezagutza— item kurrikularrak lantzeko jarduera formala baino. [...]

c) Mintzajardunaren situazio-egoera: (non-norekiko jardunaren eragina): diferentziak dira irakasleekiko harreman-jarduerak eta ikaskideekikoak, aurreko ataletan esandakoaz gainera, situazio-egoerak eragindako baldintzen aldetik ere. Libreagoak dira jarduera batzuk, eta ingurumen-baldintzek behartuagoak besteak. [...]” (Martínez de Luna et al. 2013, 58).

Arretaz begiratzekoa izan da eskola-eremuan euskararen erabilera oso handia izan arren, LH4ko haurren artean euskararen erabilera orokorra LH6an egiten dena baino txikiagoa izatea.

6. Grafikoa. Eskolako euskararen erabilera orokorra (esleितua). ZUMAIA. IKASLEAK. LH4, LH6 (%)




Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021

Haurren euskararen erabilera oso handia dela esan daiteke, baina, azpimarragarria da haur gazteagoen erabilera orokorra handiagoenarena baino txikiagoa izatea: LH4ko ikasleen eskolako euskararen erabilera esleितua % 84,9; LH6ko ikasleen eskolako euskararen erabilera esleितua % 88,2. Arretaz begiratzekoa izan da eskola-eremuan euskararen erabilera oso handia izan arren, LH4ko haurren artean euskararen erabilera orokorra LH6an egiten dena baino txikiagoa izatea. Alderagarria da neurri handi batean behaketaren bitartez jasotako adinaren arabeko datu desberdintasunarekin (ikus 4.2.3 atala).


5.2.3. Euskararen erabilera eskolaz kanpoko jardueretan, aisialdian

Atal honetan, Zumaiaiko haurrek euren aisialdian egiten duten hizkuntzen erabilerari buruzko datuak aztertuko dira. Bi alderdi aztertu dira: lehenik, haur eta nerabeek lagunekin kalean zein hizkuntzatan egiten duten galdetu zaie, eta euren erantzunak eskolan egiten dutenarekin alderatu dira¹⁶, ondorengo grafikoetan ikus daitekeen moduan.

7. Grafikoa. Haurrek euskaraz beti edo gehinetan. IKASLEAK. LH4 (%)



8. Grafikoa. Haurrek euskaraz beti edo gehinetan. IKASLEAK. LH6 (%)



Bai LH4 haurrek zein LH6koek nabarmen gehiago egiten dute euskaraz eskolan kalean lagunekin baino, eta aurreko kasuetan bezala, zebait gutxiago egiten dute LH4ko ikasleek (% 64,1) LH6koek baino (% 66,2).


Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Ikus daitekeenez, ikasleen erantzunen arabera, bai LH4 haurrek zein LH6koek nabarmen gehiago egiten dute euskaraz eskolan kalean lagunekin baino, eta aurreko kasuetan bezala, zebait gutxiago egiten dute LH4ko ikasleek (% 64,1) LH6koek baino (% 66,2). Bi adin-taldekoetakoek ia 10etik 8tan hitz egiten dute euskaraz *beti* edo *gehienetan* eskolan. Aldiz, erantzun horien arabera, 10etik 6eta eta erdira jaisten da erabilera hori lagunekin kalean. Beraz, oso kontuan izateko datua dela dirudi honako hori.

Bigarrenik, ikasleei galdetu zaie zein hizkuntzatan egiten duten euren aisialdiko esparru desberdinetan. Emaitzak, euskararen erabileraren arabera eta ikasmilaz antolatuta, ondorengo grafikoetan ikus daitezke:


16 Alderaketa hau egiteko, eskolako erabilera-datuak soilik gela barruan eta jolaslekuan erabili dira, irakasleekin egiten dituzten erabilerak aintzat hartu gabe.

9. Grafikoa. Hizkuntzak eskolaz kanpoko jardueretan. IKASLEAK. LH4 (%)¹⁷



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

10. Grafikoa. Hizkuntzak eskolaz kanpoko jardueretan. IKASLEAK. LH6 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Ondoren zehazten dira datu azpimarragarrienak:

¹⁷ Ikasleek nahi adina hizkuntza hauta zitzaketen kasu honetan, eta horregatik, eskluiuentek ez direnez, ehunekoen batuzek ez dute % 100 ematen.

- *Kirol entrenamenduetan* gailentzen da euskararen erabilera Zumaiako haurren eskolaz kanpoko jardueretan, ikasleek erantzun dutenaren arabera. Bai LH4ko zein LH6ko ikasleen artean, ikasleen % 80etik gora euskaraz egiten dute kirola.
- *Liburuen irakurketan* (eta *udalekuetan*) ere, ikasle gehienek aitortzen dute euskararen erabilera handia (LH4: % 84,4; LH6: % 66,9), nahiz eta LH6koen artean gaztelaniazko irakurketa gailentzen zaion (LH6: %68,6 gaztelaniaz).
- *Musika* esparruko euskararen erabilera nabarmen jaisten da aurreko jardueretan egiten denarekin alderatuta, bi ikasmaitakako ikasleen artean (LH4: % 50,1; LH6: % 30,9k). Irakurketarekin gertatu bezala, LH6ko ikasle gehiagok entzuten dute musika gaztelaniaz euskaraz baino (% 30,9k euskaraz, % 63,3k gaztelaniaz).
- *Internet* euskaraz LH4ko ikasleen % 43,8k kontsultatzen du, eta, gaztelaniaz % 71,9k (ia bikoitzak). Alde hori nabarmen handiagoa da LH6ko ikasleen artean: euskaraz % 27,3k, % 92,8k gaztelaniaz kontsultatzen du.
- *Serieak* ere gaztelaniaz ikusten dira gehiago euskaraz baino. LH4ko ikasleen artean: % 34,4k euskaraz, % 88,3k gaztelaniaz. LH6ko kasuan aldeak are handiagoak dira: euskaraz ikusten dute ikasleen % 10,88 eta gaztelaniaz % 90,6k.
- Ingelesaren erabilera esanguratsua da musika entzutean (% 22,7 eta % 29,4 LH4 eta LH6, hurrenez hurren), klase partikularretan (% 4,7 eta % 25,2 LH4 eta LH6, hurrenez hurren) eta serietan (% 6,3 eta %7,9 LH4 eta LH6, hurrenez hurren).

***Kirol entrena-
menduetan
gailentzen da
euskararen
erabilera
Zumaiako
haurren eskolaz
kanpoko
jardueretan.
Internet
akontsultatzen
edo serieak
ikusten, aldiz,
euskararen
erabilera asko
jaisten da.***


5.2.4. Haurren euskararen erabilera etxean

Etxeko euskararen erabilera aztertzeke hiru egoera bereizi ditu ikerketa honek, hain zuen, *haurrek gurasoekin, etxeko guztiak elkarrekin daude-nean*, eta *gurasoek euren artean egiten duten* hizkuntzen erabilereari buruz galdetu zaie, haurrei zein gurasoei ere. Ondorengo grafikoetan datuek ikasleek emaniko erantzunen emaitzak eskaintzen dira LH4 eta LH6ko


haurren kasuan¹⁸. Aldiz, HH5eko haurren kasuan gurasoek emaniko datuen emaitzak eskaintzen dira.

5.2.4.1 Etxeko egoera desberdinetako hizkuntzen erabilera: LH4 – LH6

11. Grafikoa. Hizkuntzen erabilera etxeko egoera desberdinetan. IKASLEAK. LH4 (%)



12. Grafikoa. Hizkuntzen erabilera etxeko egoera desberdinetan. IKASLEAK. LH6 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarteak. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Grafikoetan ikus daitekeen moduan, Zumaiaiko haurrek eta nerabeek etxeko giroan egiten duten euskararen erabilera badaude aldeak:

- Adinari erreparatuz gero, oro har, haur gazteenen etxeetan (LH4) gutxiago egiten da euskaraz -etxeko hiru egoeretan-, haur helduagoen etxeetan egiten dena baino (LH6).

18 Gurasoek emaniko datuak erabat kontraste modura erabili dira ikerketa honetan, eta, esan behar da, guztiz koherenteak izan direla euren seme-alabek emandakoekin alderatuta.

- Zumaiaiko etxeetan *haurrek eta nerabeek gurasoekin* aritzean egiten da euskaraz gehien, *etxeko denak batera* daudenean tarteko erabilera egiten da, beti ere, haurren pertzepzioaren arabera, eta euskararen erabilera baxuena *gurasoek euren artean* ari direnean gertatzen da; hala jaso da, gainera, bi adin-taldeetako haurren etxeetan.
- Etxeko giroko hiru erabileretan LH4ko ikasleen etxeetan gutxiago erabiltzen da euskara LH6koenetan baino, eta hiru kasuetan, aldeak esanguratsuak dira. Adibide modura azpimarra daiteke LH4ko ikasleen artean *gurasoekin euskaraz beti edo gehienetan* egiten dutenak % 57 direla, eta, aldiz, LH6koen artean %65,1.
- Beste aldeko irakurketa eginez, ikus daiteke *gurasoekin beti edo gehienetan gaztelaniaz* egiten duten ikasleak gehiago direla LH4koen artean LH6koen artean baino (LH4: % 34,8k, LH6: %25,2k).

Etxeko giroko hiru erabileretan LH4ko ikasleen etxeetan gutxiago erabiltzen da euskara LH6koenetan baino.

5.2.4.2. Haur Hezkuntza (HH5)

Arestian esan bezala, ikerketa honetan parte hartu duten haur txikiak ez dute euren etxeetako hizkuntzen erabileraren berri eman, inkesta betetzeko txikiak baitziren. Baina, euren gurasoei bai, galdetu zaie, euren etxeetako euskararen erabilera nolakoa den. Ondorengo grafikoe-tan ikus daitezke gurasoek emandako erantzunen arabera emaitza orokorrak¹⁹.

13. Grafikoa. Euskararen erabilera etxean ZUMAIA HH5 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarteak. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

¹⁹ Kontuan izan, hemen jaso diren datuak *euskaraz beti edo gehienetan* egiten den *etxe-kopuruaz* ari garela (%).

Euskara gehien erabiltzen den egoera haurren eta gurasoen arteko elkarrizketetan da, etxeko guztiak batera daudenean euskararen erabilera zertxobait baxuagoa da eta bereziki txikiagoa da gurasoen artean.

Datu horien azterketaren arabera, honako ideia hauek azpimarratu behar dira:

- Euskara gehien erabiltzen den egoera *haurren eta gurasoen arteko elkarrizketetan* da (% 68,8), *etxeko guztiak batera daudenean* euskararen erabilera zertxobait baxuagoa da (% 64) eta bereziki txikiagoa da adin honetako gurasoen artean ere (% 52).
- Era berean, baieztatu da, haur txiki horien etxeetan oro har, haur nagusiagoetan baino gehiago egiten dela euskaraz hiru egoera horietan.

5.2.5. Euskararen erabilera desberdinen arteko loturak

Atal honetan, euskararen erabilera baldintza dezaketen honako bi aldagai hauen arteko loturen berri emango da:

- *Haur eta nerabeen etxeko euskararen erabilera*²⁰ *eskolako euskararen erabilera orokorrarekin*²¹ alde batetik, eta, bestetik, *euren lagunekin kalean* egiten dutenarekin²².
- *Haur eta nerabeek euskaraz hitz egiteko duten erraztasunaren* eta *euren lagunekin kalean* egiten dutenarekin.

Ondorengo ataletan ikus daitezke lortutako emaitzak.

5.2.5.1. Etxeko euskararen erabilera eta eskolako erabilera orokorra, LH4, LH6


Ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala, etxean guztiek elkartuta daudenean egiten den euskararen erabileraren eta eskolako erabilera orokorraren artean badago harreman zuzena. Esan bezala, inkesten birtartez jasotako datu aitortuek adierazten dute, esate baterako, etxeko euskararen erabilera *euskaraz beti* denean eskolako erabilera orokorra % 90etik gorakoa dela.

20 Ikasleek adierazitako etxeko erabileraren arabera

21 Eskolako erabilera orokorraren kalkulua egiteko metodoaz ikus 5.2.2 atala


22 ARRUE ikerketen emaitzek erakutsi dute lotura estua dagoela aldagai horien artean, eta horregatik aztertu dira ikerketa honetan ere: “Analisetan aztertu diren aldagai gehienek badute lotura ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin*, bai LMH4n eta bai DBH2n. Lotura horietako asko sendoak dira, esate baterako: *erabilera eskolaz kanpoko jardueran antolatuetan, erabilera lagunekin txateatzean, hizkuntza eredu, etxeko erabilera, edota komunikabide eta kultur kontsumoa bezalako aldagaien kasuetan*” (Martinez de Luna 2013, 72).

14. Grafikoa: Eskolako euskararen erabilera orokorra, etxeko erabileraren arabera²³. ZUMAIA. LH4 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

15. Grafikoa: Eskolako euskararen erabilera orokorra, etxeko erabileraren arabera. ZUMAIA. LH6 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.

Grafikoeak erakusten duten bezala, etxean zenbat eta gehiago hitz egin euskaraz orduan eta handiago da eskolako euskararen erabilera orokorra. Horrez gain, kontuan izateko ideiak honako hauek dira:

- Etxean *beti edo gehienetan euskaraz* egiten duten ikasleen artean eskolako erabilera % 90tik gorakoa da bi ikasmailetako ikasleen artean.


²³ Etxeko erabilera *etxean denak batera daudenean*

Etxean beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten duten ikasleen artean eskolako erabilera % 90tik gorakoa da bi ikasmailetako ikasleen artean. Bi hizkuntzetan berdin egiten duten ikasleen kasuan asko jaisten da euskararen eskolako erabilera.

- *Bi hizkuntzetan berdin* egiten duten ikasleen kasuan asko jaisten da euskararen eskolako erabilera: % 72,1 LH4ko ikasleen artean eta % 77,8 LH6koen artean.
- Era berean, *beti edo gehienetan* gaztelaniaz egiten dutenen kasuetan euskararen erabilera *bi hizkuntzetan berdin* egiten denaren pare geratzen da: (% 71,5 LH4 eta %78,6 LH6).
- *Beti gaztelaniaz* edo *beste hizkuntza batean* aritzen direnek *bi hizkuntzetan* edo *gaztelaniaz euskaraz baino gehiagotan* egiten dutenen antzeko baliotan dute eskolako erabilera. Aipagarria da erabat, kasu horietan eskolak erakusten duen gaitasuna euskaraz hitz egin dezaten, erabilera-datu horiek oso altuak baitira orohar kasu horietan ere.


5.2.1.1. Etxeko euskararen erabilera eta haurren lagunarteko erabilera, LH4 - LH6

16. Grafikoa: Haurren kaleko erabilera lagunekin, etxeko erabileraren arabera ZUMAIA. LH4 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021

17. Grafikoa: Haurren kaleko erabilera lagunekin, etxeko erabileraren arabera. ZUMAIA OROKORRA. LH6. (%)



Etxean bi hizkuntzetan berdin egiten duten ikasleen kasuan asko jaisten da, euskararen erabilera lagunekin kalean; bereziki handia da jaitsiera LH4ko kasuan (% 52,5 LH4, % 70,8 LH6).

Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkarte. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021.


Aurreko grafikoetako datuen azterketa eginez azpimarra daitezkeen ideia nagusiak honakoak dira:

- *Etxean zenbat eta gehiago hitz egin euskaraz orduan eta erabilera handiagoa da haurrek kalean euren artean egiten dutena: kaleko erabilera handienak etxean beti edo gehienetan euskaraz egiten den kasuetan gertatzen da, % 80etik gora bi kasuetan.*
- *Etxean bi hizkuntzetan berdin egiten duten ikasleen kasuan asko jaisten da, ordea, euskararen erabilera lagunekin kalean; bereziki handia da jaitsiera LH4ko kasuan: % 52,5 LH4ko haurren artean, eta % 70,8 LH6koen artean).*
- *Etxean beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen direnen artean, bi ikasmailetako haurrek egiten dute gutxien euskaraz lagunekin kalean.*
- *Etxean beste hizkuntza batean aritzen direnek, izan LH4koak zein LH6koak antzeko baliotan darabilte euskara lagunekin kalean; erlatiboki oso erabilera altuak dira, kasu horietan, % 65 eta % 66,7ko euskararen erabilera lagunekin, kalean, hurrenez hurren.*

5.2.1.2. Euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboa eta lagunarteko erabilera kalean, LH4 – LH6


Euskaraz hitz egiteko erraztasuna edo gaitasun erlatiboak duen lotura ere aztertu nahi izan da ikerketa honetan²⁴, hori bai baita azken ikerketa nagusietan agerian jartzen ari den aldagai garrantzizkoenetakoa.

18. Grafikoa. Haurren kaleko erabilera lagunekin, hizkuntza-erraztasunaren arabera. ZUMAIA LH4 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021

19. GRAFIKOA: Haurren kaleko erabilera lagunekin, hizkuntza-erraztasunaren arabera. ZUMAIA LH6 (%)



Iturria. Larraina Zumaiaiko euskara elkartea. Haurren hizkuntzen sozializazioa Zumaian 2021

Aurreko grafiko eta taulatan aztertutako datuek erakusten dutenez, azpimarratu behar dira honako ideia nagusiak:

24 Aldagai hau ARRUE ikerketak ere kontuan izan du ikasleek egiten duten euskararen erabileran aldagai eraginkorra delako (Martinez de Luna et al. 2013, 23). Era berean, Inkesta Soziolinguistikoak ere beretsi du euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusienetakoak erraztasuna eta harreman-sareak direla (Eusko Jaurlaritza 2023, 11).

- Euskaraz errazago egiten dutenen artean % 90ek baino gehiagok euren artean euskaraz egiten dute; bi hizkuntzetan erraztasun bera dutenek nabarmen gutxiago egiten dute euskaraz (edo gaztelaniazko erabilera bereziki handiagoa da). Gaztelaniaz euskaraz baino errazago moldatzen direnen artean heren batek egiten du euskaraz lagunekin, hots, euskararen erabileraren halako bi da gaztelaniaren erabilera.

6. ONDORIOAK: ZUMAIKO HAURREN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOAREN DIAGNOSIA

I

Zumaiako haurren eta nerabeen euskarazko sozializazioari buruzko ikerketak emandako datuek ahalbidetu dute prozesu horretan euskarak duen lekuaren inguruko diagnostia egitea.

Hasteko, esan daiteke Zumaiako haurren eskolako euskararen erabilera oso altua dela. Erabilera hori berretsi da behaketaren eta inkestaren bitartez jasotako datuekin. Hori da, hain zuzen, ikerketa honek erakutsi duen indargune garantzizko bat, hau da, bi metodologia desberdinekin lortutako emaitzen koherentzia handia.

Azpimarratzekoa da oso, gainera, kontuan hartzeko erabilera desberdina antzeman direla, haurren adinaren arabera begiratuta. Desberdintasun horien artean dago ikerketaren emaitza harrigarriena. Izan ere, Zumaiako haurren artean txikienak dira euskaraz gehien egiten dutenak, azken urteetako ikerketa gehienek erakusten duten bezala; baina ezin da esan haur horien euskararen erabilera modu linealean jaisten denik haurrak hazi ahala: espero izatekoa zen bezala, HH5ekoek egiten dute gehien euskaraz eta LH4ekoek haiek baino gutxiago; baina LH6koek tarteko erabilera egiten dute. Hau da, LH4ko haurrak baino nabarmen gehiago egiten dute Zumaiako LH6ko haur handiagoek. Eta desberdintasun hori behaketaren bitartez jasotako datu neurtuekin eta inkestaren bitartez jasotako datu aitortuen bitartez baieztatu da da.

Beraz, arretaz begiratzeko gaia da ikerketan parte hartu duten LH4ko haurren euskararen erabilera norantz bilakatuko den LH6ko adinera heltzerakoan (bi urteko epe-mugan). Alegia, komeniko litzateke jakitea ikerketa honetan parte hartu duten LH6ko haurren portaera linguistikoa hartzen duten haur horiek, gaur egungoa handituz ala desberdintasun hori mantentzen den. Nolanahi ere, ikerketak baieztatu du

Zumaiako haurren artean txikienak dira euskaraz gehien egiten dutenak, azken urteetako ikerketa gehienek erakusten duten bezala; baina ezin da esan haur horien euskararen erabilera modu linealean jaisten denik haurrak hazi ahala: HH5ekoek egiten dute gehien euskaraz, baina LH4ko haurrak baino nabarmen gehiago egiten dute Zumaiako LH6ko haur handiagoek.

Eskola da Zumaiako haurrek euskaraz gehien egiten duten gunea, eremu formalean euskararen nagusitasuna erabatekoa da, araua da; zenbat eta egoera formalago orduan eta erabilera handiagoa. Aisialdian, ordea, eremu formaletik aldenduz, haurrek eta nerabeek gutxiago egiten dute euskaraz.

adinean aurrera egin ahala, haurren hizkuntza-sozializazioan eraldaketak gertatzen direla (Amezaga 13), kasu batzuetan aurreikusi gabeko norabidean.

Bestalde, emaitzen artean baieztatu da, aurreikusi bezala, eskolak badiela ahalmen handia haurrek euskaraz egin dezaten (Zalbide 2013). Eskola da Zumaiako haurrek euskaraz gehien egiten duten gunea, eremu formalean euskararen nagusitasuna erabatekoa da, araua da; zenbat eta egoera formalago orduan eta erabilera handiagoa. Eta, hala islatzen da, esate baterako, haurrek euskaraz gehiago egitean *ikasgelan jolaslekuan* baino.

Aisialdian, ordea, eremu formaletik aldenduz, haurrek eta nerabeek gutxiago egiten dute euskaraz. Behatutakoaren arabera, eskolako eremu ez formalean euskararen erabilera handia da (% 75 inguru), eta euren erantzunetan, erabilera txikiagoa aitortzen dute esparru horietatik aldentzerakoan (% 65 inguruk adierazten du lagunekin *beti* edo *gehienetan* euskaraz egiten dutela). Era berean, aisialdiko jardueretan, desberdintasun aipagarriak badira. Esate baterako, LH4ko zein LH6ko haurren *kirol entrenamenduetan* euskararen erabilera nagusia da, erabat. Pentsatzekoa da Zumaiako haurrei eskaintzen zaizkien antolatutako kirol-jarduerak euskaraz direla, oro har. Datu honek badu koherentzia beste udalerrri euskaldun zenbaitetan jaso diren datuekin, esate baterako, ezaugarri soziolinguistiko antzekoa duten eskualde bereko Orio eta Zarauzko udalerrietan behatutako kirol-esparruko neurketan % 85etik gorako euskararen erabilera neurtu baita kirol entrenamenduetan (Soziolinguistika Klusterra 2022a, 4) (Soziolinguistika Klusterra 2023, 2))²⁵.

Aldiz, *dantza/musika* jardueretan eta *liburuak* irakurtzean euskarazko erabilera oso handia da LH4ko ikasleen artean, baina LH6ko haurren artean, gaztelania nagusitzen da. Pentsatzekoa da, eskolaren eraginez LH4ko haurrei proposatzen zaizkien irakurketak euskarazkoak izango direla. LH6ko nerabeen artean, ordea, dibertsifikatuagoa izan daiteke irakurgai- eta musika-proposamen hori. Gainera, adin horretako nerabeek autonomia handiagoa izan ohi dute, eta ezaugarri horrek, dirudieenez, gaztelaniazkoaren aldeko aukeren alde jokatzeko du.

25 Kontuan izan behar da datu horiek ez direla erabat konparagarriak, batzuk aitortuak eta besteak behaketaren emaitzak direlako, baina, oro har, kirol esparruan koherentzia handiko euskararen erabilera ia erabatekoa erakusten dute.

Era berean, *interneteko* erabilera eta *serieak* ikustean gaztelaniaren nagusitasuna erabatekoa da, bereziki LH6ko nerabeen artean. Badira esparru honetan berariaz zaintzeko gaiak, beraz.

Familia-giroan euskarak duen lekuari dagokionean azpimarratu behar da euskara dakiten gurasoek haurrei euskaraz egitearen inguruan duten aldeko jarrera aktiboa, horren isla baita hurrekin egiten duten erabilera handia: *hurrek eta gurasoak elkarrekin hitz egiten* dutenean gertatzen da erabilera handiena, zertxobait gutxiago hitz egiten da *etxeko guztiak elkarrekin* daudenean eta nabarmen gutxiago *gurasoek euren artean* egiten dutenean. Hizkuntza-portaera hori ohikoa da Euskal Herriko familia askotan eta hala baieztatu da ikerketa honetan ere.

Ikerketa honek eman duen beste datu interesgarria izan da etxeko euskararen erabilerak duen lotura hurrek euren lagunekin kalean egiten dutenarekin. Izan ere, etxean guztiak daudenean *euskaraz beti* edo *gehienetan* hitz egiten den kasuetan, etxe horietako hurrek eskolan eta kalean egiten duten euskararen erabilera oso handia dela ikusi da, baina, bi hizkuntzetan *berdin* edo *gaztelaniaz gehiago* egiten den kasuetan, baieztatu da modu nabarmenean jaisten dela euskararen erabilera eskolan eta lagun artean. Beraz, ziur asko, ezaugarri hori arretaz zaintzeko modukoa izango da.

Datuen argitan esan daiteke, gainera, eskolako eta kaleko haurren arteko giro euskaldunak euskaraz hitz egiteko eragin handia dutela etxean euskaraz egiten ez duten hurrengan, baina, aldiz, eragin txikiagoa etxean euskaraz eta gaztelaniaz berdin egiten dutenengan. Etxean *beste hizkuntza batean* egiten dutenen kasuan kalean lagunekin euskararen erabilera-maila altuagoak adieraztea azpimarragarria da.

Hurrek euskaraz hitz egiteko duten erraztasunak neurri handian baldintzatzen du hurrek euren artean euskaraz egitea. Euskaraz gaztelaniaz baino errazago egiten duten haurren artean % 90ek baino gehiagok egiten dute euskaraz euren artean; bietan erraztasun bera dutenek gaztelaniaz euskaraz baino nabarmen gehiago egiten dute. Gaztelaniaz euskaraz baino errazago moldatzen direnen artean heren batek egiten du euskaraz lagunekin, hots, euskararen erabileraren halako bi da gaztelaniaren erabilera.

Laburbilduz: eskolaren eraginpean euskararen erabilera araua da, eta kalean ere, adinkideen artean badago nolabaiteko araua, beti ere, euska-

Euskaraz gaztelaniaz baino errazago egiten duten haurren artean % 90ek baino gehiagok egiten dute euskaraz euren artean; bietan erraztasun bera dutenek gaztelaniaz euskaraz baino nabarmen gehiago egiten dute. Gaztelaniaz euskaraz baino errazago moldatzen direnen artean heren batek egiten du euskaraz lagunekin.

Era berean, arretaz begiratu behar da etxeko erabilera elebiduna eta, haurrek duten euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboa, aldagai horiek erabakigarriak baitira euren euskararen erabileran bai esparru formalean -eskolan-, eta, baita, lagun arteko aisialdiko sozializazioan.

raren gaitasun erlatiboa horretan lagungarri denean, eta antzeko gaitasuna duten haur eta nerabeen artean kalean. Etxean, ordea, harremanak adin desberdinetako pertsonen artekoak izan ohi dira, eta gerta daiteke horien artean gaitasun desberdineko hiztunak elkartzea. Oro har, haurren kaleko giroa etxekoa baino euskaldunagoa izan daiteke eta, horrek, etxean hain giro euskalduna ez duten haurrengan, euskaraz gehiago egin dezaten eragina izan dezake.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Larraina Euskara Elkarteak eginitako ikerketa honen emaitza *Zumaiako haurren sozializazioan* euskarak duen lekuaren inguruan lehen diagnostikoa egitea izan da (Larraina Euskara Elkarte 2022).

Diagnosi horren arabera, Zumaiako haurren artean euskararen erabilera oso handia dela esan daiteke, herriko euskaldunen dentsitateari dagokionez aurreikusten zen modura. Alegia, Zumaiak, % 74ko euskara-gaitasuna duen udalerria izanik (EUSTAT 2021), Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean ere biltzen da (UEMA), udalerri euskaldun eta *arnasgune* modura definitzen diren beste udalerri oso euskaldunekin batera. Nolanahi ere, hurbiletik jarraitzeko moduko datu batzuk ere agertu dira, euskararen erabileran atzera-pausuak adieraz ditzaketenak. Horien artean daude ikerketan parte hartu duten LH4ko haurren euskararen erabileran antzeman den erabilera nabarmen baxuagoa, edota aisialdiko zenbait eremutako euskararen erabilera apala. Era berean, arretaz begiratu behar da etxeko erabilera elebiduna eta, haurrek duten euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboa, aldagai horiek erabakigarriak baitira euren euskararen erabileran bai esparru formalean -eskolan-, eta, baita, lagun arteko aisialdiko sozializazioan.

Kontuan izan behar da, era berean, ikerketak une bateko diagnosis egin duela, eta, interesgarria litzatekeela egoeraren bilakaeraren berri ere izatea. Horregatik, ikerketa kuantitatiboari jarraipena egitea interesgarria litzateke gutxienez behatutako unibertsoari jarraipena egiteko helburuarekin. Era berean, komenigarria litzateke behaketa hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleen praktiketara zabaltzea, Euskal Herrian egiten diren beste ikerketa estandar batzuekin alderagarritasuna ziurtatzeko. Akaso, gaur egungo ikerketa-paradigma berriek zabal dezakete bidea ikerketa sakonagoak egiteko. ●

Erreferentziak

- Altuna Zumeta, Olatz, eta Jone M. Hernández García. 2021. «Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 29–45.
- Altuna Zumeta, Olatz, Maialen Iñarra Arregi, Asier Basurto Arruti, eta Belen Uranga Arakistain. 2022. «Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Emaita nagusiak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 125.
- Amezaga, Josu. 2013. «Arrue proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011; ikasleen hizkuntza erabileraren datuak». In *Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco*, 183–88. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Bengoetxea, Xabier. 2013. «Arrue proiektua. Ikasleen eskola-giroko erabileraren inguruko ikerketa. Emaita nagusien txostena. Iruzkina». In *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzia*, 2009–14. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- EUSTAT. 2021. «Biztanleen Udal Erroldaren estatistika 2021».
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. 2023. *VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021 Euskal Autonomia Erkidegoa LABURPEN-TXOSTENA*. Vitoria-Gasteiz.
- Garcia-Ruiz, Maite. 2023. «Testuinguru erdalduneko D eredu ikastola bateko gurasoen familia hizkuntza-politika eleaniztunak». Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Iñarra, Maialen, Olatz Altuna, Belen Uranga, Gillen Martinez dela Hidalga, Iker Etxarte, eta Manex Basabe. 2022. «Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Zumaia 2021». *Soziolinguistika Klusterra*. www.soziolinguistika.eus/kaleneurketak.
- Kasares, Paula. 2014. *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo.: Euskaltzaindia.
- . 2017. «Euskararen transmisioa: berrikuspina hizkuntza-sozializazioaren paradigmantik». In *Euskararen biziberritzea. Marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen, -(e)k argitaratua* Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea, eta Ibon Manterola, 27–51. Bilbo: UEU.
- Larraina Euskara Elkarte. 2022. «Haurren euskarazko sozializazioa Zumaian. Ikerketaren emaitzak». Zumaia.

- Martinez de Luna, Iñaki. 2013. «Euskara EAeko Hezkuntza Sistemari irakurketa soziologikoa». In *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritziak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 121–33.
- Martinez de Luna, Iñaki, Pablo Suberbiola, Mikel Zalbide, eta Arrate Egaña. 2013. *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritziak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Schieffelin, Bambi B., eta Elinor Ochs. 1986. «Language socialization». *Annual Review of Anthropology* 15: 163–91.
- Soziolinguistika Klusterra. 2022a. «ESKOLA KIROLEKO PARTIDAK Euskararen Erabileraren Neurketarako testatze ariketa». (Argitaratu gabea).
- . 2022b. «Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Zumaia 2021».
- . 2023. «Eskola Kirola: euskararen erabileraren neurketak. Emaitza osagarriak: Zarautz». (Argitaratu gabea).
- Zalbide, Mikel. 2013. «Eskola eta hizkuntza: ardo berria zahagi zaharrean». In *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritziak*, 151–68. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUROPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/TXEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERRONKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGIKA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLINGUISTIKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA, 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/JEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAJONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRESKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EA EKO ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLINGUISTIKAREN IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZEALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN
GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI.
NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLOGIA
IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA
HIZKUNTZA

91-92/EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK
BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN
ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU
EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA
SOZIOLOGIA (1981-2011).

(I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA
JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA
SOZIOLOGIA (1981-2011). (II)
ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN
SOZIALA EUSKARAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU.
EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK (II)
ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA:
EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA
PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

105/X. HAUSNARTU EUSKAL
SOZIOLOGIA SARIAK

106/EUSKAL SOZIOLOGIA
2016KO DATU ESTATISTIKOAK

107/EUSKALTZALETASUNAREN
AKTIBAZIOA (II)

108/OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

109/XI. HAUSNARTU EUSKAL
SOZIOLOGIA SARIAK

110/ARNASGUNEAK ETORKIZUNEN
ERRONKAK

111/BIZINDAR DIGITALA

112/EUSKALTZALEEN MUGIMENDU
BERRITUA

113/TXILLARDEGI-HAUSNARTU EUSKAL
SOZIOLOGIA SARIAK

114/NAZIOARTEKO HIZKUNTZEN
GARAPENLANKIDETZA

115/HIZKUNTZA-KOMUNITATEAZ

116/EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOA
2020KO HAMARKADAKO HEDABIDEETAN

117/TXILLARDEGI-HAUSNARTU EUSKAL
SOZIOLOGIA SARIAK

118/EUSKARAREN INDAR- ETA AHULEZI-
PRINTZAK IPARRALDEAN

119/IMMIGRAZIOA, HIZKUNTZA-
ANIZTASUNA ETA EUSKARA

120/GAZTEAK ETA EUSKARA

121/EUROPAKO HIZKUNTZA-
ANIZTASUNAZ

122-123/TXILLARDEGI-HAUSNARTU
SARIAK (2021)


124/EUSKARA ESPARRU
SOZIOEKONOMIKOAN

125/HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE
NEURKETA (2021)

126/TXILLARDEGI-HAUSNARTU SARIAK
(2022)

127/EUSKAL SOZIOLOGIA
IKERKETA GAZTEA

128/EUSKARA ELKARTEEN AKTIBAZIOA




Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiako



**SOZIOLINGUISTIKAREN
MUNDUKO
LEIHOA**


Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz

Atal hau HABE Liburutegiarekin lankidetzan osatu da. Bertan, soziolinguistika gaietan nazioartean argitaratu berri diren zenbait liburu interesgarriren aipamenak egingo dira, euskararen biziberritzean lagungarri izan daitezkeelakoan. Gogoan izan, irakurle, horiek guztiak eskura izango dituzula HABE Liburutegian.

**THE ROUTLEDGE HANDBOOK OF SOCIOLINGUISTICS
AROUND THE WORLD / edited by Martin J. Ball, Rajend Mesthrie,
Chiara Meluzzi. -- 2nd ed. -- Abingdon : Routledge, 2023 978-1-032-05612-8**

Bilduma aberats honetan bost eskualde eta herrialde ugari daude ordezkatuta, eta nire sarrera laburrean zenbait alderdi berezi nabarmentzen dira eta, agian garrantzitsuagoa dena, errepikatzen diren gaiak. Lehenengoei dagokienez, ikusten dugu Kanadak -mundu berriko immigranteak hartzen dituzten herrialdeen artean- Europako hizkuntzen bi korrante nagusi dituela. Lehendik populazio indigenarik ez dagoen testuinguruetan aurkitzen dira Atlantikoko uharteetako anglizismoak. Espainian, esan daiteke euskara eta katalana direla herrigune sendoak dituzten hizkuntza gutxitu bakarrak. Ekimen nazionalistek serbokroaziera bi hizkuntza bihurtzea eskatzen dute. Askotan agertzen diren gaien artean aipa ditzakegu ingelesaren gero eta eragin handiagoa, hizkuntzak talde-identitateari eusteko duen ahalmena, hizkuntza autoktonoen eta hizkuntza "txikienen" arteko tirabirak, eta hizkuntza-politiken irismenean eta ondorioetan dauden gorabehera handiak.

- Sarrera hau lagungarri izango da irakurlearentzat, garrantzi berezia izan dezaketen gai eta eskualdeei errepara diezaien.



AURKIBIDEA

Part I. The Americas

Part II. Asia

III Australasia


IV Africa and the Middle East

V Europe

•

**LANGUAGE, MIGRATION AND IN/EXCLUSION IN THE
WORKPLACE / edited by Jo Angouri, Julie Kerekes and Minna Suni. --
Bristol : Multilingual Matters, 2023 978-1-80041-693-2**

Egungo mundu globalizatu honetan, eskala handiko migrazioa da arau. Etorkinei kokatzen eta finkatzen laguntzen dien faktoreetako bat lana eta segurtasun ekonomikoa lortzeko aukera da. Liburu honetan, lan munduan sartzen (saiatzen) diren etorkinen bizipenak dira ardatz, eta aurkitzen dituzten oztopoak eta laguntzak aztertzen dira.



Egileek bildu dituzten azterlanetan lantokian hizkuntzaren aldetik izaten diren inklusio-ko eta bazterketako moduak aztertu dituzte, hainbat ikuspegitik begirata, hala nola ikuspegi historikotik, diskurtsoaren analitikaren ikuspegitik, ikuspegi narratibotik eta hizkuntzen ebaluazioaren ikuspegitik. • Kapituluetan barrena, gaiaren ikuspuntu berritzaile, holistikoa, zeharkakoa eta diziplina anitzekoa aurkezten da, eta eleaniztasuna eta identitate profesionala aztertzeko metodo analitikoak eta tresna teorikoen sorta zabala dago jasota.

AURKIBIDEA:

Chapter 1. Migration and Language at Work: Current Trends and Future Opportunities for Multidisciplinary Research

Chapter 2. Contextualising Diversity, Work and Mobility across Time: Cases from Norway's 'High North'

Chapter 3. The Discursive Construction of the Medical Doctor as an Immigrant

Chapter 4. Multilingual Professionals, Monolingual Contexts and Multicultural Mindsets: Towards an Intercultural Mindset

Chapter 5. Conventional Expressions as Shibboleths in Multilingual Job Interviews

Chapter 6. Assessing and Analysing Health Care Finnish: Test Performance and Lived Experiences

Chapter 7. The Role of Soft Skills in Vocational ESL: Their Potential to (Dis)Empower Migrant Employment Seekers

Chapter 8. Impression Management Games: Language and Mobility among Southern European Migrants in a London Call Centre

Chapter 9. Understanding the Immigrant Actor through a Multilingual Lens


Chapter 10. '[They] thought I didn't know how to be a chef because I didn't speak Finnish': Gatekeeping and Professional Role Enactment in a Multilingual Kitchen Context

•

**THE MINORITY LANGUAGE AS A SECOND LANGUAGE :
CHALLENGES AND ACHIEVEMENTS / Edited By Jasone Cenoz,
Durk Gorter. Routledge, 2024 9781032289991**

Bilduma berritzaile hau, hain zuzen ere, hizkuntza gutxituak bigarren hizkuntza gisa ikasteari buruzko ikuspegi globalak aurkeztu dituen lehen lana da; izan ere, hizkuntza gutxituaren ikaskuntzari eta ezaugarri bereziei buruzko perspektiba paregabeak eskaintzen ditu, eta SLA edo bigarren hizkuntza eskuratzea gertatzen den beste testuinguru eta hizkuntza batzuen inguruan kontzientziazio handiagoa eragiten du.

Bilduman, hizkuntza gutxituak bigarren hizkuntza gisa nola eskuratzen diren aztertzen da, eremu geografiko jakin batzuetan: hizkuntza horiek gutxiengo bereziak diren tokietan, hau da, gutxiengo diren estatu batean edo gehiagotan hitz egiten dira. Nazioarteko kasuen ikerlanetan hizkuntza horien ezaugarri bereziak aztertzen dituzte, baita hizkuntza horiek irakasteko eta ikasteko erronkak ere, hala nola normalizazioa, hezkuntza-maila gutxietan legezko errekonozimendua izatea, material inprimatu eta digitalen zabalkundea eta hizkuntzaren erabilera gutxi-asko mugatua tokiko komunitatean. • Hizkuntza hauek, besteak beste, nabarmendu dira: ashaninka, euskara, frisiera, hawaiiara, irlandera, Istmoko zapotekera, chanka kitxua, tongera eta galesa.



AURKIBIDEA

Chapter 1. Second language acquisition and minority languages

Chapter 2. Power to the minorities

Chapter 3. The acquisition and use of Irish as a minority language


Chapter 4. Legitimising the 'bilingual'

Chapter 5. Learning of Indigenous languages in university settings

•

A PANORAMA OF LINGUISTIC LANDSCAPE STUDIES / Durk Gorter and Jasone Cenoz. -- Bristol : Multilingual Matters, 2023 978-1-80041-713-7

Hizkuntza geure inguruan daukagu, denbora guztian, eta hizkuntza-paisaia hori ikertzea da hizkuntzalaritza aplikatua gehien hazten ari den ikerketa-eremuetako bat. Liburu honetan, Hizkuntza Paisaiaren Azterketaren eremua nola sortu zen eta azken 20 urteetan nola garatu den azaltzen da, ikuspegi teorikoak, ikerketa-metodo berritzaileak eta ikerketa-eremu dinamiko horretan funtsezkoak izan diren gai nagusiak sakonki aztertuta. Hasieratik eremu horretan lanean aritu diren bi egilek idatzi dute liburua, eta mundu osoko azterlanen laburpenak jasotzen ditu, eremuaren etorkizunari buruzko eztabaida bat, eta hizkuntza-paisaiaren ikerketak hizkuntza-politikan, hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan eta hizkuntza gutxituen biziberritzean duen eraginari buruzko azterketa bat. • Hizkuntza Paisaiaren Azterketan dabilzan ikasle eta ikertzaileentzat oso lagungarria izango da, baita lotutako arloetan ari direnentzat ere.



AURKIBIDEA

- Chapter 1.** Introduction: Captivating Studies of Language in Public Spaces
- Chapter 2.** History: Early Stages of an Emerging Field
- Chapter 3.** Theoretical Approaches: A Range of Perspectives
- Chapter 4.** Research Methods: Quantitative and Qualitative Approaches
- Chapter 5.** Photography and Other Distinctive Research Methods
- Chapter 6.** Multilingualism is All Around Us
- Chapter 7.** The Visibility of Minority Languages
- Chapter 8.** The Influence of Language Policies
- Chapter 9.** English Can Be Seen Everywhere
- Chapter 10.** Educational Contexts
- Chapter 11.** What's in the Names?
- Chapter 12.** Expanding the Field of View

bat aldizkariaren 2023ko
dosierak

126. ZENBAKIA

TXILLARDEGI-HAUSNARTU SARIAK (2022)

~

127. ZENBAKIA

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAN IKERKETA GAZTEA

~

128. ZENBAKIA

EUSKARA ELKARTEEN AKTIBAZIOA

~

129. ZENBAKIA

**HIZKUNTZA INDIGENAK BIZIBERRITZEKO
ESPERIENTZIA BATZUK**



